



**2022-2023 IKASTURTEAREN
ANTOLAKETA HAUR HEZKUNTZAKO
ETA LEHEN HEZKUNTZAKO
IKASTETXE PUBLIKOETAN**

**Hezkuntza
sailburuordearen ebazpena**



AURKIBIDEA

SARRERA	3
1. HEZKUNTZA-ANTOLAKETA ETA -PLANGINTZA	4
1.1. IKASTETXEAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUA	4
1.2. IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-PROIEKTUA (IHIP)	5
1.3. IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA (IPD)	6
1.4. IKASTETXEAREN URTEKO PLANA (IUP).....	6
1.5. URTEKO MEMORIA	15
1.6. JASANGARRITASUNERAKO ESTRATEGIA 2030	15
1.7. BERDINTASUN-IRIZPIDEAK	16
1.8. BIZIKASI EKIMENA	17
1.9. HEZKUNTZA-ESPARRUAN HAUR ETA NERABEEK JASAN DITZAKETEN BABESGABETASUN-EGOERAK ETA TRATU TXARRAK, ABUSUA ETA SEXU-JAZARPENA PREBENITZEKO ETA EGOERA HORIETAN JARDUTE-PROTOKOLOA	19
1.10. HEZKUNTZA EREMUAN SUIZIDIOA PREBENITZEKO PROTOKOLOA	22
1.11. HEZKUNTZAREN ETA OSASUN MENTALAREN ARTEKO LANKIDETZAREN ESPARRU OROKORRA23	
1.12. IKASLE TRANSEI EDO GENERO PORTAERA EZ-NORMATIBOA DUTENEI ETA HAIEN FAMILIEI LAGUNTZEKO PROTOKOLOA	23
1.13. EUSLE PROGRAMA.....	23
1.14. ERALDATZEN PROGRAMA.....	25
2. IKASLEAK	25
2.1. IKASLEEN ANTOLAKETA	25
2.2. HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO BERARIAZKO PREMIAK (HLBP) DITUZTEN IKASLEAK.....	26
2.2.1. Hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleak	27
2.2.2. Arreta nahasmendua edo ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten ikasleak.....	29
2.2.3 Adimen-gaitasun handiko ikasleak	30
2.2.4. Ikasleak ohiko onarpen-prozesutik kanpo eskolatzea	30
2.2.5. Baldintza pertsonal bereziak edo eskola-historiakoak dituzten ikasleak.....	31
2.3. IKASTETXEEK HLBP-ak (ARRETA- EDO IKASKUNTZA NAHASMENDUA, HIZKUNTZAREN GARAPENAREN NAHASMENDUA, ADIMEN-GAITASUN HANDIAK) DITUZTEN IKASLEEI BURUZKO INFORMAZIOA BILTZEKO ETA ANTOLATZEKO PROZEDURA	32
2.4. EBALUAZIO PSIKOPEDAGOGIKOA ESKATZEA BERRITZEGUNEKO HPB-KO AHOLKULARITZARI ...	32
2.5. APARTEKO CURRICULUM-NEURRIAK ESKATZEA	33
2.6. ARRETA GOIZTIARRA: HAUR-GARAPENAREN JARRAIPENERAKO PROTOKOLOA	35
2.7. ESKOLA-EGUTEGIA ETA –ORDUTEGIA	36
2.7.1. Haur Hezkuntzako ikasleak	37
2.7.2. Lehen Hezkuntzako ikasleak	38
2.8. IKASLEAK KLASERA BERTARATZEA	40
2.9. ERLIJIOA	41
2.10. IKASLEEN EBALUAZIOAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK	41
2.10.1. Ebaluazioari buruzko arau orokorrak	41
2.10.2. Hezkuntza-Laguntzako Berariako Premiak (HLBP) dituzten ikasleak (EUSLEko ikasleak barne) ebaluatzeke neurriak.....	43
2.10.3. Salbuespenak.....	43
2.11. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN JARRAIPENA	44
3. IRAKASLEAK ETA HEZKUNTZAKO PERTSONALA.....	44
3.1. IRAKASLEEN ANTOLAKETA.....	45
3.1.1. Irakaskuntza-jardueraren antolaketa.....	45
3.1.2. Urteko Lanaldia	45



3.1.3. Asteko lanaldia eta irakasleen eginkizunak.....	46
3.2. ZUZENDARITZA-KARGUAK	56
3.2.1. Zuzendaritza-taldea	56
3.2.2. Zuzendaritza-kargudunen ordutegia	56
3.3. IRAKASLEEN BERTARATZEA ETA LANALDIA BETETZEN DELA KONTROLATZEA	57
3.4. ZIKLO/ETAPAKO TALDEAK	58
3.4.1. Ziklo/etapako koordinatzaileak	59
3.4.2. Ziklo/etapako taldearen bilerak eta zereginak.....	59
3.5. MAILAKO TALDEAK ETA TUTORETZAK	60
3.5.1. Tutoreen izendapena	61
3.5.2. Tutorearen eginkizunak	61
3.5.3. Irakasleen bertaratze-hutsegiteen kontrola	62
3.5.4. Bilerak familiekin	62
3.6. PRAKTIKETAKO UNIBERTSITATE-IKASLEEN TUTORETZA	63
3.7. HAUTAKETA PROZEDURETAN HAUTATUTAKO IRAKASLEEN PRAKTIKALDIA.....	64
3.8. LANGILE ESPEZIFIKOAK	64
3.8.1. Jantokiko ardura-duna	64
3.8.2. Administrazio-kudeaketaren ardura-duna	66
3.8.3. Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoan programako irakasleak	68
3.8.4. Lan-legepeko irakasle eta hezitzaileak	69
3.8.5. IBT-CRI laguntza-zerbitzua	69
3.8.6. Zeinu-hizkuntzako interpretea	69
4. IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUAREN BESTE ARAU BATZUK	70
4.1. IKASTETXEETAKO ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK URTEKO PLANEAN AURREIKUSI GABEKO JARDUERETARAKO ERABILTZEA.....	70
4.2. IKASTETXEETAKO OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA	70
4.2.1. Osasun-larrialdiko egoerak ikastetxeetan.....	71
4.2.2. Osasun-arreta eskola-orduetan	71
4.2.3. Ibilgailuak ikastetxera sartzea.....	71
4.2.4. Obrak.....	71
4.2.5. Tabakoa eta alkohol-dun edariak.....	72
4.2.6. Eskolako laborategien erabilera.....	72
4.3. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO ZERBITZUA.....	72
4.3.1. Segurtasuneko laguntzailea	73
4.3.2. Irakasleen prestakuntza prebentzioaren arloan.....	73
4.3.3. Larrialdietarako simulakroak	73
4.3.4. Botikin eramangarria	73
4.3.5. Laneko istripuak	73
4.3.6. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa	74
4.4. DATU PERTSONALEN BABESA	74
4.5. IKASTETXEETAKO JABETZA INTELEKTUALA	75



HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN EBAZPENA 2022-2023 IKASTURTERAKO

SARRERA

Azkeneko bi ikasturteotan ez bezala, 2022-2023 ikasturteko Ebazpen honetan ez dugu osasun-larrialdiko aipamenekin hasi beharrik; arreta ez dugu Pandemia bati aurre egiteko antolamendu-eta logistika-neurrietan jarri beharrik, nahiz eta erne jarraitu beharko dugun.

Zorionez, 2022-2023ko ikasturte hasierako Ebazpen honetan irakas-ikas prozesuetan eragina duten alderdietan bilduko ditugu indarrak: pedagogiaz, metodologia berriaz, digitalizazioaz, zaintza emozionalaz, eta bereziki, curriculumaz mintzatuko gara.

PEDAGOGIAz letra larriz hitz egiteko eta, bete-betean, ikasleen ongizatea eta sakoneko ikaskuntza-prozesuetan jarduteko ikasturtea dugu 2022-2023a.

Azken urteotan hezkuntza-sistemak beharrezko erresilientzia-gaitasuna erakutsi behar izan du egoera aldakorretara egokitzeko. Izan ere, pandemiak erronka berriei aurre egiteko ikuspegia eguneratzearen beharra ekarri digu.

Testuinguru horretan, espero baino arinago etorri zaigun Curriculum berriaren arkitektura inplementatzen hasiko gara irailean eta esku artean ditugun eta eraikitzen joango garen lanabesekin egingo dugu bidea. 2021-2022 ikasturtean zehar, gure euskal hezkuntza sistemako hainbat aholkulari, irakasle, ikuskari eta zuzendari aritu dira, aparteko ahalegina eginez, curriculum berriaren inguruan lanean, benetan ziur gaudelako curriculum berri honek aldaketa esanguratsuak ekarriko dituela. Curriculum berriak konpetentzien bidezko ikaskuntzan jauzi kualitatiboa ekarriko du eta lan egiteko moduan zenbait aldaketa esanguratsu ekarriko ditu, ikasleen ikaste-prozesu berri eta arrakastatsua bermatze aldera.

Ikerketak eta esperientziak erakusten digutenez, ikastetxeko ikaskuntzak eta berrikuntzak benetako eragina izateko, beharrezkoa da hedapenerako estrategia globalak diseinatzea eta gauzatzea, bai ikastetxearen barruan, bai sistema osoan hedatutako saretzearen bitartez. Gure sistemako unibertso osoa izan behar da pixkanaka eraldatu eta egokitu behar dena. Horrerako, 2022-2023 ikasturtetik aurrera, ikastetxe guztietan energia eta fokoa prozesu hauetan jarriko duen ikaskuntza eta berrikuntzarako koordinatzailea esleitu dugu, eta ikaskuntza-sarea sortuko dugu Berritzeguneko aholkulariak baliatuz.

Malgutasunez eta poliki-poliki indarrean inplementatuko dugu Curriculuma; hartara, berariazko prestakuntza eskainiko dugu klaustroetan; izan ere, curriculumaren hedapena irakasle bakoitzak bere geletatik inplementatzeaz harago doa. Ikastetxearen hezkuntza proiektuan oinarritutako curriculum proiektuan islatu behar da aldaketa curricularra, metodologiak eraldatuz, digitalizazioa indartuz, ikaslea erdigunera ekarrita, bere ongizatea eta ikaskuntza-prozesua zainduz.



Klaustroa oro har, eta, bereziki irakasle bakoitza, hezkuntzaren eraldaketarako motorrak dira, aldaketaren eragile, ikasleen gidari eta hezkuntza-komunitatearen erreferente. Hori dela eta, Curriculumarekin batera, 2022-2023 ikasturterako, ildo estrategiko hauek proposatzen ditugu:

- Curriculumarekin batera, ebaluazio-eredu berri baten inguruko gogoeta egitea, irakasteko eta ikasteko prozesu esanguratsuak bultzatzeko.
- Ikastetxeetako zuzendaritzen hezkuntza-lidergoa eta ahalduntzea sustatzea.
- Hezkuntza-komunitate eleaniztunak bultzatzea, euskara ardatz; euskaraz komunikatzeko konpetentzia, erabilera eta normalizazioa sustatzeko esku-hartzeak areagotzea.
- Ikastetxeko proiektu digitala garatzea, ikastetxe bakoitzaren beharrei erreparatuta eta irakasleen gaitasun digitala akreditatzeko bidea irekitzea.
- Ikasle guztien beharretara egokitutako eskola inklusiboaren alde bete-betean lan egitea.
- Konpetentzia emozionala lantzea eta ongizate emozionala zaintzea.

Ildo nagusi hauei erantzun ahal izateko, orain arte bezala, hezkuntza-komunitate osoaren lana eta konpromisoa erabatekoa izango delakoan nago. Gainera, ikastetxeetan funtzio berriak izango dituzten lankideak izango ditugu: Berrikuntza-arduradunak eta mentore digitalak.

Figura hauek ikastetxeetako lankideak diren neurrian, seguru nago, denok konpromisoz, konfiantzaz eta motibazioz lagunduko diegula, esku artean izango dituzten erronkei aurre egin ahal izateko.

Hitzaurre hau bukatu nahi dugu gogoratuz munduko lanik ederrena eta garrantzitsuenetakoa dugula; gizartearen etorkizuna gure ikasleen esku txikietan dago, handituz joango direnak, guk euren bihotzean, buruan eta eskuetan jarriko dizkiegun jakintzarekin eta ilusioarekin.

1. HEZKUNTZA-ANTOLAKETA ETA -PLANGINTZA

Ebazpenaren lehen puntu honetan, hezkuntza-antolaketari eta -plangintzari buruzko alderdiak landuko dira, eta 2022-2023 ikasturtean Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko guztiek kontuan hartu beharreko lehentasunak edo gutxieneko alderdiak ezarriko dira.

1.1. IKASTETXEAREN HEZKUNTZA-PROIEKTUA

Ikastetxearen hezkuntza-proiektua (IHP) proposamen integral eta globala da, loteslea, hezkuntza-komunitatearen eta haren ingurunearen ezaugarriak aztertu ondoren egina, eta haren balioak, printzipioak eta helburuak zehazten ditu, baita horiek lortzeko modua ere.

IHParen atalek jasoko dituzten alderdiak —betiere indarrean dagoen araudiarekin bat etorriko direnak— nahitaez aipatu behar dira ikastetxeak bere eskumenen esparruan hartu beharreko



erabakietan. Hezkuntza-komunitateko eragileak (irakasleak, ikasleak, familiak eta pertsonal ez-irakaslea), Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 48.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, behartuta egongo dira artikuluko horren ataletan adierazitakoa errespetatzera. Nolanahi ere, Hezkuntza-komunitateko eragileek IHPa berrikusteko eta eguneratzeko proposamenak egin ahal izango dituzte, IHPan bertan ezarritako prozedurari jarraituz.

Ikastetxe guztiek egina eta eguneratuta izan behar dute IHPa. Lan hori erraztearren, Hezkuntza Sailak hezkuntza-proiektua prestatzeko gida du ikastetxeen eskura¹

1.2. IKASTETXEAREN HIZKUNTZA-PROIEKTUA (IHIP)²

Azken urteotan egindako ebaluazioek agerian utzi dute ikasle guztiekin euskarazko hizkuntza-konpetentzia lantzen eta bultzatzen jarraitu behar dela, eta hori izango da, besteak beste, 2022-2023 ikasturtean heldu beharreko lehentasunetako bat.

Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua Hezkuntza Proiektutik eratortzen den funtsezko dokumentua da, bertan jasotzen baitira hizkuntzen irakaskuntzari eta erabilerari dagozkion erabaki guztiak. Hizkuntza Proiektuak jasoko dituen erabaki horiek guztiek honako azken xede hau izan behar dute: ikastetxeko ikasle guztiek komunikaziorako konpetentzia egokia eskuratzea, euskaran, gaztelanian eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean.

Xede hori lortzeko, gurea bezalako hezkuntza sistema elebidunean, non eskolatze hizkuntza -euskara- gure ikasle askoren bigarren hizkuntza den, eta gainera egoera minorizatuan dagoen, ezinbestekoa da euskarari –haren komunikazio konpetentziari, erabilerari eta normalizazioari- lehentasuna ematea. Horretarako, ikas-irakas prozesu guztietan hizkuntzaren alderdia ere kontuan hartuko da. Hau da, euskara izango da Hizkuntza Proiektuaren ardatz, gaztelania eta atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza integraturik, eta ikasleen bestelako familia-hizkuntzak ere kontuan harturik.

Guztiagatik, ikastetxeek euskara ardatz duen hizkuntza proiektu eleaniztun eraginkorrak garatu behar dituzte. Hori lortzea Hezkuntza Sailaren lehentasuna izango da datozen ikasturteetan, eta, horretarako ikastetxeek hainbat proiektu, ekimen eta esku-hartze landuko dituzte, besteak beste:

- Irakurmena eta irakurketa plana.
- Hizkuntzen trataera integratua eta integrala.
- Elkarreragina sustatzen duten metodologiak.

¹ <https://www.euskadi.eus/hezkuntza-berri-lider-eskola-zuzendari-dokumentuak/web01-a2hberri/eu/>

² <https://www.euskadi.eus/hezkuntza-berri-hizkuntzak-dokumentuak/web01-a2hberri/eu/>



- Ahozko hizkuntza lantzeko estrategiak.
- Arreta eta erantzuna hizkuntza-premiak dituzten ikasleei (etorri berriak, detekzio goiztiarra...).
- Euskararen erabilera eta normalizazioa ikastetxean.
- Elkarlana familiekin eta komunitatearekin, euskararen aldeko ekosistema lagungarriak sustatzeko.
- Erabileran eragiteko alderdi motibazionalak.
- Euskal kulturaren transmisioa.
- Atzerriko Hizkuntza edukien bidez lantzeko estrategiak.
- Hizkuntzen arteko transferigarritasuna.
- Irakasleen prestakuntza, hizkuntzen gaitasuna hobetzeko eta sistema eleanitzetan hizkuntzak irakasten trebatzeko.

1.3. IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA (IPD)

Ikastetxearen Proiektu Digitala IHParekin eta ICParekin lerrokatua egongo da.

Ikastetxe guztiek Ikastetxearen Proiektu Digitala egingo dute 2023ko ekainaren 16rako eta Hezignunera igoko da. Ikuskaritzak ziurtatuko du proiektua eperako eginga dagoela eta Berritzegune Nagusitik aztertuko da edukia, proiektuok balidatze aldera.

IPDa egiteko Digitalizazio Batzorde bat osatuko da, IPDaren egite prozesua dinamizatzeko eta koordinatzeko eta eguneratua mantentzeko. Horretarako, ikastetxeek hainbat tresna eta laguntza izango dute eskura: gida, on-line laguntza, Mentoreen Sarearen aholkularitza.

1.4. IKASTETXEAREN URTEKO PLANA (IUP)

Zuzendaritza-taldea arduratzen da ikastetxearen urteko planaren prestaketa koordinatzeaz. Plan hori onartzea Ordezkaritza Organo Gorenari (OOG) dagokio, bazter utzi gabe Euskal Eskola Publikoaren Legeak klaustroari irakaskuntza-jardueren programarekiko esleitzen dizkion eskumenak.

Ikastetxeek 2022-2023 ikasturterako IUPa egingo dute ikastetxeko jarduerak planifikatzeko, antolatzeko eta kudeatzeko eta Hezkuntza Ikuskaritzaren esku jarriko dute 2022ko urriaren 28a baino lehen, Irakaslegunearen bidez.

IUPa laburra eta zehatza izango da, ikastetxearentzat berarentzat erabilgarria eta praktikoa izan dadin, Hezkuntza Sailaren webgunean aurki daitekeen gidaren gomendioei jarraituz.³

³ <https://www.euskadi.eus/hezkuntza-berri-lider-eskola-zuzendari-dokumentuak/web01-a2hberri/eu/>



Ikasturte hau planifikatzeko lehentasunezko esparruei dagokienez, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

- Curriculum berria eta haren garapena eta digitalizazioa
- Berrikuntza bizikidetzaren arloan eta aniztasunaren kudeaketa, zaintza emozionala barne.
- Euskara, Eleaniztasuna eta Kulturartekotasuna.
- Lidergo pedagogikoa, zuzendaritza-taldea.

Hezkuntza-jarduera osoa esparru inklusiboan garatzen dela kontuan hartuta, beharrezkoa da kolektibo zaurgarrien egoera aintzat hartzea (ikasle etorri berriak, ikasle ijitoak, familia- egoera larriak dituztenak...). Horretarako, beharrezkoa da ikastetxeek eskola-emaizak hobetzeko helburuak esplizituki sartzea proiektu eta urteko planetan, beharrezko laguntzak emateko.

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen arabera, urteko planak ondoren adierazten diren atalak jaso behar ditu, gutxienez.

a) Irakaskuntza-jardueren programa

Klaustroari edo, hala badagokio, batzorde bati dagokio programa hau prestatzea.

Irakaskuntza-jardueren programan jasotzen dira ikasturtean zehar ikastetxea eta eskola-jarduera antolatzeak hartzen diren erabakiak, barneko eta kanpoko ebaluazioen emaitzak kontuan hartuta. Horretarako, honako alderdi hauek hartu behar dira kontuan:

1. Honako proiektu eta planetatik eratorritako helburuak eta ekintzak: Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua, Hizkuntza Proiektua, Zuzendaritza Proiektua, Bizikidetzak eta Hezikidetzak Planak (ikastetxeak Bizikidetzak ekimena ezartzeko eta berdintasunean eta genero-indarkeriaren prebentzioan aurrera egiteko egingo dituen jarduerak barne) eta Aniztasunari Erantzuteko Plana.
2. Eskola emaitzak hobetze aldera, Diagnostiko-ebaluazioaren edo kanpoko beste ebaluazio batzuen emaitzak eta barne-ebaluazioaren emaitzak aztertu ondoren identifikatutako hobekuntza-helburuak eta dagozkien lorpen adierazleak zehaztuko dira.
3. Ikastetxeak parte hartzen duen Hezkuntza Sailaren esperientzia eta programen helburuak eta ekintzak jasoko dira, baita Estatuko edo Europar Batasuneko beste sail eta erakunde batzuek onartutakoak. Era berean, egindako proiektuaren ebaluazioa egiteko bidea emango duten prozedurak eta lorpen-mailaren adierazleak finkatuko dira.
4. Aurreko puntuetan jasotako ebaluazioaren emaitzak 2022-2023 ikasturteko memoriara eramango dira.

Hezkuntza Konplexutasunaren Indizea (HKI) aplikatzearen ondorioz baliabide gehigarria lortu dituzten ikastetxeetako zuzendaritzek atal bat sartu behar dute ikastetxearen urteko planean, baliabide horien helburua eta eginkizunak azaltzeko, kontuan hartuta proposatutako helburua dela eskola-emaizak hobetzea. Ondorioz, baliabide gehigarri hori, lehentasunez, zuzeneko



irakaskuntzako jardueretara bideratu beharko da: hezkuntza-banaketak; errefortzuak; koirakaskuntza; behar duten ikasleekin berariazko esku hartzea. Eraldatzen programan parte hartzen duten ikastetxeek bermatuko dute baliabide horren 1/3a Eraldatzen arduradunaren zereginetarako izango dela.

Era berean, ikasleak ebaluatzeko askotariko estrategiak aurreikusi beharko dira, ikasleen etengabeko ebaluazioan eta prestakuntzan sakondu ahal izateko. Irailean zehar, hasierako ebaluazioa egin beharko da. Horretarako, oinarri hartuko da ikasle bakoitzaren abiapuntuko egoera ikasturte berrirako eskatutako funtsezko alderdiekiko. Testuinguru horretan aparteko garrantzia du segidako mailetako irakasle-taldeen arteko koordinazioa sustatzeak.

Lortutako informaziotik abiatuta, laguntza- eta errefortzu-jarduerak antolatu beharko dira, mailaz igo arren, ikasturte berrirako aurreikusitako programazioari dagokionez ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten ikasleentzat. Hori guztia Norbanako Jarduera Planean jasoko da.

Irakaskuntza jarduerak izan behar duten marko metodologikoei dagokienez, kontuan hartu behar dira, besteak beste: ikasleak ikaste prozesuan eragile aktiboa izatea; ikasleen arteko interakzioa eta haien autonomia sustatuko duten proposamenak bultzatzea; erlazio-testuinguru malguak ezartzea; eta sormenezko proposamenak egitea. Hau guztia bizikidetza positiboa sustatzen duen testuinguru seguru batean.

b) Prestakuntza-plana

Urteko Planaren atal hau egitea zuzendaritza-taldeari edo batzorde pedagogikoari dagokio, eta OOGk onartu behar du.

Eremu honetan zuzendaritza taldearekin elkarlanean aritzeko, ikasturte honetan **Berrikuntza Arduradunaren figura berria (BeA)** esleitu da ikastetxeetan aurrerantzean ikastetxeen behar berrietan eta erronketan oinarritutako berrikuntza eta formazio planei modu integralean erantzuteko.

Hortaz, BeAren eginkizun behinena ikastetxeetan **ikaskuntza berrikuntza prozesuak sustatzea, dinamizatzea eta koordinatzeaz gain, hauei guztiei lotura ematea eta norabide koherente bakarrean jartzea izango da, IHParekin eta horretatik eratorritako dokumentu estrategikoekin bat eginez. Berritzeguneetatik koordinatutako sarearen partaide izango da.**

Hau kontuan hartuta, BeA ikastetxearen testuingurua, beharrak eta errealitatea ondo ezagutzen duen irakasle bat izan behar da. Horregatik, zuzendariak irakasle egokiena(k) aukeratuko d(it)u **behin betiko edota egonkortutako irakasleen artean. BeA-ri ezin izango zaio bere jardunaldiaren erdia baino gutxiago esleitu bere funtzioak betetzeko.**

BeAk, besteak beste, honako **funtzioak** izango ditu 2022-2023 ikasturtean:

- *Ikaskuntza eta Berrikuntza arduradunentzat*(BeA) proposatutako formazioetan eta saretzean parte-hartuko du. Horretarako ikastetxeak arduradun honentzat **hilabete bakoitzeko lehenengo eta hirugarren asteetako astearte eta asteazken goizak erreserbatuko** ditu irakaskuntza-kargarik gabe.
- Ikastetxeko *Ikaskuntza eta Berrikuntza Ekintza plana* diseinatu eta gauzatuko ditu (bi urtetarako). Orobat, ikastetxean ikaskuntzarako lidergo hedatua bultzatzeko prozesuak koordinatu eta bultzatuko ditu zuzendaritza taldearekin elkarlanean. Esan bezala, hau guztia egin ahal izateko, BeAk berariazko prestakuntza jasoko du irailetik aurrera.

Lotura eta elkarlan estua izango ditu Berritzeguneetako aholkulariekin eta ikastetxeetako beste berrikuntza arduradunekin. Orobat, ikastetxeari dagokionez, ikastetxeko zuzendaritza taldearekin (bereziki ikasketa buruarekin) eta ikastetxeko bestelako berrikuntza proiektu edo ekimen desberdinetan inplikaturako irakasleekin elkarlanean arituko da.

- Curriculum berria eta haren garapena eta digitalizazioa

2022-2023 ikasturtean curriculumaren garapenak lehentasuna du irakasleei curriculumak garatzen laguntzeko. Hori horrela, irakaskuntzaren planteamendu berriei eta hezkuntza-sistemaren eskakizunei aurre egiteko beharrezkoak diren estrategiak eta baliabideak eskainiko dira gelan inplementatzeko; izan ere, irakaskuntza-lana garatzen den testuingurua konplexuagoa bihurtu da, gizartea bezala, eta horrek irakasleei gaitasun profesional berriak garatzea eskatzen die.

Prestakuntza honen funtsezko helburua izango da berrikuntza eta curriculum-aldaketa sustatzea, irakaskuntza-hobekuntzari, irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntzari eta ikasleen ikaskuntzari lotuta.

Abian jarriko diren ekintzen artean, honako hauek daude:

- Etengabeko prestakuntza jarduerak antolatzea, curriculumak berria zabaltzeko eta garatzeko, horren gaineko alderdiak hobetzeko (ikas-egoerak, ebaluazioa, metodologia, etab.)
- Prestakuntza espezifikoak eskatzen duten eduki eta ikasgai berriei buruzko prestakuntza sustatzea
- Irteera-profila eta funtsezko kompetentziak garatuko dituzten berrikuntza-programak sustatzea ikasleak gizartean erabat integratzeko.
- "Ikastetxeetan ikerketa-kultura bat sortzen laguntzeko etengabeko formazio egiturak eta praktika pedagogikoak ezartzea" (lesson study gisakoak)
- Ikastetxeko proiektuak koordinatzeko, lantzeko, garatzeko, inplementatzeko eta ebaluatzeko jarduerak aurrera eramatea.



Teknologia digitalek hezkuntzaren arlo guztietan dute eragina eta beharrian eta aukera berriak sortzen dituzte. Hori horrela, hezkuntza-erakundeetan teknologia digitalen integrazio eraginkorra eta erabilera optimoa ahalbidetze aldera, Hezkuntza sailak 2022-2024 aldirako Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitalerako Plana onartu du.

Digitalizazio Plan honen baitan, ikastetxeetako ikaskuntza-irakaskuntzako eta ebaluazioko prozesuetan teknologia digitala sustatuko da. Hainbat ekintza bultzatuko dira honako arloetara bideratuta: material berriak sortzera, hezkuntza-komunitateko pertsona guztiak digitalki gaitzera, azpiegitura berriak garatzera eta ikaskuntzaren eraldaketa digitalerako praktika aurreratuak hartzera.

Horrekin batera, 2022. urtean argitaratu da Irakasleen Konpetentzia Digitalari dagokion marko berria; lanketa eta formazioa egingo da ikasturtean zehar eta, horri jarraiki, lanean diharduten irakasleen %80ak marko honekiko duen konpetentzia akreditatzea da helburua.

2022-2023ko ikasturterako, digitalizazioari dagokionez, ikastetxeek honako erronkak izango dituzte:

- Ikastetxe guztiek Proiektu Digitala izatea. (Digigunea)
- Irakasleen batez besteko trebakuntza digitala akreditatu ahal izatea.

Erronka hauek erdietsi ahal izateko, Hezkuntza Sailak hainbat baliabide jarriko ditu. Besteak beste, “DigCompEdu Gelan” izeneko ikastetxe eta mentoreen sare bat sortzea sustatuko du, eta sare hori erreferentzia izango da hezkuntza-sistemaren eraldaketa digitalerako.

Sare hori hainbat ikastetxek eta irakaslek osatuko dute. Aukeratutako ikastetxe eta irakasle horiek beren antolakuntza- eta hezkuntza-jardunaren eraldaketa digitala ezartzeko duten ezagutza eta esperientzia partekatuko dute gainontzeko ikastetxeekin, eta hezitzaileen mentoretza- eta prestakuntza-ekintzak bultzatuko dituzte.

Curriculum eta Irakasleen Konpetentzia Digitala deskribatzen duen markoa aztertuta, hainbat alderdi komunak dituztela agerikoa da, bata eta bestea, osagarri dira. Horregatik, Berritzegune Nagusiak formazio-eskaintza bateratua eskainiko du, ikastetxeetako klustroen bidez bideratuko dena. Curriculum ardatz duen formazio beraren bidez irakasleek, oinarrizko konpetentzia digitala akreditatu ahal izango dute. Formazio hau derrigorrezkoa izango da eta aurreikusten da Hezkuntza Sailaren hurrengo deialdi ezberdinetan aintzat hartuko dela ikastetxeen nahiz irakasleen eskabideak baloratzeko orduan.

○ **Irakasleen Konpetentzia Digitalaren akreditazioa**

Euskal Hezkuntza Sistemaren digitalizazio prozesuan aurrera pausu sendoak emate aldera, ikastetxeen errealitatera egokituko diren proiektu digitalak sortzeaz gain, irakasleak formazioa jaso beharko dute. Formazio hau Curriculum berriarekin bat etorriko da, irakasleen konpetentzia digitala zehazten duen markoaren arabera izango da eta adostutako akreditazio sistemari

egokituko zaio. Honek ekarriko du formazioak irakasleen gaitasun digitala baieztatzeko balio izatea.

Bide hau jorratzeko ikastetxeek Hezkuntza Sailak eskainitako ikastaroak izango ditu eskura, mentore eta zentroetako berrikuntza arduradunen laguntzarekin batera.

Akreditazio prozesu honetan Euskal Hezkuntza Sistemako irakasle guztiek hartu beharko dute parte 22-23an, bere konpetentzia digitalaren maila akreditatze aldera, .

Formazio hori ikastetxeetan modu egokian gauzatzeko, ikastetxeetako Berrikuntza Arduradunaren (BeA) lana eta koordinazioaz baliatuko da ikastetxea. Horretarako, prestakuntza egokia jasoko dute aldeaz aurretik. Gainera, BeA-ek mentore digitalen eta Digitalizazio batzordekideen laguntza izango dute.

○ **Euskara, Eleaniztasuna eta Kulturartekotasuna**

Prestakuntza-Planak jaso egingo ditu ikastetxean aurreikusita dauden euskararen komunikazio-konpetentzian eta euskararen erabileran eta normalizazioan eragiteko aurreikusita dauden formazio saioak, esaterako:

- Euskararen Normalizazio Proiektua duten ikastetxeek, hori garatzeko aurreikusi duten formazioa (Eskola Hitzun Bila jardunaldia, Iraleko H eta I ikastaroak...)
- Hizkuntzen komunikaziorako konpetentzia hobetzeko proiektu desberdinetan inplikaturako ikastetxeek, proiektu horiek gauzatzeko aurreikusi duten formazioa (Eleaniztasunerantz, Berbalapiko, Piktoidazketa, Pluriliteracies ...)
- Kulturartekotasuna sustatzeko proiektuetatik datozen formazioa beharrak hizkuntzan, ongizatean eta kultur aniztasunean (Eusle)
- Ikastetxeetako irakasleen batek hizkuntza gaitasuna edo hizkuntzak irakasteko prozesuak hobetzeko ikastaroetan parte hartuz gero (R300, R400, R600, R900, Prest Gara...), horiek ere jasoko dira Prestakuntza-Planean. Bereziki, R600 edo R900 ikastaroak egingo duten irakasleen kasuetan, ikastaro horietatik eratorritako egitasmoak ikastetxean inplementatu beharko baitira, curriculumaren euskal dimentsioa garatzeko eta euskarazko ahozko komunikazioa irakas-jardunean lantzeko.

○ **Lidergo pedagogikoa, zuzendaritza-taldea.**

Ikerkuntzak eta hezkuntza-praktikak gero eta nabarmenago aitortzen dute ikastetxeetako zuzendariak eta, hedaduraz, zuzendaritza-taldeko gainerako kideek zeregin garrantzitsua betetzen dutela, bai antolaketa eta kudeaketa dagokienez, bai hezkuntza-erantzunaren kalitatea etengabe berritzea eta hobetzea sustatzen duten alderdiei dagokienez.



XXI. mendeko eskola-zuzendaritzak konpetentziak eta lidergo-estilo berriak behar ditu, hezkuntza testuinguru eta erronka berriei erantzuteko estrategiak bultzatzeko. Eskola-zuzendaritza bat, hezkuntza-komunitateko kide guztiak helburu komunetara motibatzeke gai izango dena eta, horrela, aurreikusitako xedek lortuko dituen, bereziki ikasleen arrakasta hezitzailea eta pertsonala lortzera bideratutakoak.

Ezin ahanztz dezakegu, gurean, azken urteotan ikastetxeetan ditugun zuzendaritza talde egonkorren eta proiektudunen kopuruak nabarmen egin duela gora. Guztion artean eraikitzen ari garen bide horretan, ikastetxeetako zuzendaritza taldeen ahalduntzea eta lidergoa sendotzen jarraitzea ezinbestekoa da.

Helburua garbia litzateke: ikastetxeetan eraldaketa sustatzeko gai izango diren zuzendaritza-talde prestatuak, kohesionatuak eta iraunkorak sustatzea.

Testuinguru horretan zuzendaritza-taldeen prestakuntza zutarri bihurtzen da, zuzendaritza-taldeen lidergoa arrakastarako faktore erabakigarria dela sinetsita. Zuzendaritzen ahalduntzeak lankidetzak sustatu nahi du eskola-komunitatearen barruan eta hortik harago, zuzenean eragingo du irakasle taldeen garapen eta hazkunde pertsonalean eta profesionalean.

Zuzendariak hautatzeko egingo den deialdian parte-hartuko duten hautagaiek prestakuntza jasoko dute ikasturtean zehar. Honen helburua da zuzendari izango denari bere lanpostua eraginkortasunez betetzeko behar dituen konpetentziak eskuratzeko aukera ematea. Era berean, bere agintaldian aurkitzen diren zuzendaritza taldeko kideei euren konpetentzia maila garatzen jarraitzeko aukera emango zaie hainbat formazio-jarduerak eskainiz.

- **Berrikuntza bizikidetzaren arloan eta aniztasunaren kudeaketa, zaintza emozionala barne.**

Ongizate pertsonala, elkartasuna, bizikidetzak positiboaren eraikuntza, elkarrekiko zaintza eta osasun mentala sustatzeko, ikasturtean zehar honako prestakuntzak eskainiko dira:

- Ikasleen konpetentzia sozio-emozionalerako prestakuntza
- Irakasleen konpetentzia sozio-emozionalerako prestakuntza
 - Nori zuzendua: Irakasle ororentzat.
- BAT taldeentzako prestakuntza
 - Nori zuzendua: BAT taldekideak. Ikastetxe orok bermatu beharko du bere partaidetza
- Indarkeriak ikastetxean. Sexu-erasoak
 - Nori zuzendua: Irakasle ororentzat. 2022ko hezkidetzak deialdian onartuak izan diren ikastetxeek partaidetza bermatu beharko dute.
- Jokabide suizidaren prebentzioa
 - Nori zuzendua: Zuzendaria, kontsultore irakaslea eta ikasleen ongizate eta babeserako koordinatzailea.
- Ziber-hezkidetzak



- Nori zuzendua: Irakasle ororentzat. 2022ko hezkidetza deialdian onartuak izan diren ikastetxeek partaidetza bermatu beharko dute.

Deialdiak ikastetxeko zuzendaritzek jasoko dituzte eta aldi berean ohiko bideak erabiliko dira, ikastaroen zabalkuntza egiteko.

c) Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpoko programa

Jarduera osagarriak

Ikastetxeak eskola-egutegiaren barruan antolaturiko hezkuntza-jarduerak dira, ikastetxeko Curriculum proiektuarekin eta ondorioz, Urteko Planarekin lotura zuzena dutenak. Orobat, egiten diren une, gune edota erabiltzen diren baliabideengatik, ohiko eskola-orduetatik desberdintzen diren jarduerak dira. Ikasleek eta irakasleek derrigorrean hartu behar dute parte jarduera hauetan, gainerako ikas-orduetan bezala. Jarduera hauetan eman daitezkeen ikasleen hutsegiteak gurasoek justifikatu beharko dituzte.

Jarduera osagarriak antolatzeko garaian, helburuak, inplikaturako ikasle eta irakasleak, eta egiteko eguna, ordua eta lekua zehaztuko dira. Erregistro horrek OOGaren eta Ikuskaritzaren eskura egon beharko du ikastetxean. Era berean, zuzendaritza taldea arduratuko da irteeren erregistro hau eguneratua izateaz.

Ikastetxe batek jarduera osagarriak planifikatzen dituenean, ikasle guztiak hartu behar ditu kontuan. Guztiek dute jarduera horietan parte hartzeko eskubidea. Beraz, aldeztu aurretik aurreikusi beharko da hori eta, ikastetxearen baliabide propioak kontuan hartuta (irakaskuntzako eta hezkuntzako bertako profesional guztiak), egokienak aukeratu beharko dira, inor ez dadin jarduera horietatik kanpo utzi.

Jarduera osagarriak Urteko Plan honetan sartu beharko dira, eta, ez badaude, Ordezkaritza Organo Gorenak aldeztu aurretik onartu beharko ditu eta Plan honetan sartu beharko dira.

Kontuan hartu beharko da ikastetxetik kanpo egiten diren jardueretan gurasoen edo tutoreen baimena beharko dela. Gainera, joan-etorriak jasangarritasun-irizpideen arabera programatu behar dira.

Ikasle batek, justifikaturiko arrazoiengatik, irteeran ezin badu parte hartu, ikastetxean behar bezala artatu beharko da eskola-egun osoan.

Ikastetxetik kanpo egiten den edozein jarduera osagarritan, ikasleek, gutxienez, bi profesional izan beharko dituzte alboan, betiere, eta horietako bat, behinik behin, ikasleen taldeko irakasle bat izango da. Hala badagokio, hezkuntza-laguntzako espezialistak ere egongo dira. Bestalde, gutxienez, irakasle laguntzaile bat izango da 20 ikasleko edo 10etik gorako frakzioko, eta lehen adierazitako gutxienerako kopurua errespetatuko da, betiere. Hots:



Ikasle kopurua	Profesional laguntzaileak
1-30	2
31-50	3
51-70	4
71-90	5
91-110	6

Jarduera osagarriak dira:

- Barnetegi-egonaldiak.
- Ikastetxeko festa-jarduerak.
- Hezkuntza-kanpaina bereziak.
- Ikasgelatik kanpoko jarduerak: bisitak, irteerak, txangoak...
- Europar programetatik eratorritako trukeak
- ...

Eskolaz kanpoko jarduerak

Eskolaz kanpoko jardueratzat hartzen dira ikastetxea bere eskaintza zabaltzera lerrokatuak daudenak, ikasleen prestakuntza integrala lortzen ahalegintzera bideratuak daudenak, bizikidetza positiboa, ikuspegi inklusibotik eta generoaren alderdia ardatz hartuta antolatuak eta, batez ere, honako eremu hauekin loturikoak: euskararen erabilpena, ikasleen kultura-horizontea zabaltzea (musika, zientzia, artea...), ingurumen eta jasangarritasun-hezkuntza bultzatzea, ariketa fisikoaren sustapena, sormena lantzea...

Orobat, eskolaz kanpoko jarduera horiek eragin handia dute euskarazko hizkuntza-komunikazioaren hobekuntzan, eta, halaber, ikasleek euskararekiko duten atxikimenduan eta motibazioan. Horregatik, lehentasunezkoa da jarduera horietan euskara erabil dadin sustatzea.

Irakaskuntza-dedikaziotik kanpo egiten dira, eta borondatezkoak dira. Jarduera horien plangintzan helburuak, taldeak, arduradunak, eta egiteko unea eta lekua zehaztuko dira. Alderdi edo ondorio ekonomikoak urteko kudeaketa-programan jaso beharko dira.

Ikastetxe batek eskolaz kanpokoak planifikatzen dituenean, ikasle guztiak hartu behar ditu kontuan. Guztiek dute jarduera horietan parte hartzeko eskubidea. Beraz, aldeztu aurretik aurreikusi beharko da hori eta, ikastetxearen baliabide propioak kontuan hartuta (irakaskuntzako eta hezkuntzako bertako profesional guztiak), egokienak aukeratu beharko dira, inor ez dadin jarduera horietatik kanpo geratu.

Eskolaz kanpoko jarduerak IUPan sartu beharko dira, eta, ez badaude, OOGak aldeztu aurretik onartu eta Plan horretan sartu beharko dira.



d) Urteko kudeaketa-programa

196/1998 DEKRETUAK, uztailaren 28koa, Euskal Eskola Publikoa osatzen duten ikastetxeen ekonomia-finantzazko kudeaketaren erregimena arautzen duenaren arabera egin beharko da (EHAA, 1998-09-14koa eta 1998-09-23koa). Zuzendaritza-taldeari edo Batzorde Iraunkorrari dagokio urteko planaren zati hori prestatzea, OOGak onar dezan.

Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak ikastetxeen autonomia aitortzen du V. idazpuruan. Autonomia horren agerbideetako bat ikastetxeek beren jardura ekonomiko-finantzarioa kudeatzeko duten ahalmena da, ikastetxeak bere Kudeaketa Proiektua onartu eta burutzean gauzatzen dena. Proiektu hori Urteko Kudeaketa Programaren bidez gauzatzen da urtez urte eta aurrekontua osatzea eta onartzea da programa horren atalik garrantzitsuenak. Izan ere, aurrekontua ikastetxeen kudeaketarako funtsezko tresna da, baita baliabideen kudeaketan eraginkortasuna lortzeko helburua betetzen den ala ez neurtuko duena ere.

1.5. URTEKO MEMORIA

Zuzendaritza-taldea memoriaren prestatzea koordinatzeaz arduratzen da. IUParen betetze-mailari eta lortutako eskola-eraketari buruzko analisia oinarri hartuta, baita diagnostiko-ebaluazioaren edo kanpoko beste ebaluazio batzuen eraketari buruzko analisia ere, ikastetxe bakoitzak bere autoebaluazioa egingo du, ondorioak aterako ditu eta hurrengo ikasturterako jardura hobetzeko proposamenak egingo ditu. Lehentasunak ezarriko ditu, eta horiek, era berean, hurrengo IUPean lortu beharreko helburutzat hartuko dira. Memoriak ikastetxearen ikuspegi orokorra eta bateratua jaso beharko du.

Ordezkaritza Organo Gorenak onartu beharko du memoria. Ikastetxeek **2022ko irailaren 16 baino lehen** jarriko dute Hezkuntza Ikuskaritzaren esku, Irakasleguaren bidez.

Laburra eta zehatza izango da, ikastetxearentzat berarentzat praktikoa izan dadin, Hezkuntza Sailaren webgunean aurki daitekeen gidaren gomendioei jarraituz.

1.6. JASANGARRITASUNERAKO ESTRATEGIA 2030

Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) barne biltzen dituen Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda berriarekin bat etorriz, eta 2030erako Euskadiko Jasangarritasunareko hezkuntzako Estrategia garatzen jarraitzeko, ikastetxeek modu

sistematikoan printzipio ekosozial eta hezitzaileak beraien eguneroko jardunean txertatu behar dituzte.



Ildo horretan, beharrezkoa da ikastetxeek jasangarritasunerako konpromiso propioak zehaztea, bai euren Curriculum Proiektuari dagokionez, bai kudeaketa eta partaidetza komunitarioko jardunbideei dagokienez. Horrek berekin dakar, halaber, jasangarritasunaren aldeko helburuak eta jarduerak sartzea hezkuntza-antolaketako dokumentuetan (IHP, ICP, AJA, IUP...)

Jasangarritasunaren kultura hezkuntza-komunitateetan integratzeak dakar, batez ere, ikasleengan beharrezkoak diren gaitasunak eta konpromisoaren garapena, arazo ekologiko eta sozialen aurrean; tokiko esparruan eta esparru globalean, ikastetxeko eta tokiko ekintza eraldatzaileak bultzatuz, bai banakakoak, bai taldekoak, orain eta etorkizunean.

Horretarako, Hezkuntza Sailaren eta Ingurumen Hezkuntzaren Ingurugela zerbitzuaren laguntza dute.

1.7. BERDINTASUN-IRIZPIDEAK

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat etorritik, ikastetxeek pertsonaren garapen integralean oinarritutako hezkuntza-eredu batean lan egin behar dute, sexuaren arabera estereotipoak eta rola alde batera utzita, diskriminazio mota oro baztertuta eta generoaren arabera bereizi gabeko orientazio akademikoa eta profesionala bermatuta. Eredu horrek oinarri hartu behar du, baita ere, genero-indarkeriaren prebentzioa, hau da, sexismoan sustraituta dagoen edozein motatako indarkeriaren prebentzioa.

Ildo horretan, ikastetxeek bere berdintasun-konpromisoak zehaztu behar dituzte beren hezkuntza eskaintzan -kulturan eta -jardunbideetan. Horrenbestez, ikastetxeek berdintasuna sustatzera eta genero-indarkeria prebenitzera zuzendutako helburu eta jardura horiek beren hezkuntzako antolamendu-dokumentuetan (IHP, IIP, AJA, Bizikidetzaren Planean, ...) jaso behar dituzte.

Ikastetxeek hezkidetzarako eta genero-indarkeriaren prebentziorako planak garatuko dituzte, eta, arlo guztietako curriculum diseinatu eta garatzean, aipatutako legean eta [*“Berdintasunaren eta tratu onaren bidean, euskal hezkuntza sistemarako II. Hezkidetzaren Plana \(2019- 2023\)”*](#) planean jasota dauden hiru hezkidetzaren helburu estrategikoak txertatzeko urratsak emango dituzte.

Plan guztia hezkidetzaren zortzi zutabetan oinarritzen da, eta EAEko ikastetxe guztietako ikasgeletan benetako praktika elikatuko dute:

1. Pentsamendu kritikoa sexismoaren aurrean.
2. Hezkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista.
3. Emakumeen jakituriaren barneratzea eta haien ekarpen sozial eta historikoa.
4. Gatazken eraldaketa baketsua, hezkidetzako bizikidetzaren proiektuen bidez.
5. Autonomia pertsonala eta independentzia ekonomikoa.
6. Espazioak ikastetxean eta eskolaz kanpoko jarduerak eta jardura osagarriak.
7. Berdintasunean oinarritutako heziketa afektibo eta sexuala.



8. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta indarkeria kasuetan esku-hartzea.

Planaren helburuei erantzuteko, 2022-23 ikasturtean eta hurrengoetan, ikastetxeek jardun hauek gauzatzeko konpromisoa hartu beharko dute:

- Klaustroan hezkidetzaren arduradun bat izendatuta edukitzea, pertsona hori BAT (Bizikasi) taldean sartuko dela bermatuta.
- OOGn hezkidetzaren arduradun bat izendatuta edukitzea.
- Ikastetxeetako bizikidetzaren behatokiari ikastetxeak egiten duen hezkidetzaren lanarekin lotutako eginkizunak gehitzea.
- Ikastetxearen Hezkidetzaren Plana inplementatzea.
- Tutoretza-planetan genero-ikuspegia txertatzea, hezkidetzaren euskarrietan oinarrituta.
- Eskolaz kanpoko jarduerak genero-ikuspegiak eskaini eta egin daitezen sustatzea.
- 2022-2024 ikasturterako hautatutako ikastetxeek hezkidetzaren zortzi zutabeekin eta horiek ikasgelan garatzearekin lotutako prestakuntza jasoko dute, zonaldeko mintegietan zein Berritzegune Nagusiak antolatutakoetan. Ikastetxe horientzat prestakuntza honetan parte hartzea derrigorrezkoa izango da.

Hezkuntza Sailak bere aldetik ere 2022-23ko ikasturterako hainbat konpromiso ere hartu ditu:

- Hezkidetzaren II. Planaren ekimenen inguruko informazioa eta baliabideak, egin ahala, *Hezkidetzagunean* ikastetxeek eskura izatea.
- Ikastetxeek aukera izatea Emakundek eskaintzen dituen Nahiko eta Beldur Barik ekimenenetan parte hartzeko eta horrela beren proiektuak aberastea.
- Hezkidetzaren eta Elkarbizitza mintegiak zonalde ezberdinetan antolatzea prestakuntza eta aholkularitza eskaintzeko.
- Hezkidetzaren zutabeak programazioetan sartzeko jarraibideak ikastetxeei helaraztea.
- Indarkeria matxistaren biktimak diren haur, nerabe eta emakumeei arreta emateko ikastetxeentzako jarraibideak eskaintzea.
- Berritzegune Nagusiak hezkidetzaren zutabeen inguruko prestakuntza eskaintzea.
- Sexu eta genero aniztasunaren inguruan prestakuntza eta aholkularitza ikastetxeei emateko Berdindu zerbitzuak eskaintzea.

1.8. BIZIKASI EKIMENA

2017-18 ikasturtean hasi zenetik, Bizikasi hainbat esparrutan ezarri da, eta arian-arian, ikastetxeen zereginetan oinarritzen joan da, eskola-jazarpenari ikuspegi sistemiko eta integral batetik erantzuteko, betiere, bizikidetzaren positiboa hobetzera eta ikasleengan gaitasun prosozialak gara daitezen bultzatzera bideratuta. Ekimena bideratuta dago jazarpen-kasu posibleak goiz detektatuz prebenitzera eta, beharrezkoa izanez gero, harreman kaltetuak lehengoratzera.

Hezkuntza Sailak, ikastetxeei aholkularitza eta behar dituzten material didaktikoak emango dizkie ekimen hau garatzeko. Ekimen hau, hain zuzen, lehentasunezko lan-helburutzat hartzen da Ikastetxeko Bizikidetza Planaren barruan. Hezkuntza Ikuskaritzak gainbegiratu du prozesu osoa, eta esku hartzeko protokoloari buruzko aholkuak eta orientabideak emango dizkie ikastetxeei.

2022-23- ikasturtean, honako jardun hauei emango zaie lehentasuna:

- BAT taldea indartzea, erreferentziazko egitura baita ikastetxean gertatzen diren eskola-jazarpeneko kasuak ebazteko prozesua koordinatzeko eta ekimena garatzean egiten diren esku-hartzeetarako. Hori lortzeko, bi ardatz hauetan jardungo da:
 1. BAT taldearen funtzionamendu-egiturak finkatzea:
 - BAT taldeak koordinatzaile bat izendatuko du —taldearen konfigurazioa *Hezkuntzako sailburuordearen 2019ko urriaren 11ko Ebazpenean* jasota dago—Taldearen lanari jarraipena emateko, ikastetxeko zuzendaritzak behin betiko plaza duen edo ikastetxean egonkortasuna duen irakasle bat aukeratuko du.
 - Ikastetxeko ordutegian asteko denbora bat finkatuko da taldekideak koordinatzeko.
 2. BAT taldearen lanean sakontzea, aipatutako Ebazpenean zehazten diren eginkizunetatik abiatuta:
 - BAT taldearen zereginen aurkezpena egitea hezkuntza komunitatean. Ikasle, irakasle, pertsonal ez-irakaslea eta familiei. *BAT ikastetxea gara.*
 - Etengabeko prestakuntza-prozesuaren barruan, Bizikasi ekimenetik eskaintzen diren prestakuntza-proposamenetan parte hartzea.
 - Hezkuntzako pertsonal ez-irakasleari eta familiei zuzendutako prestakuntza bere gain hartzea.
- 2022-23 IUPea sartzea Bizikasi ekimena garatzearekin lotutako helburuak eta jarduerak, Bizikidetza Planean programatuak.
- Tutoretza Planean garatzea eskola-jazarpena prebenitzeko eta bizikidetza-ziber-bizikidetza positiboa eraikitzeko sortutako curriculum-materialak, LHko 3., 4., 5. eta 6. maileri dagozkienak. Horiek [Bizikasi](#)ren webgunean daude eskuragarri.

Ustezko jazarpen-kasu baten aurrean jarduteko prozedura

Ustezko jazarpen-kasu batengatik esku hartzeko eskaera baten aurrean, kontuan hartuko dira *Hezkuntza sailburuordearen 2019ko urriaren 11ko Ebazpenean* ezarritako jarraibideak, Bizikasi ekimena ezarri ondoren finkatutako aldaketekiko koherentziaz.

Azken urteetan nabarmendu egin da eskola-jazarpeneko ziber-jazarpena modalitatea, jazarpenari lotutako jokaeretan aritzeko teknologia berriak erabiltzen dituenak. Beraz, beharrezkoa egiten da ikastetxeetan egiten diren behaketak areagotzea, bereziki, ikasleekin ditugun harremanak aurrez aurrekoak ez direnean. Halaber, funtsezkoa da irakasleekin lankidetzan aritzea, batez ere, tutoreekin eta BAT Lantaldeko kideekin eta familiekin, egoera horiek gertatzen direnean orientatu, lagundu eta esku hartzeko.

Fenomeno horren aurrean esku-hartzeko eta hezkuntza-arloan jarduteko, honako baliabide hauek ditugu:

- Bizikasiren webgunean ikasgelarako BAT materialak atalean ziberbizikidetzak eta ziber-jazarpena lantzeko eskuragarri dauden jarduerak.
- Detekziorako materialak eta jarduteko gidak, Bizikasiren webgunean
- Ziber-jazarpen kasuen aurrean ikastetxeetan jarduteko orientabideak

1.9. HEZKUNTZA-ESPARRUAN HAUR ETA NERABEEK JASAN DITZAKETEN BABESGABETASUN-EGOERAK ETA TRATU TXARRAK, ABUSUA ETA SEXU-JAZARPENA PREBENITZEKO ETA EGOERA HORIETAN JARDUTE-PROTOKOLOA⁴

Ikasturtearen hasieran hezkuntza-komunitate osoak protokoloa ezagutzen duela bermatzeko behar diren neurriak ezarriko dira. Gainera, ikastetxeek ikasleen legezko arduradunei ikasturtearen hasieran bidaltzen dieten informazioan testu hau ere jarriko dute:

Babesgabetasun-zantzuak jakinarazteko betebeharra

«Ikastetxe honek honako hau jakinarazten die gurasoei: Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoaren arabera (indarkeriaren aurrean haur eta nerabeei babes integrala emateko legea), ikastetxean uste bada ikasleren bat babesgabetasun-egoeran dagoela susmatzeko zantzuak daudela; hau da, uste bada ikasle horren zaintzaileek beren eginkizunak betetzen ez dituztela, ikastetxeak egoera hori jakinarazi beharko die gizarte-

⁴https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/hezkuntza_ikuskaritza_dok_haur/eu_def/adjuntos/hezkuntza_protokoloa_2016_azaroak_15.pdf



zerbitzuei, legeak hala aginduta. Jakinarazpena eginez gero, horren berri emango zaio ikaslearen familiari».

Era berean, pertsonal ez-irakasleak (jantokiko zaintzaileak, laguntzaileak, eskolaz kanpoko jardueren monitorea, etab.) kasuen kudeaketan esku har dezaten sustatu behar da.

Ikastetxeetan mota horretako edozein egoera gertatzen bada, Hezkuntza Ikuskaritzari jakinarazi beharko zaio.

Ikasturtean zehar, Hezkuntza Ikuskaritzak eskola-zuzendaritzari zuzendutako bilkura bat antolatuko du, protokoloa aztertzeko eta irakasleek arlo horretan duten inplikazioa zehazteko.

Alde horretatik, gainera, kontuan hartu beharko dira hala EUSKADIKO HAURREN ETA NERABEEN SEXU-ABUSU ETA -ESPLOTAZIO KASUETAKO JARDUN-EREDUAK, maiatzaren 18ko Arartekoaren 2/2021 Gomendio Orokorretik sortuak, nola 8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean osorik babesteari buruzkoa.

“18. artikulua. *Ikastetxeen eta egoitza-establezimenduen informazio-betebeharrak.*

1. *Ikasturte bakoitzaren hasieran, ikastetxe guztiek, baita adingabeak bizi ohi diren establezimendu guztiek ere, sartzan diren unean **informazio guztia emango diete haur eta nerabeei.** Informazio hori betiere erakusteko moduan egongo da formatu eskuragarrietan, eta administrazio publikoek **indarkeria-egoerak jakinarazteko** erregulatutako eta ikastetxean edo establezimenduan aplikatutako **prozedurei buruzkoa** izango da, baita arlo horretako arduradunei buruzkoa ere. Halaber, hasiera-hasieratik emango dute **komunikabide elektroniko**en inguruko informazioa —hala nola haur eta nerabeei laguntzeko telefono-lineak—.*

2. *Ikastetxe eta establezimendu horiek **etengabe eguneratuta edukiko dute** informazio hori, erraz ikusteko moduko leku irisgarri batean, eta behar diren neurriak hartuko dituzte haur eta nerabeek edonoiz kontsultatu ahal izango dutela ziurtatzeko. Gainera, komunikazio-prozedura horietara eta dauden laguntza-lerroetara sarbidea ahalbidetu eta erraztuko dute.*

Gainera, honako hau hartuko da kontuan:

*Hezkuntza-etapa guztietan, ikastetxearen titulartasuna edozein dela ere, haur eta nerabeek, **zeharka**, beren parte-hartzea, **gainerakoekiko errespetua**, **beren duintasunarekikoa eta beren eskubideekikoa** barne hartuko dituen hezkuntza **jasoko dute**, batez ere **bereziki zaurgarriak diren** adingabeena kasuan —desgaitasunen bat izateagatik edota neurogarapeneko, genero-berdintasuneko edota familia-aniztasuneko nahasmenduren bat izateagatik—. Gainera, hezkuntza horren barruan sartuko da bizi-estilo osasungarriak aukeratzeko trebetasunak eskuratzea —elikadura- eta nutrizio-heziketa barne—, eta beren heldutasunera eta, hala badagokio, desgaitasunera egokitutako hezkuntza afektibo-sexuala, indarkeria eta diskriminazio mota guztiak*



prebenitzen eta saihesten ikastera bideratua, horiek ezagutzen eta horien aurrean erreakzionatzen laguntzeko asmoz.

*Ikastetxe guztiek **bizikidetza-plan bat egingo dute**, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 124. artikularekin bat etorriz. Plan horren jardueren artean egongo dira **trebetasunak eskuratzea**, hezkuntza-komunitatea **sentsibilizatzea eta prestatzea**, **tratu ona sustatzea eta gatazkak modu baketsuan konpontzea**, ikastetxeko langileek, ikasleek eta hezkuntza-komunitateak gatazkak modu baketsuan konpontzearekin lotuta.*

*Orobat, plan horretan jasoko dira tutore-eginkizunak betetzen dituzten irakasleen, irakasle taldeen eta ikasleen artean **adostutako jokabide-kodeak**, eskola-jazarpeneko egoerei edo ikastetxeko bizikidetzari eragiten dion beste edozein egoerari aurre egiteko, kontuan hartu gabe egoera horiek ikastetxean bertan gertatzen diren edo informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez gertatzen diren edo jarraitzen duten. Irakasleen Klaustroak eta Eskola Kontseiluak beren eskumenen artean izango dute edozein motatako indarkeriaren aurrean adingabeen eskubideak aitortzea eta babestea sustatuko duten hezkuntza-neurriak har daitezen eta horien jarraipena egin dadin bultzatzea.*

*Ikastetxeetako **zuzendaritza edo titulartasuna** duten pertsonen ardura izango da **hezkuntza-komunitateak** dauden jarduera-protokoloen **berri izateaz**, baita protokolo horietan aurreikusitako jardunak **gauzatzeaz** eta **horien jarraipena egiteaz** ere. Prestatutako protokoloak eta esku hartzen duten profesionalen **prestakuntza espezializatua hedatzeko** jardunak egingo dira, horrelako egoerak hautemateko prestakuntza egokia izan dezaten.*

*Adingabeen ikasketak egiten ari diren **ikastetxe guztiek**, haien titulartasuna edozein dela ere, **ikasleen ongizaterako eta babeserako koordinatzaile bat** izan beharko dute. Koordinatzaile horrek ikastetxearen zuzendaritza edo titulartasuna duen pertsonak gainbegiratuta jardungo du. Bere eginkizunetan, hauexek sartuko dira: prestakuntza-planak sustatzea; Gizarte Zerbitzuen interbentzioa eskatzen duten kasuak koordinatzea; ikastetxean bertan edo haren ingurunean indarkeria-kasuekin lotura izan dezaketen kasuei buruzko jakinarazpenetarako erreferente nagusi izatea; haur eta nerabeentzako al bait **ongizate handiena** eta **tratu onaren kultura segurtatuko duten neurriak sustatzea**; **gatazkak bakez konpontzeko metodo alternatiboak sustatzea**; era guztietako indarkeria prebenitu eta babesteko gaietan EAEko uneko **protokoloei buruz informatzea**; desgaitasun edo zaurgarritasun bereziko edo dibertsitateko beste edozein zirkunstantzia duten ikasleen **errespetua sustatzea**; ikastetxeko zuzendaritzarekin **bizikidetza-plana koordinatzea**; pertsonen segurtasunerako arriskua edo adin txikiko pertsonen datuen bidegabeko tratamendua ekar dezaketen egoeretan, **dagozkion zerbitzuei berehala jakinaraztea sustatzea**; ikastetxean hurrei zein nerabeei, bereziki zaurgarrienei, **dieta orekatua** eramateko osasun eta nutriziorako elikadura ematen zaiela sustatzea.”*



Lehentasunez, ikastetxeko BAT taldeko kidea den **hezkidetzako arduradunak** beteko ditu figura horren eginkizunak.

Jardute-protokolo honekin batera ikastetxeek *Indarkeria matxistaren biktimak diren haur, nerabe eta emakumeei arreta emateko ikastetxeentzako jarraibideak* izango dituzte.

1.10. HEZKUNTZA EREMUAN SUIZIDIOA PREBENITZEKO PROTOKOLOA

Adingabeek beren denboraren zati handi bat ikastetxeetan ematen dute, espazio eta testuinguru horiek osasun mentaleko arazoak edota jokabide suizidak detektatzeko leku aproposak bihurtuz. Horri esker, ikasgelak ingurune ezin hobe dira jokabide suizidarekin zerikusia duten faktoreak identifikatzeko (arrisku-faktoreak, babes-faktoreak eta alarma-seinaleak) eta jokabide suizidak hautematea eta saihestea ahalbidetzen duten funtsezko trebetasunak eskuratzeko.

Osasun Sailak egindako Suizidioa Prebenitzeko Estrategiaren (2019) esparruan, Hezkuntza formalean lan egiteko helburu eta neurri espezifikoak ezarrita daude. Prebentzio-estrategiaren 22. neurriak honela dio: **ikastetxeetan identifikatutako suizidio-arriskuko kasuen aurrean jarduketa protokolizatzea**.

Protokolo hori elaborazio fasean dago eta bere kontzeptu esparrua OMEren, UNESCOren eta Euskadin Suizidioa Prebenitzeko Estrategiaren gomendioetan oinarritzen da. Gomendio horiek osasun mentala sustatzen duten eskolak sustatzearen alde daude, eta honako hezkuntza-printzipio hauetan oinarritzen da:

- Inklusioa
- Ikasle gisa zentzua sortzea eta itxaropena sustatzea
- Ongizate pertsonala
- Segurtasuna, konexioa eta komunikazioa: kalitatezko interakzioak

Protokolo hori argitaratu arte, ikasle batengan ondoez sozio-emozional larria edota balizko arrisku suizida iradoki dezaketen alarma-seinaleak hautematen duten ikastetxeak berehala jarriko dira harremanetan:

- Ikastetxeko erreferentziako ikuskariarekin.
- Berritzegune Nagusiko jokabide suizidaren arloko arduradunarekin.
bnbizikidetza.bizikasi@berritzeguneak.eus



1.11. HEZKUNTZAREN ETA OSASUN MENTALAREN ARTEKO LANKIDETZAREN ESPARRU OROKORRA

2018ko maiatzean jarri zen abian Hezkuntzaren eta Osasun Mentalaren arteko lankidetzaren esparru orokorra.⁵ Esparru horretan, zerbitzu horiekin koordinatzeari dagokionez lortutako adostasunak adierazten dira. Halaber, jaso egiten dira deribazio-ibilbideak, informazioa trukatzeko prozedurak, txosten-ereduak eta bi sistemetako profesionalen arteko harremanen inguruko zenbait gomendio, jardunbide profesional egokia erraztu dezaketenak.

Bai ikastetxeek bai laguntza-zerbitzuek erraztu egin behar dute lankidetzaren esparru hori garatzeak berekin ekar dezan esparru horretan arreta hobea ematea ikasleei eta haien familiei.

1.12. IKASLE TRANSEI EDO GENERO PORTAERA EZ-NORMATIBOA DUTENEI ETA HAIEN FAMILIEI LAGUNTZEKO PROTOKOLOA⁶

Hezkuntza-komunitateak zainduko du ikastetxeak errespetuzko guneak izan daitezen, genero-identitateagatiko edo sexu-orientazioagatiko presio, eraso edo diskriminazio orotatik libre.

Jaiotakoan egotzitako sexuarekin bat ez datorren nortasun sexuala duten adingabeei eta haien familiei, eta sexuaren arabera sozialki espero diren genero-jarduerekin bat ez datozen ikasleei laguntzeko prozesuan ikastetxeak orientatzeko erabiliko da protokolo hori.

1.13. EUSLE PROGRAMA⁷

2022-23 ikasturtean parte hartuko duten ikastetxeek honako ikasleei erantzungo diete:

Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetara urtean zehar etorri berri diren edo eta urte batean HIPI laguntza jaso duten eta eskolako komunikazio-hizkuntza, euskara, ikasi behar duten ikasleak (HIPI laguntza bi urtetan jaso duten ikasleek ezin izango dute programan parte hartu). Taldea osatzeko, gutxienez, 6 ikasle beharko dira. Taldean eman daitezkeen ikasleen altak eta bajak dagokion Lurraldeko Berrikuntza Arduradunari eta Ikastetxeen eta Plangintza Arduradunari jakinarazi behar zaizkie.

⁵ [Protokoloa. Hezkuntza – Osasun mentalaren elkarlanerak oinarri orokorra](#) (2018)

⁶ [Ikastetxeei zuzendutako protokoloa, ikasle transei edo genero portaera ez normatibo dutenei eta haien familiei laguntzeko](#)

⁷ <https://www.euskadi.eus/aniztasunari-erantzuteko-programak-kulturartekotasuna-sustatzeko-programak/web01-a3hinklu/eu/>



Talde berriak osatzeko aukera 2022ko urriaren 20ra arte zabalik egongo da. Kasu honetan, Lurraldeko Berrikuntza Arduradunari eta Ikastetxeen eta Plangintza Arduradunari helaraziko zaie ikasleen zerrenda. Zerrenda hori balidatzen denean, EUSLE irakaslea esleituko da.

Programaren iraupena 24 hilabetekoa izango da baina 36 hilabete arte luza daiteke, beti ere, Programako Batzordeak eta Eusle irakasleak froga bat egin ondoren horrela erabakitzen badute.

Eusle programa duten ikastetxeek honako konpromisoak beteko dituzte:

- Talde bultzatzaile bat eratzea, programaren dinamizazioa, sustapena eta jarraipena egin ditzan. Inplikaturako irakasleek, Eusle irakasleek, irakasle aholkulariek eta zuzendaritza-taldeko kide batek osatuko dute lantaldea. Talde horrek programaren jarraipena egingo du, batzorde pedagogikoari jakinaraziko dio eta hobetzeko proposamenak egingo ditu.
- Eusle irakasleak aukeratuko dira ikastetxean behin betikoa edo hiru ikasturte baino gehiago daramaten eta hizkuntzen irakaskuntzan esperientzia frogatua duten irakasleen artean. Bere jardunaldi osoa Eusle gelako ikasleen arreta eta premietara bideratzea.
- Programarako berariaz prestatutako material didaktikoa eta programari lotutako metodologia erabiltzea.
- Eusle-ren ildoan aldaketa metodologikoa sustatzea erreferentzia-gelan. Hizkuntza eta edukiak modu integratuan tratatzeko metodologiak aplikatuko dira.
- Ikasleekin tutoretza indibidualizatua antolatzea eta gauzatzea ezarritako helburu eta maiztasunarekin.
- Eusle ikasleen ebaluazioaren prozesua elkarlanean egitea irakasle tutoreen eta Eusle irakasleen artean.
- Eusle gelari espazio egokia esleitzea, tamainari, irisgarritasunari, altzariei eta beharrezko baliabide material eta teknologikoei dagokienez.
- Ikastetxearen Urteko Planean ekintza zehatzak sartzeko, familiekin lan egiteko.
- Ikuskaritzarekin parte hartzea programaren ebaluazioan eta laguntza- zerbitzuekin programak eskatzen dituen alderdietan.

Hezkuntza Sailak, Berritzeguneen bidez, ikastetxeei aholkularitza eta behar dituzten material didaktikoak emango dizkie programa hau garatzeko. Aldi berean, behar den formazioa antolatuko du.

2022-23 ikasturtean, honako jardun hauei emango zaie lehentasuna:

- Eskolako talde dinamizatzaileria indartzea: funtzioak zehaztu eta ordutegia finkatu.
- Eusle-tutoreak formatzea eta sareak sortzea: formazio trinkoa eta hilerokoa.
- Ikasleen ongizaterako tutoretza programazioa eta saioak indartzea.
- Harrera planean kulturartekotasun ikuspuntua txertatzea.
- Hizkuntza proiektuan ikasle etorri berrien hizkuntzen trataera aintzat hartzea eta Aniztasunaren Arretarako Planean islatzea.



1.14. ERALDATZEN PROGRAMA⁸

Hautatutako ikastetxeen eta Hezkuntza Sailaren artean garatu beharreko KONTRATU-PROGRAMA bat da, eskola-arrakasta eta bizitzarako gaitasunen garapen-maila hobetzea helburu duena, ikasleekin planteamendu inklusibo batetik esku hartuz.

Programaren helburua da ikasle guztiek beren prestakuntza-prozesua arrakastaz bukatzea, ez bakarrik akademikoki, baita pertsonalki ere, beren gaitasunak ahalik eta gehien gara ditzaten. Hori guztia ikastetxeek pedagogia-, antolaketa- eta kudeaketa-autonomia pixkanaka eta modu arduratsuan beren gain hartzea ahalbidetuko duen esparru batean, egungo gizartearen premia eta ezaugarrietara egokituko den hezkuntza-sistamarantz aurrera egiteko, ikasle guztientzako inklusioa, berdintasuna, ekitatea eta hezkuntza-kalitatea sustatuz.

Ikastetxeek programa-kontratuan parte hartzea borondatezkoa izango da, baina, nolanahi ere, besteak beste, honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Irakasleen klaustroaren % 60ren konpromisoa, gutxienez.
- Ikastetxeko OOGk parte hartzea onartzea.

Programa honetan planteatzen den aholkularitza eta jarraipena, Hezkuntza Sailak berariaz sortutako talde batek egingo ditu. Aholkularitza ikastetxeen arteko lankidetzak sareak ezartzera ere bideratuko da, ezagutza eta esperientziak trukatzeko, etengabeko ikaskuntzarako formula berriak sortzen lagun dezaten.

2. IKASLEAK

2.1. IKASLEEN ANTOLAKETA

Ikasleen antolaketak eskola inklusiboaren printzipio eta helburuei erantzun behar die. Horrek eskatzen du ikasle bakoitzaren gaitasunak eta ahalmenak ahalik eta gehien garatzea, beren proiektu pertsonala, soziala eta profesionala eraikitzeko gai izan daitezen. Horretarako, zuzendaritza-taldeak ikasle guztien sarbidea, iraunkortasuna eta parte hartzea bermatu behar ditu, batez ere, hezkuntza- eta gizarte-bazterkeriaren aurrean kalteberenak direnena, eta aukera-berdintasuneko kalitatezko hezkuntza-sistema eskaini behar du, bizikidetzak positiboa bultzatuta.

Ikasleek ikastetxeko kide izatearen sentimendua sendotzea da helburua. Horretarako, parte-hartzea, talde-lana eta proiektuetan lan egitea sustatuko da, ikasgelan zein ikastetxeko gainerako eremuetan ikasleak euren ikaste-prozesuaren protagonistak izan daitezen.

⁸ <https://www.euskadi.eus/aniztasunari-erantzuteko-programak/web01-a3hinklu/eu/>



Arestian aipatutakoa lortze aldera, zuzendaritza-taldeak, irakasle-aholkulariarekin batera, antolamendu-alderdi hauek aurreikusi beharko ditu:

- Irakasle guztien ardura da ikasle guztiei egokia den hezkuntza-erantzuna ematea. Hori ahalbidetzeko, programazioetan jasoko dituzte hezkuntza laguntza berariazko premiak dituzten ikasleei zuzendutako berariazko esku-hartzeak.
- Neurriak eta laguntza osagarriak modu koordinatuan eta lankidetzaren bidez antolatuko dira, ohiko testuinguruaren barruan, ikasle guztien onura bilatuz. Horrenbestez, Ikastetxeetako Zuzendaritzek zeregina inplikaturako profesional guztiek modu koordinatuan parte hartzen dutela bermatuko dute.
- Irakasle guztiek eta hezkuntza-langileek aktiboki hartuko dute parte ikasleek dituzten beharrezko detekzio goiztiarra identifikatzen eta horiei erantzuna ematen. Horretarako Hezkuntza Sailak ezarritako prozedurak aplikatzea derrigorrezkoa da (Haurren garapenaren jarraipenerako protokoloa, Adimen-gaitasun handiak, Ikasteko zailtasun espezifikoak, TDAH...).
- Ikaskuntzaren irisgarritasun unibertsaleko printzipioetan oinarrituta, ikasleen aniztasunari erantzuten dioten ikaskuntza -metodologia eta estrategia- inklusiboak erabiliko dira.

Alderdi horiek guztiek eragina izango dute, hezkuntza-plangintzan ez ezik, ikasleen antolaketan, komunitateko kideen arteko hezkuntza-erantzukizunen banaketan eta baita planifikaturako ekintzen garapenean ere.

2.2. HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO BERARIAZKO PREMIAK (HLBP) DITUZTEN IKASLEAK

Hezkuntza-arreta gehigarria behar duten ikasleak ezaugarri hauek dituztenak dira:

- Hezkuntza-premia bereziak: desgaitasun fisikoa, psikikoa, sentsoriala; jokabidearen-nahaste larriak; eta, komunikazioaren eta hizkuntzaren nahaste larriak
- Heldutasun- atzerapena
- Hizkuntzaren eta komunikazioaren garapenaren nahastea
- Arreta edo ikaskuntza nahastea
- Ikasteko hizkuntzaren ezjakintasun larria
- Gizarte eta hezkuntza egoera ahulean egotea
- Adimen-gaitasun handiak
- Hezkuntza-sisteman berandu sartu izana
- Baldintza pertsonal bereziak edo eskola-historiakoak



Ikastetxeek Aniztasunari Erantzuteko Planean eta Urteko Planean jasoko dituzte ikasle horiei zuzendutako antolaketa eta plangintza. Horretarako, besteak beste, kontutan izango dira Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendariak emandako jarraibideak⁹

Orobat, jokabide-krisi egoerei erantzuteko esku-hartze eta informazio marko erabilgarria eskaintzen zaie ikastetxeei:

<http://berritzegunenagusia.eus/igprotokoloa/>

2.2.1. Hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleak

Hezkuntza-premia bereziak honako hauekin lotuta daude: desgaitasun fisikoa, psikikoa, sensoriala; jokabidearen-nahaste larriak; eta, komunikazioaren eta hizkuntzaren nahaste larriak.

Irakasle taldeak kontuan hartu beharko ditu ikasle horiek behar duten laguntza mota eta intentsitatea (errefortzuak, sarbide-neurriak, esleitutako giza baliabideak, egokitzapenak...) betiere, inklusioaren ikuspegitik antolatuz eta ikasleen autonomia bultzatuz.

Laguntza-material gisa, besteak beste, honako orientabide hauek argitaratu dira 10:

- Ikusmen-desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusioa.
- Gorreria duten ikasleak hizkuntzen curriculumera sartzea. Haur eta Lehen Hezkuntza.
- EAE-n entzumen-desgaitasuna duten ikasleentzako hezkuntza-erantzuna

Ikastetxeetako zuzendaritzek bermatu beharko dute ikasleekin esku hartzen duten profesionalen partaidetza eta inplikazio integratua, bai plangintzan (plana, ordutegia...), bai koordinazioan (bilerak), bai eta plangintzaren jarraipenean eta ebaluazioan ere, oinarritzat hartuta, betiere, Berritzeguneetako HPBko aholkulariekin batera egindako ebaluazio psikopedagogikoa.

Aipatutako profesional horien artean, honako hauek daude: irakasle-tutoreak, gainerako irakasleak, irakasle aholkulariak, Pedagogia Terapeutikoko irakasleak, entzumen eta hizkuntzako irakasleak/logopedak, hezkuntza-laguntzako espezialistak, okupazio-terapeutak, fisioterapeutak eta IBT-CRIko profesionalak, besteak beste.

Ikasturtean zehar laguntzetan izandako intentsitate-aldaketek, egindako ebaluazio psikopedagogiko berriek, edo ikasle berriak sartzeak ez dute ekarriko alde zuzenik

⁹ [Jarraibideak, hezkuntza-laguntzako berriazko premiak \(HLBP\) dituzten ikasleei baliabide personal espezifikoak esleitzeko prozedurari buruzkoak](#) (2019)

¹⁰ <https://www.euskadi.eus/hezkuntza-berri-esk-inklusiboa-dokumentuak/web01-a3hinklu/eu/>



planifikatutako eta ikasturte hasieran esleitutako baliabideak berrikustea, ezarritako prozeduraren arabera justifikatutako salbuespenak salbuespen.

Ikastetxeak hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle guztien eta ikasle berriak artatzeko beharrezkoak diren doikuntzak eta ordutegi-aldaketak egin beharko ditu. Era berean, irakasleek beren ikasgelaren programazioa hezkuntza premia bereziak dituzten ikasle guztiek eta ikasle berriek dituzten laguntza-premietara egokituko dute. Balorazio berriak eta dagoeneko egindakoen gainean gauzatutako aldaketak kontuan hartuko dira hurrengo ikasturtean dagokion esleipena zehazteko.

Salbuespen gisa, ikastetxeak hezkuntza-laguntzako espezialisten (HLE) esleipena berrikusteko eskatu ahal izango du, ikasturtean zehar intentsitate handiko laguntza behar duten ikasleak sartzen direnean. Ikasle berriak sartzeko arrazoi justifikatua egon beharko da: bizilekuko udalerriz aldatzea edo euskal hezkuntza-sisteman sartzea. Ikastetxeak eskabidean justifikatu beharko du esleitutako baliabideak berrantolatu dituela eta, hala ere, ezinezkoa duela ikasleari ordutegiren batean arreta ematea.

Baliabide publikoak efizientziaz erabiltzeko eta eraginkortasunez kudeatzeko, ikastetxearen betebeharra da dagokion lurralde-ordezkaritzako Hezkuntza Berriztatze Zerbitzuari HPBak dituen edozein ikasleren baja edo lekualdaketa jakinaraztea.

Jokabide-nahasmendu larriak dituzten ikasleak dituzten ikastetxeek jardun-protokoloa ezarri beharko dute, krisi-egoerei modu eraginkorrean erantzuteko, egoera horiek geldiaraztea beharrezkotzat jotzen denean eta, larritasunagatik, behin-behinean beste espazio edo programa batzuk erabiltzea eskatzen duten portaeren aurrean. Horretarako, Berritzeguneengandik behar duten aholkularitza izango dute. HPBak dituzten ikasleen autonomia eta irisgarritasuna garatzeko laguntzaren beharra zehazteko protokoloak ezartzen duenez, ohiko irakasleek artatu behar dituzte lehenik eta behin jokabide-nahasmenduak, eta laguntzako irakasleek (PT) bigarrenik. Hezkuntza-laguntzako espezialistak (HLE), ikastetxeko beste edozein profesionalak bezala, autorregulazioa sustatzeko zereginetan lagundu ahal izango du, betiere dagokion ikaslearentzako planak hala aurreikusten badu.

Egoera horren konplexutasunak hezkuntza-erantzuna gainditzen duenez, beharrezkoa izango da familia-, osasun- eta gizarte-esparruetan esku hartzea, Berritzeguneetako HPBko aholkulariek koordinatuta.

Bestalde, kontuan hartu behar da ikusmen-desgaitasuna duten ikasleen kasuan, materialak (braillea, audioa, etab.) egokitzea beharrezkoa badute, ikastetxeek egokitu behar diren materialak garaiz eman beharko dizkietela Ikusmen-urritasuna duten ikasleei zuzendutako profesionalak. Testuen kasuan, horien zerrenda maiatzean eman behar da.



2.2.2. Arreta nahasmendua edo ikasteko zailtasun espezifikokoak dituzten ikasleak.

Ikasle horiek arreta espezifikoa behar dute, zailtasunak dituztelako mezuak ulertzeko eta sortzeko, irakurtzeko eta idazteko, kalkulu aritmetikoak egiteko, arreta mantentzeko edota inplutsibitatea kontrolatzeko.

Hori dela-eta, ikasleren batek aurretik hauteman gabeko ikasteko zailtasun espezifikokoak eta arreta nahasmendua izan ditzakeela adierazten duten zantzuak edo ebidentziak dituzten irakasleek ahalik eta lasterren jakinarazi beharko diote ikastetxeko irakasle aholkulariari, bere beharretara egokitutako Norbanako Jarduera Plan bat (NJP) abian jartzeko. Horretarako, dagokion HPB aholkularitzaren laguntza izango du.

Ikasgelan hartzen diren hezkuntza-erantzunak eta neurri espezifikoek beharrian horietara egokitu behar dute, eta ikasle horiekin lan egiten duten irakasle guztiek aplikatu behar dituzte. Gainera, inklusioari laguntzeko profesionalen arreta eta/edo laguntza jaso ahal izango dute, Berritzeguneetako HPBko aholkulariekin lankidetzan egindako ebaluazio psikopedagogikoa oinarri hartuta. Laguntza-material gisa, besteak beste, honako dokumentu hauek daude:

- Irakurketa irakasteari buruzko orientabideak.
- Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua duten ikasleei arreta emateko gida eta ohiko tresnak.
- Inklusibitateari eta ikasteko zailtasunei buruzko orientabideak eta materialak.
- Irakurketa-plana¹¹.
- Berriazko hezkuntza-laguntza premia (HLPB) duten ikasleekin esku hartzeko proposamen inklusiboak.
- Beste batzuk¹².

Honetaz gain, Hezkuntza Sailak, *Eskola Inklusiboa Garatzeko Esparru Plan*-ean ezarritako 3.2 helburu espezifikoi helduz, hau da, ikasteko zailtasunetan hautemate goiztiarreko eta esku hartzeko prozesuak garatzearen helburua betetzeko, honako dokumentu hau egin du: *Ikaskuntza zailtasun Espezifikoak eta AGHN Nahasmendua goiz detektatzeko, identifikatzeko eta esku hartzeko prozedura*.

Dokumentu honetan agertzen den protokoloa baliozkotzeko datorren ikasturtetik aurrera bi ikasturte iraungo duen pilotaje bat egingo da. Horretarako, ezaugarri ezberdinetako hogeita hamar ikastetxe aukeratuko dira:

- 2022-23 ikasturtean 1. mailako taldeetan protokoloa inplementatzeko.
- 2023-2024 ikasturtean 2. mailako taldeetan protokoloa inplementatzeko.

¹¹ <https://irakurgune.euskadi.eus/eu/inicio>

¹² <https://www.euskadi.eus/hezkuntza-berri-esk-inklusioba-dokumentuak/web01-a3hinklu/eu/>



Ikastetxe horiek formazio saioak izango dituzte. Eta pilotajearen prozesu guztian Berritzegunetako HPBko aholkularien laguntza egongo da.

2.2.3 Adimen-gaitasun handiko ikasleak

Ikasle horiek erantzun egokia jaso behar dute, beren ahalmena ahalik eta gehien bermatzeko. Horretarako, haien ezaugarriak, beharrak eta interesak sakon ezagutu behar dira, eta testuinguruarekiko elkarerraginean topatzen dituzten oztopoak hauteman, hezkuntza-erantzuna doitu ahal izateko.

Ikasle horiekiko esku-hartzea berariaz aurreikusten da eskola inklusiboaren esparrutik.

2022-2023 ikasturteari begira, honako jarduera hauek garatuko dira:

- Pilotaje baten bidez, ikastetxeetan gaitasun handiko ikasleak hautemateko, identifikatzeko eta haiei erantzuteko protokolo bat baliozkotzeko ekintza amaitzea, irakasleak prestatzea eta esku-hartzea sistematizatzeko protokoloa abian jartzea. Pilotaje hau 2021-22 ikasturtean abian jarri da eta 2022-23an ikasturteko lehen hiru hilabeteen bukatuko da.
- Protokoloa, bigarren hiru hilabeteen ikastetxe guztietara zabalduko da.
- Pilotaje hori egiten ez den ikastetxeetako irakasleek, ikasleren batek gaitasun handiak izan ditzakeenaren aztarnak edo ebidentziak badituzte, lehenbailehen horren berri eman beharko diote ikastetxeko irakasle aholkulariari prestakuntza- eta interbentzio-arloko beharrak aurreikusteko eta Norbanako Jarduera Plana egiteko.

Adimen-gaitasun handiko ikasleentzako hezkuntza-orientabideak dokumentuan, irakasleentzat oso baliagarria den informazioa aurki daiteke. Halaber, interesgarriak eta erabilgarriak izan daitezke curriculumak aberasteko orientabide eta material jakin batzuk¹³.

2.2.4. Ikasleak ohiko onarpen-prozesutik kanpo eskolatzea

Urtarrilaren 9ko 1/2018 Dekretuan (2018ko urtarrilaren 12ko EHAA) ezarritakoari jarraituz eskolatze ohiko epetik kanpo plaza bat eskatzen duten ikasleen matrikulazioa kudeatuko da.

Haur Hezkuntzako bigarren zikloan edo Lehen Hezkuntzan ikaspostu bat behar duten EAEra iritsi berrien kasuan, ikastetxeak aplikazio informatikoaren bidez kudeatuko du Eskolatze Batzordeari zuzendutako eskaera, ohiko menuaren bidez: Matrikula/Eskolatze Batzordea. Ikastetxeek edozein familiaren eskabidea tramitatu beharko dute, familiak eskatutako ikastetxea edozein dela ere.

¹³ [100012e](#) Hezkuntza orientabideak. Adimen gaitasun handiko ikasleak. Eusko Jaurlaritza [2013] (pdf, 1,77 MB)

Berandu hasten diren ikasleek hezkuntza-laguntzako premia espezifikokoak badituzte, ebazpen honen 2. puntuan xedatutakoaren arabera jardungo da. Hezkuntza indartzeko programa amaitu duten ikasle guztiek jarraipen-programa indibidualizatua izan beharko dute ondorengo hiru ikasturteetan.

2.2.5. Baldintza pertsonal bereziak edo eskola-historiakoak dituzten ikasleak

a) Ospitale- edo etxe-arretako edo arreta terapeutiko-hezigarriko premiak dituzten ikasleak

Abenduaren 20ko 266/2006 Dekretuaren bidez, ospitaleko eta etxeko hezkuntza-arretarako eta arreta terapeutiko-hezigarriko lurralde-zentroak sortu ziren. Zentro horien helburua da osasun-erakunde batean ospitaleratuta egoteagatik, etxeko ospitalizazioagatik edo hezkuntza-programa terapeutiko baten barruan egoteagatik medikuaren aginduz ikastetxera joan ezin diren ikasleei hezkuntza-laguntza ematea.

- Ospitale-esparruko laguntza EAEko ospitale jakin batzuetan dauden hezkuntza-laguntzako ikasgeletan eskainiko da. Ikasle batek ospitaleko tratamendua behar badu, arreta pedagogikoa ospitaleko ikasgelako irakasleak emango du. Irakasle hori ikastetxeko tutorearekin koordinatuko da.
- Etxearen esparruko laguntza irakasleek emango dute, medikuaren aginduz ikastetxeetara joan ezin diren ikasleen etxeetan. Etxean arreta pedagogikoa jasotzen duen ikasle bat ospitalizatu beharko balitz, etxeko arreta pedagogikoko irakasleek jarraituko dute hari ospitalean arreta ematen.
Ikastetxeetako zuzendariak, egoera horretan dagoen ikaslearen eskola-ikasuntza eta sozializazioa ahalbidetzeko, 1998ko uztailaren 30eko Aginduaren 35. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko diote. Agindu horren bidez, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak eta ikasle horiek behar bezala eskolatzeko baliabide-hornidura ezartzen dira (1998-08-31ko EHAA).
- Terapeutiko- eta hezkuntza-esparruan, hezkuntza-laguntza Osakidetzako Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko Zerbitzuarekin lankidetzan emango da, ezarritako lankidetzak-hitzarmenaren arabera. Arazo psikopatologiko larriak dituen ikasle batek tratamendu intentsiboa behar badu, OETHren programa terapeutiko-hezigarrian sartzeko proposatu ahal izango dute, Berritzeguneetako HPBko aholkularien eta Osakidetzako Haur eta Gazteen Psikiatriako Unitateko aholkularien oniritziarekin.

Gainera, programa terapeutiko-hezigarrian sartzeko, ikasleak honako hauek beharko ditu:

- Gurasoaren edo legezko ordezkariaren berariazko baimena.
- Balorazio Batzordearen erabakia.



Zentro terapeutikoan aldi jakin baterako onartuko da, gehienez ikasturte oso bat. Edonola ere, helburua da haurra edo nerabea bere eskola-ingurunera itzultzea.

b) Gaixotasun minoritarioak, elikadura-alergia anizkoitzak eta beste gaixotasun batzuk dituzten ikasleak

Ikasle horientzat jarraitu beharreko protokoloa “Osasun-arreta berezia eskola-orduetan” zirkularrean jasota dago¹⁴.

2.3. IKASTETXEEK HLBP-ak (ARRETA- EDO IKASKUNTZA NAHASMENDUA, HIZKUNTZAREN GARAPENAREN NAHASMENDUA, ADIMEN-GAITASUN HANDIAK) DITUZTEN IKASLEEI BURUZKO INFORMAZIOA BILTZEKO ETA ANTOLATZEKO PROZEDURA

Hezkuntza sailburuordearen 2020ko uztailaren 10eko Ebazpenaren arabera¹⁵ ikastetxeek HLBP-ak dituzten ikasleei buruzko informazioa eguneratua izan behar dute W67 aplikazioan biltzeko eta antolatzeko eta dagokien esku hartzea Norbanako Jarduera Planaren bitartez bideratzeko.

Ikastetxeko zerrendan erregistratutako ikasleek Norbanako Jarduera Plana izan beharko dute. Plan hori irakasle tutoreek egingo dute, irakasle aholkulariekin lankidetzan eta Berritzeguneko HPBko aholkulariaren laguntzarekin.

Behin Norbanako Jarduera Plana garatua, bertan jaso diren neurriek ez balituzte beteko ezarritako helburuak, ikastetxeak ebaluazio psikopedagogikoaren eskaera egin beharko du ikasleak behar duen berariazko hezkuntza-erantzuna jasotzeko.

2.4. EBALUAZIO PSIKOPEDAGOGIKOA ESKATZEA BERRITZEGUNEKO HPB-KO AHOALKULARITZARI

Ikaslearen ebaluazio psikopedagogikoa egingo da, testuinguruaren eta baldintza pertsonal jakin batzuen arteko elkarreraginetik ikaslearen ikaskuntza-prozesurako sarbidea, iraupena eta parte-hartzea arriskuan jartzen duten oztipoak sortzen direnean.

Gogorarazi behar da, hala ere, ebaluazio psikopedagogikoa hezkuntzan esku hartzeko ezohiko prozesua dela. Soilik egin behar da irakasle tutoreek eta irakasle aholkulariek egokitzen jo dituzten errefortzu neurriak nahikoak izan ez direnean.

¹⁴ Eusko Jaurlaritza (2006). [Eskola-orduetako arreta sanitario bereziari buruzko zikularra](#).

¹⁵ [Ebazpena, 2020-07-10ekoa, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak \(HLBP\) dituzten ikasleei buruzko informazioa biltzeari eta antolatzeari buruzkoa](#)



Ebaluazio honek honako ezaugarriak izango ditu: diziplinartekoa izango da, testuinguruan oinarrituta eta inplikaturiko profesional guztien lankidetzan ardatz.

Zentroak eskaera hori zehaztuko du “Ebaluazio psikopedagogikoa egiteko eskaera”n ezarritako protokoloarekin, eta W67 aplikazio informatikoaren bidez egingo da.

Nolanahi ere, ikasle bakoitzaren erreferente nagusia bere tutorea da. Horrek irakasle taldeko gainerako kideekin koordinatuta beteko ditu bere eginkizunak, baita, hala badagokio, bere ikasle-taldearekin esku har dezaketen gainerako profesionalekin koordinatuta eta, bereziki, irakasle aholkulariarekin lankidetzan ere.

2.5. APARTEKO CURRICULUM-NEURRIAK ESKATzea

Curriculumaren egokitzapenak eta aparteko neurri guztiak HLBP-aplikazioaren bidez (W67) tramitatuko dira. Gela Egonkorreko Curriculum Proiektua aurreko ikasturteetako prozedurari jarraituz tramitatuko da.

Curriculumaren egokitzapenak ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuaren bidez (1998-07-13ko EHAA) eta dekretu hori garatzen duten aginduen bidez (1998-08-31ko EHAA) erregulatzen dira. Era berean, kontuan hartu behar dira indarrean dauden Hezkuntzako sailburuordearen, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariaren eta ikuskari nagusiaren jarraibideak¹⁶.

Curriculumera sartzeko egokitzapenak

Curriculumera sartzeko egokitzapenak erregistratuta geratu beharko dute ikasleen espedientean, eta hartutako neurriak bete beharrekoak izango dira.

Curriculumerako irisgarritasuna bermatuko duten ikasleen plangintzan, koordinazioan eta jarraipenean, ikastetxeetako zuzendaritzek irakasleen eta irakasle ez diren langileen arteko lan koordinatua bermatu behar dute.

Materialen irisgarritasunerako eta/edo egokitzapenerako baliabideen eskuragarritasuna kanpoko zerbitzuen mende dagoenean (Berritzegunea, Itsuen Baliabidetegia), ikastetxeak behar besteko aurrerapenaz egingo du eskaera.

¹⁶ [Hezkuntza Sailburuordearen argibideak, norbanako curriculum egokitzapenei \(NCE\) buruzkoak](#) (2018)



a) Curriculum-egokitzapen indibidual garrantzitsuak eta Gela Egonkorren Curriculum Proiektua (GECp) aurkezteko epeak

- Ikastetxeko zuzendaritzak urriaren 21a baino lehen bidaliko ditu dagozkion proposamenak.
- Berritzeguneko Hezkuntza Premia Bereziak aholkularitza azaroaren 11a baino lehen emango du txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak azaroaren 30a baino lehen bidaliko du oniritzia.
- Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-arduradunak abenduaren 9a baino lehen jakinaraziko die ikastetxeei curriculum-egokitzapena eta/edo GECpa onartuta dagoen ala ez, ikastetxeak, abenduaren 16a baino lehen, idatziz jakinaraz diezaien ikaslearen legeko arduradunei, ebazpenaren kopia erantsita.

b) Lehen Hezkuntzan adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleentzako curriculum-egokitzapenak aurkezteko epeak

- Ikastetxeko zuzendaritzak urriaren 21a baino lehen tramitatuko du proposamena.
- Berritzeguneko Hezkuntza Premia Bereziak aholkularitza azaroaren 11a baino lehen emango du txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak azaroaren 30a baino lehen bidaliko du oniritzia.
- Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-arduradunak abenduaren 9a baino lehen jakinaraziko die ikastetxeei neurria onartuta dagoen ala ez, ikastetxeak, abenduaren 16a baino lehen, idatziz jakinaraz diezaien ikaslearen legeko arduradunei, ebazpenaren kopia erantsita.

c) Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan eskolatzea aurreratzeko edo eskolatze-aldia malgutzeko eskaera aurkezteko epeak

- Ikastetxeko zuzendaritzak, etapa hasi aurretik, eskolatze-aldia aurreratzeko edo malgutzeko proposamena izapidetuko du 2023ko maiatzaren 26a baino lehen.
- Berritzeguneko HPBko aholkularitzak 2023ko ekainaren 2a baino lehen emango du txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak 2023ko ekainaren 9a baino lehen bidaliko du bere oniritzia.
- Hezkuntza Berritzatzeko lurralde-arduradunak 2023ko ekainaren 16a baino lehen tramitatuko du dokumentazioa.
- Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzak 2023ko ekainaren 23a baino lehen jakinaraziko die ikastetxeei proposamena onartutzat jotzen den ala ez, ikastetxeak ikaslearen legeko arduradunei horren berri eman diezaien, ebazpenaren kopia erantsita, 2023ko ekainaren 27a baino lehen.

d) Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleek curriculumera sartzeko baliabide materialak eskatzeko epeak

Baliabide materialak Berritzegunearen bidez eskatuko dituzte ikastetxeek. Horretarako, Hezkuntza Premia Berezieta aholkularitza-zerbitzuak dagokion ebaluazio psikopedagogikoa egingo du. Berritzeguneak premiak baloratuko ditu eta baliabideen proposamena Hezkuntza Berriztatze lurralde-arduradunari tramitatuko dio 2023ko **apirilaren 10a** baino lehen.

Maileguan hartutako materiala mantentzea ikastetxearen ardura izango da, eta hura baldintza egokietan itzuli beharko da (horretarako, konpromiso hori zehaztuko duen dokumentua beteko da). Ikastetxeak ordaindu beharko ditu 150 eurotik beherako kostua duten curriculumera sartzeko beharrezko materialak.

2.6. ARRETA GOIZTIARRA: HAUR-GARAPENAREN JARRAIPENERAKO PROTOKOLOA

Programaren helburua da goiz detektatzea hezkuntza-laguntzako berariazko premiak sortzaketaren garapen-nahasmenduak. Horretarako, etengabeko ahalegin handia egin behar dute, ez bakarrik Haur Hezkuntzako irakasleek, baita irakasle aholkulariek ere, eta bereziki ikasketaburuak. Jarraitu beharreko prozesua **Haur Garapenaren Jarraipenerako Protokoloan** zehazten da, eta egutegiarekin batera beteko da, Haur Garapena Behatzeko-eskala baliatuz eta esku hartzen duten fase eta eragileen bitartez.

Haur Garapena Behatzeko Eskalak 2 eta 5 urte arteko haur guztiei pasako zaizkie, batere salbuespenik egin gabe. Bi unetan egingo da: 2022ko azaroaren 1etik abenduaren 20ra 4-5 urteko haurrei, eta 2023ko otsailaren 1etik martxoaren 15era 2-3 urteko haurrei. Aurretik, eragile inplikatuak (tutoreak, irakasle aholkulariak eta ikasketaburuak) eskalen itemen irakurketa analitikoa, ulerkorra eta bateratua egingo dute, eta jarraitu beharreko prozedura ezarriko dute (datuak biltzea, horien analisia, eta hobekuntzarako zein prestakuntzarako proposamenak).

Familiei ikasturte hasierako bileretan jakinaraziko zaizkie goian ezarritako aldietan egingo diren behaketak, eta azaldu behar zaie talde bakoitzeko haurren garapenari buruzko gogoeta-une bat dela, eta jakinaraziko zaie, halaber, EAEko Haur Hezkuntzako ikastetxe guztietan egiten dela.

Behaketaren ondoren, informazioa emango zaie familiekin egiten diren ohiko bileretan, eta kontaktu hori aurreratu egin daiteke beharrezkoa balitz. Behaketa-eskalak aplikatzeko ez da behar gurasoen baimenik, behatzen dena etapako curriculumarekin lotura estua duelako, eta Haur Hezkuntzako haur guztientzat zuzenduta dago.

Protokoloan ezarritakoari jarraituz, ez badira adierazitako jokabideak antzematen arlo baten hiru item edo gehiagotan edo bi arlotako bi item edo gehiagotan, eta/edo alerta-zeinuak badaude, bigarren faseari ekingo zaio, Detekzio Espezifikoki, hain zuzen.



Garapen goiztiarra edo gaitasun intelektual handiak daudela sumatzen denean, bigarren faseari hasiera emateko irizpidea bikoitza da. Lehenik eta behin, arlo batean hiru item edo gehiagotan edo bi arlotako bi item edo gehiagotan adierazitako jokabideak ikaslearen adinetik gorako adierazleekin bat etorri behar dira. Bigarrenik, garapen goiztiarreko adierazleen % 50 edo gehiago izan ditzala, haren adin kronologikoari dagokionez. Bi baldintzak aldi berean bete behar dira. Nolanahi ere, gogoratu behar da irizpide horiek guztiz ez betetzeak, eta, hortaz, Detekzio espezifikoak ez abiarazteak ez duela esan nahi ikasleen beharrei erantzuteko esku-hartze egokia beharrezkoa ez denik.

Beste zerbitzuetara bideratu beharra balego, hori Detekzio Espezifikoaren ondoren egingo da bakarrik, dagokion Berritzeguneko Hezkuntza Premia Berezien (HPB) aholkularitzarekin lankidetzan. Detekzio Espezifikorik gabe, ez da Ebaluazio Psikopedagogikorik eskatuko, eta ez da ere Hezkuntza Sistematik kanpora bideratu behar.

Tutoreari dagokio Haurren Garapenaren Jarraipen Protokoloa hastea Behaketa Eskalen bitartez, baita geroko faseen jarraipena eta koordinazioa egitea ere, baldin baleude. Gainera, beharrezko **Esku-hartzeko Planak** diseinatu, ezarri eta ebaluatzen direla zainduko du. Horretarako, ikastetxeko irakasle aholkularia izango du bidelagun, Berritzegunearekin lankidetzan.

Aldi berean, Ikasketaburuak datu guztiak bilduko ditu, eta zonaldeko Berritzegunera bidaliko ditu azken horrek ezartzen duen moduan eta epean. Gainera, ikasketaburuak aurtengo ikasturteari dagozkion datuak aztertu eta aurreko urteetakoekin alderatuko ditu, ondorioak ateratzeko eta hobekuntzarako zein prestakuntzarako proposamenak egiteko. Horretarako, zonaldeko Berritzeguneen lankidetzak izango dute.

2.7. ESKOLA-EGUTEGIA ETA –ORDUTEGIA

Ikastetxeko Ordezkaritza Organo Gorenari (OGGari) dagokio ikasleen ohiko eskola-egutegia eta -ordutegia finkatzea, hezkuntza-etapa bakoitzeko arauak, ikastetxea zabalik egongo den denbora eta ikasleen ohiko eskola-ordutegitik kanpo egingo diren jarduerak errespetatuz.

Nolanahi ere, egutegi eta ordutegi arrunta Hezkuntza sailburuordearen ebazpenaren arabera ezarri beharko dira¹⁷. Ebazpen horren bidez, arau osagarriak ematen dira 2022-2023 ikasturterako Euskal Autonomia Erkidegoaren ikastetxe publikoetako eskola-egutegia egiteko.

¹⁷ [EBAZPENA, 2022ko maiatzaren 9koa, Hezkuntza sailburuordearena, EAEk Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan 2022-2023 ikasturterako eskola-egutegia egiteko osagarrizko arautegia ematen duena](#)



Onartutako egutegia eta ordutegia ezingo dira aldatu ikasturtean zehar, Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak behar bezala baimendutako salbuespenezko arrazoiengatik izan ezik.

Hurrengo ikasturteetarako ikastetxeko ordutegia aldatzeko, Hezkuntzako lurralde-ordez kariaren berariazko baimena beharko da, prozedura honen arabera:

- Ikastetxeko zuzendaritzak egingo du proposamena, eta eskola-egutegiari buruzko araudian ezarritako baldintza guztiak bete beharko ditu.
- Proposamena irakasleekin kontsultatu beharko da, baita ikastetxeko gurasoekin ere, eta sektore horietako bakoitzean onartu beharko da, emandako botoen 2/3ko gehiengo kualifikatuaz eta sektore bakoitzeko eroldaren % 50eko gutxieneko partaidetzaz.
- Proposamena ikastetxeko OOGaren gehiengo osoz onartu beharko da.

Aurreko baldintzak bete ondoren, ikastetxeko zuzendaritzak Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzan tramitatuko du 2023-2024rako aldaketa-eskaera, 2023ko urtarrilaren 15a baino lehen. Lurralde Ordezkaritzak, egokitze jotzen dituen txostenak bildu ondoren, aldaketa hori baimendu edo ukatuko du ikastetxeak matrikulen aurre inskripzioak egin aurretik, ikastetxeak hurrengo ikasturterako ordutegi-aldaketaren berri eman diezaien eskola-komunitateko kide guztiei (gurasoak, ikasleak eta irakasleak).

Lanaldia goizez eta arratsalde egingo da, eta ikastetxeak hala erabakiko balu, arratsalde bat balia dezake irakasleen formaziorako, koordinatzeko edo ikastetxeak egoki deritzon beste jarduerak egiteko, ikastetxeko OOGaren oniritzia lortuz gero. Baldin eta ikastetxeko ordutegia hurrengo ikasturteetan aldatzeko eskaera ikastetxeak egindako proposamen batetik sortu bada, ez da beharrezkoa izango eskaera hori 2023ko urtarrilaren 15a baino lehen tramitatzeko. Aldaketa eskatzen den ikasturteko eskola-egutegia nola egin erregulatzen duen Hezkuntzako sailburuordearen ebazpenean adierazitako epeetan egin beharko da eskaera, ebazpen horretan ezarritako baldintzen arabera.

2.7.1. Haur Hezkuntzako ikasleak

Haur Hezkuntzako ordutegia zentroak berak zehaztu behar du, eta haren berri adierazi behar da etapa honetako Ikastetxearen Curriculum Proiektuan, OOGak (Ordezkaritza Organo Gorenak) onartu ondoren.

Haurrak lehendabiziko aldiz etapan edo zentroan pixkanaka hasiko dira, egokitzapen-aldi bat eginez. Aldi horren helburua da familia- eta eskola-ingurunearen arteko jarraitutasuna bultzatzea, haurrak pixkanaka eskolara egokitu ahal izateko. Aldi hori, egokitzapen-denbora da, haur bakoitza bere lehen ikastetxe-esperientzia denean egoera berrian arrakastaz hasteko. Aldi hori ez da berdina izango denentzat; izan ere, haurraren beharrezko erantzun behar die eta, betiere, familia bakoitzarekin adostuko da, eta ezingo da iraila baino gehiago luzatu.



2.7.2. Lehen Hezkuntzako ikasleak

Lehen Hezkuntzako ikasleen ohiko klase-ordutegia ikastetxeak berak ezarriko du, indarrean dagoen araudian ezarritako gutxienekoak errespetatuz. Horretarako, kontuan hartuko da, *EAEko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan 2022-2023 ikasturterako eskola-egutegia egiteko osagarritzako arautegia ematen duen Hezkuntza sailburuordearen 2022ko maiatzaren 9ko Ebazpenak dioena*.

Goiz eta arratsaldeko jardun-egunetan, Lehen Hezkuntzan klaseko jarduera 5 saiokoa izango da, era honetan banatuak:

- Goizez: 3 saio eta 30 minutuko jolasgaraia.
- Arratsaldez: 2 klase-saio, guztira, 90 minutuko gutxieneko iraupenaz.
- Etengabeko jarduneko egunetan, gehienez 4 klase-saio egingo dira. Gainera, jolasgarai bat edo gehiago egingo dira, Lehen Hezkuntzan atsedeneko 30 minutu banakoa.

Ordutegiak baldintza hauek beteko ditu:

- Goizeko klaseak ez dira hasiko 9:00etan baino lehenago, ezta 10:00ak eta gero ere.
- Goizeko eta arratsaldeko jardunen artean, gutxienez, ordubete eta erdiko atsedene bat egongo da.
- Ezingo da eman klaseko bi ordu baino gehiago jolasgarai bat kontuan hartu gabe.

Ikastetxeetako zuzendaritza eta irakasleak dira ikasleen arduradunak ikastetxeetan edo ikastetxetik kanpo egiten diren jarduera osagarrietan. Ohiko klase-jardunean, ikasleak bakarrik ikastetxera huts egin dezake, baldin eta gurasoak, lege-arduradunak edo pertsona baimenduak ikastetxera agertu eta adingabea bere kargura hartzen dutenean.

2022-2023 ikasturteari begira ordutegiak egiteko garaian, kontuan hartu behar da, araudiari begira, transizio ikasturte batean gaudela. Hau aintzat harturik, honako bi egoera hauek aurreikusten dira:

a.- Lehen Hezkuntzako 2., 4. eta 6. mailan 236/2015 Dekretuak dioenaren arabera zehaztuko da ordutegia:

ASTEKO ORDUAK	Etapako ordutegia gutxieneko	Erreferentziako ordutegia mailaka		
		2. maila	4. maila	6. maila
Natur Zientziak	9	1,5	1,5	2
Gizarte Zientziak	9	2	1,5	2
Gaztelania eta Literatura	18	4	4	3,5
Euskara eta Literatura	18	4	4	3,5
Matematika	18	3	3	3,5
Lehen Hizkuntza	14	2	3	3
Arte Hezkuntza	9	2	2	1,5
Gorputz Hezkuntza	9	2	1,5	1,5
Erlijioa/Balio Sozial eta Zibikoak	6	1	1	1
Tutoretza	6	1	1	1
Jolasgaraia	15	2,5	2,5	2,5
Libre erabiltzeko	19	-	-	-

b.- Lehen Hezkuntzako 1., 3. eta 5. mailan Hezigunean eskegitako Curriculum Dekretu berriaren proposamenari jarraituz, honakoa hartuko da kontuan:

ASTEKO ORDUTEGIA	A Etapako gutxieneko ordutegia	B Erreferentziako ordutegia zikloa eta irakasgaika			C.1 Erreferentziako ordutegia zikloa eta eremuka (1)			C.2 Erreferentziako ordutegia zikloa eta eremuka (2)		
		1. zikloa	2. zikloa	3. zikloa	1. zikloa	2. zikloa	3. zikloa	1. zikloa	2. zikloa	3. zikloa
Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza	17	7	7	6	13	14	12	13	16	15
Matematika	17	7	7	6						
Heziketa Fisikoa	13	6	4	4	6	5	4	6	5	4
Gaztelania eta Literatura	17	7	7	6	14	16	15	14	14	12
Euskara eta Literatura	17	7	7	6						
Atzerriko Lehen Hizkuntza	14	4	6	6	4	6	6	4	6	6
Arte Hezkuntza	9	3	3	3	4			4		
Tutoretza	6	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Erljioa/ komunitaterako - proiektua	6	2	2	2	2	2	2	2	2	2
Balio Zibiko eta Etikoak	2	0	0	2	0	0	2	0	0	2
Jolas garaia	15	5	5	5	5	5	5	5	5	5
Proiektua - Monografikoa		0	0	2	0	0	2	0	0	2
Ikastetxearen erabilera librea	17									
GUZTIRA	150	50	50	50	50	50	50	50	50	50



b.1.- A zutabeko etapako gutxieneko ordutegia Dekretu berria osoki inplementatzen denerako aplikatuko da. Ikastetxeak, bere autonomia erabiliz, etapako gutxieneko ordutegia oinarri hartuta ikastetxeko ordutegia osatuko du. Horretarako hainbat aukera proposatzen dira:

- Irakasgaika, B zutabeko proposamena erreferentzia gisa har daiteke.
 - Eremuka, C1 eta C2 zutabeetako proposamenak erreferentzia gisa har daitezke, aukera hauekin,:
- C1- lehen eremua: *Matematika + Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza*; bigarren eremua: *Euskara eta Literatura + Gaztelania eta Literatura + Arte Hezkuntza*.
 - C2- lehen eremua: *Matematika + Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza + Arte Hezkuntza*; bigarren eremua: *Euskara eta Literatura + Gaztelania eta Literatura*.
 - Ikastetxeak sortutako bestelako eremuekin.

b.2.- *Arte Hezkuntza* bitan banatu ahal izango da, *Musikan eta Plastikan*.

b.3.- *Heziketa Fisikoaren* arloa etapa osoan zehar indartzeko apostua egiten da. Lehen zikloko bi mailetan, astean Heziketa Fisikoko hiru saio egingo dira.

Araudi honekiko salbuespen gisa, dagokion Hezkuntzako lurralde-ordezkariek baimena eman ahal izango du ordutegian aldaketak egiteko, baldin eta aldaketa horiek behar-beharrezkoak badira ikastetxean ematen diren askotariko mailetako ikasleen eskola-garraioko zerbitzuak koordinatzeko edo garraio- eta/edo jantoki-zerbitzu berberak partekatzen dituzten ikastetxeetakoak koordinatzeko.

2.8. IKASLEAK KLASERA BERTARATZEA

Ikasle guztien eskubidea eta eginbeharra da eskolara bertaratzea.

Hutsegiteak gurasoek edo legezko tutoreek justifikatu beharko dituzte dagokion tutorearen aurrean, eta ikasketaburuak onartuko ditu.

OOGak finkatu beharko ditu ikastetxeko AJAn ikasleen hutsegiteetarako erregulazioa eta ondorioz sor daitezkeen neurri zuzentzaileak, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubideei eta betebeharrei buruzko abenduaren 2ko 201/2008 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritz (2008ko abenduaren 16ko EHAA).

Ikastetxeetako zuzendaritzek Hezkuntzako Ikuskaritzari jakinaraziko diote, aplikazio informatikoaren bitartez, ikasleen absentismoari buruzko informazioa, gaiari buruzko urteroko zirkularrean ezartzen denari jarraituz.

2.9. ERLIJIOA

Erlijio ofizialen eskaintza derrigorrezkoa da ikastetxeentzat, eta borondatezkoa, ikasleentzat. Ondorioz, gurasoek edo legezko tutoreek adieraziko dute onarpen eskaeretan irakaskuntza hori jasotzeko edo ez jasotzeko borondatea. Erabaki hori, kontrakoa berariaz adierazi ezean, hurrengo ikasturterako mantenduko da.

Ikastetxeak hurrengo ikasturteko plangintza egin baino lehen, apirilean, erlijio irakaskuntzen eskaerari buruzko informazio eguneratua jakinarazi beharko dute onarpen eta matrikula aplikazioaren bidez.

Egoitza Santuaren eta Espainiako Estatuaren artean izenpetutako Irakaskuntzari eta Kultura Gaiei buruzko Akordioan ezarritakoari lotuko zaio erlijio katolikoaren irakaskuntza.

Beste erlijio batzuen irakaskuntza egokitu egingo da Espainiako Estatuak Espainiako Erlijio Erakunde Ebanjelikoen Federazioarekin, Espainiako Komunitate Juduen Federazioarekin eta Espainiako Batzorde Islamikoarekin egindako lankidetzak-akordioetan eta, hala badagokio, etorkizunean beste erlijio-konfesio batzuekin izenpetzen diren akordioetan xedatutakora.

2.10. IKASLEEN EBALUAZIOAREKIN LOTUTAKO ALDERDIAK

Ebaluazioa kudeatzeko garaian erreferente izango dira 2021-2022 ikasturtean Hezkuntzako sailburuordeak argitara emandako jarraibideak¹⁸.

2.10.1. Ebaluazioari buruzko arau orokorrak

Paragrafo honetan xedatutakoa aplikatuko da ikastetxeko AJAk ebaluazio-bilkuretarako araudi espezifikorik ezartzen ez badu.

- **Ebaluazio-bilkurak**

Irakasle taldearentzako nahitaezko bilkurak dira, taldeko tutoreak koordinatuta eta orientatzailearen laguntzaz.

- **Bilkuraren akta**

¹⁸ <https://www.euskadi.eus/informazioa/haur-eta-lehen-hezkuntzako-ikastetxeen-berariazko-gaiak/web01-a2ikadok/eu/>

Ebaluazio-bilkura bakoitzeko ebaluazio-akta bat idatzi beharko da, eta akta horretan, gutxienez, alderdi hauek jaso beharko dira:

- Bertaratutako irakasleen zerrenda eta haien sinadura.
- Bertaratu ez diren irakasleen zerrenda, bidezko baimena baduten berariaz adierazita.
- Emaizten azterketa.
- Taldearen egoera orokorrari, errendimendu akademikoari eta haren jarrerak eta arazoei buruzko azterketa, baita egoera bideratzeko hezkuntza-neurriak hartzea ere, beharrezkoa izanez gero.
- Banakako arazoen analisia, eta hezkuntza indartzeko neurriak edo bestelako jardunen inguruko erabakiak.
- Irakasle-taldearen irakaskuntza-jardueraren inguruko gogoeta.

- **Dokumentazioa**

Ebaluazio-bilkuren ondoren, ikasketaburuak emaitzen datu estatistikoak bilduko ditu, OOGan aurkezteko. Era berean, kalifikazioak Hezkuntza Sailaren noten eta hutsegiteen aplikazioan sartuko dira, “Ikasturte amaierako dokumentazio akademikoa” dokumentuko jarraibideak beteta.

- **Errendimendu akademikoa objektiboki baloratua izateko eskubidea**

Ikasleen ebaluazio objektiboa berma dadin, beharrezkoa da aldez aurretik jakitea zein ebaluazio-irizpide eta gutxienezko helburu eta eduki eskatzen diren dagozkion maila eta arloei-eremuei ebaluazio positiboa lortzeko.

Hortaz:

- Ikastetxearen curriculum-proiektuak eta programazio didaktikoek adierazitako alderdiak jaso beharko dituzte.
- AJAk bermatu beharko du ikasleek eta haien legezko ordezkariak dokumentazio hori eskuragarri dutela.

Ikastetxeek ikasturte bakoitzaren hasieran argitara emango dituzte arlo-eremu bakoitzaren ebaluazioan aplikatuko diren ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideak.

Ikasleek eta, hala badagokio, haien gurasoek edo legezko ordezkariak errendimenduaren ebaluazioan eragina izango duten lan, proba eta ariketa guztien kopia eskuratu ahal izango dute haiek zuzendu ondoren, eta dagozkion alegazioak aurkeztu eta haiek berrius daitezzen eskatu ahal izango dute. Zuzenketa ezin izango da mugatu kalifikazio kuantitatibo edo kualitatibo bat adieraztera. Aldiz, egindako hutsegiteen edo akatsen adierazpena edo kalifikazioaren azalpen arrazoitua jaso beharko ditu.



AJAK erreklamazio-prozedura ezarriko du, berrikuspen hori egiteko epeak eta baldintzak adierazita, eta kontuan hartuko du irakasleentzat lotesleak direla, curriculum ofizialaz gainera, ICPa, programazioak eta argitara emandako ebaluazio- eta kalifikazio-irizpideak.

Ikasleek ikasturtean zehar edonoiz probak, lanak eta ariketak eskuragarri izan ditzaten, irakasleek horiek ikastetxean gorde beharko dituzte ikasturte osoan eta, hala badagokio, erreklamatzeko azken aukera ebatzi arte.

2.10.2. Hezkuntza-Laguntzako Berariazko Premiak (HLBP) dituzten ikasleak (EUSLEko ikasleak barne) ebaluatzeko neurriak

HLBP ikasleei dagokienez, ebaluazio-prozesuak errazteko, ikastetxeek neurriak hartu behar dituzte, hala nola: denbora gehiago ematea prozesu horiek egiteko; enuntziatuak sinplifikatzea; testuaren formatua ikasleentzako erraza izatea, haien beharren arabera; baliabide teknikoak erabiltzea, beharrezkoak badira; azterketak idatziz egin beharrean ahoz egiteko edo ordenagailuz egiteko aukera —batik bat, dislexia edo hiperaktibitatea diagnostikatuta duten ikasleentzat—; hasieran eta/edo bukaeran testua irakurtzea; ikasleei laguntza eman ohi dieten langileak azterketan egotea; ebaluazio-irizpideak egokitzea; etab. Azken batean, irisgarritasun unibertsalerako eta aukera-berdintasunerako eskubidea bermatzeko neurriak dira.

Norbanako curriculum-egokitzapenak dituzten ikasleei dagokien dokumentazio akademikoa Hezkuntzako sailburuordearen jarraibideen eta “Ikasturte amaierako dokumentazio akademikoa” dokumentuaren arabera egingo da.

Curriculumaren aldaketa garrantzitsuak jasotzen dituzten programak —hala nola EUSLE murgiltze-programa— dituzten ikasleen kasuan, ikasle bakoitzaren Norbanako Jarduera Plana izango da ebaluazioaren erreferentzia.

2.10.3. Salbuespenak

Euskara eta literatura salbuespen-eskariak kudeatuko dira ondorengo araudia kontuan hartuta: Uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua, Euskal Herriko irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena, dekretu hori garatzen duen 1983ko abuztuaren 1eko Agindua eta Hezkuntza Sailburuordetzak horretarako emandako urteroko Ebazpena.

Salbuespen-eskariei dagokienez, Hezkuntza Ikuskaritzako Lurralde Burutzak, ikasturte hasieran, ikastetxeetako zuzendaritzari idazki bat bidaliko die. Idazki horretan, Hezkuntzako sailburuordearen urteko Ebazpena betetzeko jarraitu beharreko prozeduraren nondik norakoak zehaztuko dira. Ebazpen horrek Euskara eta Literatura irakasgaitik salbuesteko baldintzei buruzko jarraibideak ematen ditu.



Gogorazten da Euskara eta literatura irakasgaiko salbuespena arlo horren ebaluazioari dagokiola soilik, ez, ordea, arloaren irakaskuntzari. Hortaz, derrigorrezkoa da salbuespen hori jaso duten ikasleak eskolara joatea, eta aurretiaz ezarritako plan indibidualaren arabera jasotzea. Plan horrek aukera ematen dio matrikulatu den kurtsoari dagokion mailan arian-arian sartzeko.

Gainerako ikaskuntza-arloei dagokienez, Hezkuntza Sailak ez du aurreikusi beste salbuespenik.

2.11. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN JARRAIPENA

2022-2023 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleek ebaluazio diagnostikoa egingo dute.

Ebaluazio diagnostikoak Hezkuntza Sailaren eta ikastetxe guztien artean partekatutako erantzukizuna dira, oinarritzko irakaskuntzen curriculumari buruzko Dekretuaren 54. artikulua arabera, eta hobetzeko aukera eta erronka gisa ulertu behar dira ikastetxeen eta euskal hezkuntza-sistema osoaren aldetik.

Testuinguru horretan, zuzendaritza-taldearen eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideen erantzukizuna da haiek egin daitezen bermatzea eta emandako informazioa behar bezala tratatzea. Informazio hori diskrezio handienarekin tratatuko da, eta ikastetxeko hezkuntza-komunitateko edozein kidek ezin izango du argitaratu, ez banaka, modu kolektiboan.

Ebaluazio diagnostiko hori nahitaez bete beharrekoa da, baina ez du ondorio akademikorik ikasleentzat. Funts publikoekin sostengatutako ikastetxe guztietan egingo da, eta helburu du konpetentzia-maila egiaztatzea eta maila hori hobetzeko neurri egokiak ezartzea. Hezkuntza Ikuskaritzari dagokio ikasleen eta irakaskuntzaren ebaluazio-prozesua nola garatzen den gainbegiratzea.

2022-2023 ikasturtean, hezkuntza-komunitateak IUPea sartutako hobekuntza-helburuetan adostutako jarduerak sistematikoki ezartzen jarraituko dute ikastetxeek. Horretarako, Hezkuntza Ikuskaritzaren eta eskualdeko Berritzegunearen aholkularitza eta laguntza izango dute.

3. IRAKASLEAK ETA HEZKUNTZAKO PERTSONALA

Irakasleen eginkizunak 237/2015 Dekretuko 20. artikuluan eta 236/2015 Dekretuaren 30. artikuluan daude jasota. Atal honetarako ere kontuan hartuko da Enplegatu Publikoaren Estatutuaren Legean jasotakoa, 5/2015 Legegintzako EDan, Enplegatu Publikoaren Oinarritzko Estatutuaren Legeko testu bateratua onartzen duena, batik bat funtzionarioen eskubideak eta eginbeharrak, faltak eta zigorrak, kode deontologikoa eta gainerakoak, baita indarrean diren lan-hitzarmenak ere.



3.1. IRAKASLEEN ANTOLAKETA

3.1.1. Irakaskuntza-jardueraren antolaketa

Euskal Eskola Publikoari buruzko 1/1993 Legearen 36.f) artikuluan xedatzen denez, zuzendaritza-taldearen egitekoa da irakasle taldeak antolatzea eta irakasleak beren jardueretara atxikitzeko irizpideak erabakitzea ikasturte bakoitzaren hasieran.

Ikasturtea hasi baino lehen, zuzendaritza-taldeak irakasleak maila, ziklo, arlo-eremu eta ikasle taldeetara esleituko ditu, kontuan hartuz ikasle-taldeen ezaugarriak eta irakasleen konpetentziak. Kontuan hartu beharreko irizpideen artean, zailtasun handiena dakarten edo irakasle taldearen egonkortasuna eskatzen duten taldeetara bultzatuko da behin betiko irakasleak esleitzea.

- Ikastetxeko ordutegia onartzea eta jendaurrean jartzea

Irakasleek nahitaez bete behar dute ikasketaburuak prestatutako eta zuzendariak onartutako ordutegia. Lurralde-ordezkaritzak ebatziko du gaiari buruzko edozein erreklamazio, Hezkuntzako Ikuskaritzaren txostena jaso ondoren.

Zuzendaritza kideen, irakasleen eta hezkuntza-profesionalen ordutegiak ageriko leku batean egongo dira, eskola komunitateko kide guztiek ezagutu dezaten eta jarraian zehatzen diren puntu hauen inguruko informazioa izan dezaten: gurasoei zuzendutako tutoretzen ordutegia, zaintzak, tokiko batzordeetan eta eskualdeko prestakuntza-mintegietan parte hartzea eta abar.

3.1.2. Urteko Lanaldia

Lanaldi eta egutegi motak edozein direla ere, irakasleen dedikazio-erregimena 1.462 ordukoa izango da.

Ebazpen honetan, halaber, erregulatu egiten da asteko lanaldiko jarduna, lanaldi horren banaketa curriculumarekin emateko ordutegian, ordutegi osagarria eta ikastetxean egoteko ordutegia.

Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioaren¹⁹ (4. artikuluan) eta Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren²⁰ (50. artikuluan), irakasle funtzionarioek eskubidea izango dute urte natural bakoitzean hogeita bi egun balioduneko opor ordainduak izateko, edo proportzioan dagozkion

¹⁹ EAEko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan baldintzak arautzen dituen [akordioa](#) (EHAA 2010-07-16)

²⁰ <https://www.boe.es/buscar/pdf/2015/BOE-A-2015-11719-consolidado.pdf>



egunetakoak, urtean zehar zerbitzu-denbora laburragoa balitz. Udako aipatutako aldi hori abuztuko hilabetea izango da.

Oporraldia eten ahal izango da gaixotasun edo istripuren bat gertatzen bada, eta interesdunak oporraldia osatzeko eskubidea izango du, inguruabar horiek desagertu eta medikuaren alta jaso ondoren. Artean hartu ez den oporraldia aldi bakarrean hartuko da, eskolarik eman behar ez denean, ahal dela.

3.1.3. Asteko lanaldia eta irakasleen eginkizunak

Irakasleek asteko 30 ordu emango dituzten ikastetxearen zuzeneko dedikazioan eta, horietatik, 23 irakastorduak izango dira gehienez (jolasgaraia ere tartean). Irakastordu horietan sartzen dira curriculum ematera bideratutakoak, ikasleen tutoretzakoak eta hezkuntza-laguntzak.

Gainerako 7 orduak honetarako erabiliko dira:

- Elkarriketak gurasoekin.
- Banakako tutoretzak.
- Ikastetxeetan egiten diren hezkuntza-ziklo, -arlo eta -programen inguruko irakasle taldeen bilkurak.
- Aniztasunari erantzutera dedikatutako profesional aditu guztien bilkurak.
- Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan sartzen diren proiektu estrategikoak.
- Ebaluazio-bilkurak.
- Klaustroak.
- Gobernu kide anitzeko organoetara bertaratzea eta hezkuntza-komunitatean sortu eta OOGak onartutako batzorde espezifikoetan parte hartzea.
- Prestakuntza-jarduerak.

Irakasleen koordinazioa, lankidetzak eta prestakuntza bultzatzeko, asteko dedikazio-ordutegia eta ikastetxean egoteko ordutegia bat etorri behar dira irakasle guztientzat, salbu eta ikastetxean onartutako proiektu edo zerbitzuei lotutako salbuespenak gertatzen badira.

Bestetik, ikastetxean zuzenean dedikatu behar ez diren ordutzat hartzen direnak, hauexetara zuzenduko dira: irakaskuntza-jarduerak indibidualki prestatzea, azterketak zuzentzea, borondatezko eta banakako lanbide-hobekuntza eta irakaskuntza-eginkizunari lotutako beste gai batzuk. Ordutegi hau ez da ikastetxean nahitaez egotekoa.

Ikastetxeko zuzendaritzak antolatuko du jolasgaraian edo jolasgaraietan ikasleei eman beharreko arreta; arreta hori jolasak eta zeharkako oinarritzeko konpetentziak garatzera bideratutako beste jarduerak batzuk planifikatzeari lotuta egongo da. Zeregin horretara, jolastokietan eta ikastetxeko beste gela batzuetan dauden ikasle guztien zaintza eta jagoletza aktiboa bermatzeko behar diren irakasleen kopurua esleitu behar da. Irakasle/ikasle ratioa ikasleen adinaren, denbora-aldi horietarako



jarduerak planifikatu diren helburuen eta arreta emango den espazioaren ezaugarrien arabera zehaztuko da. Ikastetxeek protokolo bat prestatuko dute, eta ikastetxearen urteko planera (IUP) gehituko da; bertan, hauexek bilduko dira: diseinatutako jarduerak; arreta berezia eskatzen duten jolasgaraiko guneen identifikazioa; irakasleak arreta bereziko gunetara eta gainerako eskola-esparrura esleitzea; zein jarduketa jarraituko den intzidentziak sortzen direnean.

Ikastetxeak ordu-kreditu bat du eta, ondorioz, irakasle-zuzkidura bat; zuzkidura horrek, ikasleek dituzten irakasle-arreta premiei aurre egiteaz gain, balio du hezkuntza-komunitateak IHPan zehaztutako jomugetara heltzeko proposatu diren jarduerak eta proiektuak planifikatu, koordinatu eta egiteko erantzuna emateko. Ardura eta zeregin horiek IUPean aurreikusiko dira.

Zuzendaritza-taldeari dagokio, klaustroarekin eta inplikaturako pertsonalarekin adostu ondoren, ordu-kreditu hori kudeatzea, irakasle bakoitzari esleituz irakaskuntza-jarduera eta garatu behar duen zeregin espezifikoak. Horretarako, lehentasun hauek hartuko dituzte kontuan:

- Pertsona bakarreko organoek denbora izango dute karguaren berezko zereginak betetzeko.
- Zuzendaritza-taldeak, ikastetxeko antolamendua eta bertan existitzen diren organo edo/eta batzorde pedagogikoen funtzionamendua kontuan hartuz, zikloko koordinatzaileei haien eginkizunak egiteko behar duten ordu kopurua esleituko die.
- Ikastetxean, irakaskuntza-jarduerako ordutegian, beti egongo da zuzendaritza-taldeko ordezkari bat. OOGak malgutu ahal izango du ikastetxean nahitaez zuzendaritzako karguak egon behar diren ordutegia, karguak berezko dituen eskolaz kanpoko jardueren ordutegi-denbora berdintzeko, baldin eta jarduera horiek IUPean aurreikusten badira.

3.1.3.a. Hezkuntza-laguntza

Ikastetxeak duen Aniztasunari Erantzuteko Planak (IUPan jasota egongo dena) adierazi egingo ditu egiteko horretan emango den ordu-kreditua eta aniztasun horri ikuspegi inklusiboz erantzuteko ekintza eta estrategia egokienak, adibidez:

- Talde batean irakasle bat baino gehiago egotea jarduera batzuetan.
- Ikasleei erantzutea, baldin eta aurreko zikloa gaindituta ere ziklo horretako konpetentzia batzuk eskuratu ez dituztenean.
- Ikasteko zailtasun espezifikoak dituzten ikasleen laguntzak ikasgelatik eta ohiko eskola-ordutegitik kanpo.
- Etxean irakasteko beharra duten ikasleei arreta pedagogikoa ematea.
- Ordu-kreditua aldatzeko aukera, ikasturtean zehar eskolatze berrien ondorioz sortzen diren premiei erantzuteko.
- ...

3.1.3.b. Irakasleen ordutegi pertsonala

Irakasleen ordutegiak Eskola-jardueraren dokumentua (EJD-DAE) informatikako aplikazioan sartuko dira, eta zehatz adieraziko dira irakasle bakoitzak bere ordutegian bete behar dituen eginkizunak.

3.1.3.c. Lanaldi-murrizketa duten irakasleak

Lanaldi-murrizketa familia eta lana kontziliatzeko eskatu bada, ikastetxeetako zuzendaritzek ahal duten guztia egingo dute interesdunaren ordutegia eskatutako kontziliazioaren arabera izan dadin, betiere horrek ez badu eragin negatiborik ikasleen arretan.

- Lanaldi erdiaren murrizketa

Lanaldi erdiko murrizketa eraginkorretan, Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleek asteko 15 orduko lanaldia izango dute ikastetxean zuzenean emateko. Horietatik, asteko 12 ordu irakastorduak izango dira eta, horien banaketari dagokionez, egunero ikastetxean 2 ordu eman beharko dute gutxienez; astean, berriz, 4 egun gutxienez.

Gainerako orduak, ikastetxean zuzenean dedikatu behar ez diren ordutzat hartzen direnak, hauexetara zuzenduko dira: irakaskuntza-jarduerak prestatzea, azterketak zuzentzea, irakasleen lanbide-hobekuntza eta irakaskuntza-eginkizunari lotutako beste gai batzuk.

- Lanaldi herenaren murrizketa

Lanaldi hereneko murrizketa eraginkorretan, Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleek asteko 20 orduko lanaldia izango dute ikastetxean zuzenean emateko. Horietatik, asteko 15 ordu irakastorduak izango dira eta, horien banaketari dagokionez, egunero ikastetxean 2 ordu eman beharko dute gutxienez, asteko lanegun guztietan (astelehenetik ostiralera).

Asteko gainerako orduak, ikastetxean zuzenean dedikatu behar ez diren ordutzat hartzen direnak, hauexetara zuzenduko dira: irakaskuntza-jarduerak prestatzea, azterketak zuzentzea, irakasleen lanbide-hobekuntza eta irakaskuntza-eginkizunari lotutako beste gai batzuk.

- Lanaldiaren herena duten irakasleen ordutegia

Irakasle hauen ordutegia asteko 10 ordukoa izango da, eta horietatik 8 irakaskuntza-dedikaziokoak izango dira. Ordutegi horrek irakasle titularrarena osatu beharko du, ikasleen arreta bermatuta gera dadin.

- Osasun-arazo larriengatik lanaldi-murrizketa duten irakasleak

Osasun-arazo larriak dituzten irakasleek lanaldiaren heren bateko murrizketa badute, zuzeneko irakaskuntza-orduak astean 8 ordu murriztu ahal izango dituzte. Murrizketa horrek ez du esan nahi ikastetxean egoteko ordutegia murriztuko denik.



Murrizketa-ordu horiek zuzendu beharko dituzte zereginak egitera, liburutegiko lanetara, eskolaz kanpoko jarduerak eta jarduera osagarriak antolatzen laguntzera, hezkuntza-arretako zereginetara eta ikastetxeko zuzendaritzak eskatzen dizkien antzeko beste lan batzuetara. Jarduera horietan emandako orduak beren ordutegi pertsonalean jasoaraziko dira.

3.1.3.d. Gaixotasun kronikoa duten senideei arreta emateko baimena duten irakasleak

2. mailara arteko senide bat zaintzeko baimena —indarrean dagoen araudian jasotakoa— duten irakasleek gehienez 50 ordu izango dituzte ikasturte bakoitzeko. Baimen hori ikastetxeko zuzendaritzarekin koordinatuta hartuko da, eskatzaileak ematen duen zerbitzuaren beharrak beteta geratzeko moduan, betiere, eta baimen hori gauzatzeko garaian, behar den koherentzia pedagogikoa eta antolamendukoa bermatu beharko da.

Irakasleen ordutegiak prestatzean, curriculum ez emateko orduak banatzeko, kontuan hartuko dira baimen hori eman zaien pertsonen adierazitako beharrak. Baimen horrek ez dakar berekin alde zuzenetik ezarritako ordutegia aldatzeko eskubiderik.

Eskatzailearen eta ikastetxeko zuzendaritzaren artean desadostasunik badago baimen hori baliatzeari dagokionez, eta interesduna ez badago ados zuzendaritzaren erabakiarekin, erreklamazioa jarri ahal izango du Hezkuntzako lurralde-ordezkararen aurrean, eta horrek ebatziko du erreklamazioa, Hezkuntza Ikuskaritzaren txostena jaso ondoren.

3.1.3.e. Proiektuak eta programak koordinatzen dituzten irakasleak

Prestakuntza-programetan edo -proiektuetan irakasleek parte hartzeari ematen zaion balioa ikusita, zuzendaritza-taldeak modua jarriko du Hezkuntza Sailak onartutako proiektuak eta programak koordinatzen duten irakasleek behar besteko dedikazioa izan dezaten beren eginkizuna betetzeko.

3.1.3.f. Irakasle ibiltariak

Ikasketaburuak edo/eta ibiltaritzako ikastetxeko zuzendaritzek erabakiko dute ikastetxe bakoitzean irakasle ibiltarien egonaldi ordutegia zein den. Alde horretatik, ibiltaritzako ikastetxeetako haien egonaldia hauen arabera egokituko da: egin beharreko ibiltaritzak dituen ezaugarriak, ibiltaritza bakoitzean bere arreta jasoko duten taldeak edo/eta ikasleak, eta emango dituen arloak.

Egutegia betetzearen ondorioetarako, irakasle ibiltariak atxikitako ikastetxeko egutegia bete behar dute.

3.1.3.g. Ikuspegi inklusibo batetik aniztasunari erantzuteko bereziki prestatutako irakasleak

- Irakasle aholkulariak

Tutoreei eta irakasle-taldeari aholkua eta laguntza emango die ikasleen aniztasunari erantzuteko eta hezkuntza-laguntza berariazko premiei (HLBP) erantzuteko. Gainera, tutoretza-plan bat ondu eta garatzeko aholkularitza emango dute zikloko koordinatzailearekin batera, bereziki Bizikasi ekimenari lotutako jarduketetan. Gainera, ikastetxeko BAT Taldeko kide aktibo gisa parte hartuko dute.

Haien eginkizunak hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko irizpideak ezartzen dituen 1998ko uztailaren 30eko aginduko 53. artikuluan biltzen dira (abuztuaren 31ko EHAA), eta haren garapena zeregin zehatzetan testuinguratu beharko da.

Funtzioak

a) Tutoreari ikasteko zailtasun espezifikoak eta arrakasta izateko estrategiak identifikatzen lagundu.

b) Irakasle tutoreei aholkularitza eman eta haiekin lankidetzan aritu curriculum-egokitzapen indibidualak prestatzeko eta garatzeko.

c) Ikasgelan tutorearekin batera eta koordinatuta esku hartu, taldean bi profesionalek edo taldekatze malguen egitura batean irakasle bat gehiago balitz bezala une jakin batean jardunez.

d) Irakasle tutoreei aholkularitza eman eta lankidetzan aritu etengabeko ebaluazioan, hala gizabanakoaren ebaluazioan nola hezkuntza-testuinguruarenean.

e) Hezkuntza-premia bereziekin banaka esku hartu, ingurune arrunt partekatuetan edo espezifikoetan.

f) Tutore-ekintzari buruzko berrikuntza- eta prestakuntza-programak eta aniztasunaren zein hezkuntza-premia berezien arreta sustatu eta koordinatu.

Atazak

Tutorearekin batera, ikasle-taldearen funtzionamenduan eragina duten askotariko aldagaiak, haien zailtasunak eta hezkuntza-beharrianak aztertu eta identifikatu.

Irakasle taldearekin ikasgelako metodologia- eta antolamendu-egokitzapenak zehaztu eta, beharrezkoa balute, ikasleei banakako arreta eman.

Zuzendaritza taldearekin lankidetzan aritu aniztasunari erantzuna emateko planifikazioan eta antolamenduan.

Zuzendaritza-taldearekin batera, esku-hartzeak garatzeko baliabideen esleipena planifikatu eta baloratu.

Irakasle taldearekin eta inplikaturako gainerako profesionalekin lankidetzan aritu HPB duten ikasleentzako curriculum-egokitzapen indibidualizatuak prestatzen, garatzen eta jarraipena egiten.

Ikasleen aniztasunari erantzuna emateko irakasleen konpententziak hobetu, ikastetxean ikaskuntzarako eta partaidetzarako oztopoak ezabatzeko ekintzak sustatu.

Irakasle tutoreei ikasleak banaka, modu interaktiboan eta testuinguratu ebaluatzen lagundu, ebaluazioan haien gaitasunei eta premiei erreparatu, prozesua eta programa birbideratzeko.

Tutorearekin batera, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak errazten dituzten elementuak identifikatu (curriculum-egokitzapenak, ikasgelako dinamika, lan desberdinduko proposamenak, lan autonomia...).

Zuzendaritza-taldearen eta irakasleen ekintzak Berritzeguneko aholkulariarekin koordinatu, batez ere erreferentziazko aholkulariarekin eta dagokion HPBko aholkularitzarekin.

Ikasleei ikasgela arruntean zuzeneko arreta eman, eta bakarrik oso tarteka hartatik kanpora.

Aniztasunari erantzuna ikastetxeko, etapako edo zikloko interbentzio orokorreko programak sustatu eta dinamizatu.

Zuzendaritza-taldearekin bat etorriz, aniztasunari erantzuna eta HPBei buruzko prestakuntza-programak hasi, bultzatu eta horietan parte hartu.

Irakasle taldean lankidetzarako oinarri batzuk sustatu, ikasgelako funtzionamendua agertzen diren hezkuntza-premietara egokitzeko balio duen eguneroko jardunbidea aztertze.

Irakasle aholkulariak lanaldia hiru interbentzio-multzo handiren inguruan banatuko du: ikastetxeko irakasleen aholkularitzarako interbentzioak, ikasleei hezkuntza-laguntza emateko ikasgelako ingurune arrunteko lankidetzak-interbentzioak eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako laguntza-testuinguruetarako banakako interbentzioak; azken interbentzio mota horretan, 7 ordu eman ahal izango dira gehienez.

Haur Hezkuntzan, irakasle tutoreei aholkularitza emango die eta haiekin arituko da lankidetzan goiz detektatu eta esku hartzeko lanean, eta koordinazioan arituko da bera bezala ikasleari zein haren familiari buruz esku hartzen ari diren arlo sozial edo osasun eragileekin. Koordinazio hori HPBetako aholkularitzekin lankidetzan egingo da.

- **Hezkuntza-premia bereziak (HPB) dituzten ikasleei laguntzeko irakasleak**

Beren eginkizunak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 1998ko uztailaren 30eko Aginduan zehazten dira (abuztuaren 31ko EHAA). Gainerako irakasleek bezala egingo dute beren lanaldia, eta adierazitako eginkizun guztiak betetzen emango dute dagokien ordutegia, ikasleekin esku hartzeari lehentasuna emanda.

Profesional horien interbentzioa, salbuespenak salbuespen, testuinguru arruntean egingo da.

- **Entzumen eta hizkuntzako irakasleak.**

Pertsonal honek komunikazio eta hizkuntzaren arloan HLBP-ak agertu dituzten ikasleekin beteko ditu bere eginkizunak, lankidetzan arituz hezkuntza-erantzunean esku hartzen duten gainerako profesionalekin, betiere curriculum-jarduketako edo Norbanako Jarduera Planean oinarrituz.

Curriculumera sartzeko laguntzan, ikasgela izango da esku hartzeko ingurune lehenetsia.

- **Hezkuntza Premia Bereziak babesteko profesional espezifikokoak.**

Ikastetxeetako zuzendaritzek profesional hauen lan koordinatua bermatu behar dute plangintzan (plana, ordutegia...), koordinazioan (bilerak) eta ikasleen jarraipenean. Hauen artean, honako hauek daude: logopedak, fisioterapeutak, okupazio-terapeutak, hezkuntza-laguntzako espezialistak, IBT-CRIko profesionalak, gor-itsutasuneko bitartekariak, gorren koordinatzaileak...

- **Hizkuntza indartzeko irakasleak**

Ikastetxeko zuzendaritzak hizkuntza indartzeko irakasleak izendatuko ditu klaustroko irakasleen artean, eta behar bezala arrazoitutako salbuespenetan izan ezik, baldintza hauek bete behar dituzte:



- Ikastetxean eskarmentua duten irakasleak, ikastetxeko errealitatea ezagutzen duena
- Hizkuntzak irakasten eskarmentua duten irakasleak

Gainera, hauxe gomendatzen da:

- Hizkuntza indartzeko irakasleak bilkuren plangintza bat izatea, gainerako eragileekin (irakasle tutoreak, irakasle aholkulariak, etab.).
- Hizkuntza indartzeko irakaslearen lana Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuan edo/eta Aniztasunari Erantzuteko Planean islatzea.
- Hizkuntza indartzeko irakasleak Berritzegune nagusian edo zonaldeko Berritzeguneetan antolatzen den hasierako edo/eta etengabeko prestakuntzan parte hartzea.

Hizkuntza indartzeko irakasleek eginkizun hauek izango dituzte:

- Hizkuntza-indargarriaren programazioa egitea, ikasleen beharretara egokituta.
- Tutoreari laguntzea ikasle horientzako banakako esku-hartze plana egitea.
- Material didaktikoak ikuspegi egokiaz aztertzea, antolatzea eta prestatzea.
- Dagokion hezkuntza-laguntza ematea.

Hizkuntza indartzeko irakasleek eginkizun hauek partekatuko dituzte ikasle etorri berrien tutoreekin:

- Gainerako irakasleekin koordinazio-prozesu bat ezartzea, banakako esku-hartze plana egiteko eta plana abiaraztean haren jarraipena egiteko.
- Ikasle etorri berriei harrera eta inklusioa erraztea, haien gaitasunak garatzen laguntzea eta ikastetxeko jardueretan parte har dezaten bultzatzea.
- Ikasleen aurrerapenak eta ikaskuntzak ebaluatzen parte hartzea.
- Materialaren eta edukien egokitzapenak egitea, zikloaren eta etaparen curriculumaren ikuspegitik.

Eskola-komunitateko kide diren aldetik, hizkuntza indartzeko irakasleek honako eginkizun hauek izango dituzte gainerako irakasleekin batera:

- Hizkuntzak irakasteko jarduerak planifikatzea.
- Hezkuntza-prozesuan kulturarteko ikuspegia integratzeko jarduerak diseinatzea.

Eusle-tutoreek, aurreko eginkizunez gain, honakoak izango dituzte:

- Bere jardunaldi osoa Eusle gelako ikasleen arreta eta premietara bideratzea.
- Hasierako balorazioa egitea (ongizate emozionala, hizkuntza eta matematika) beste irakasleekin koordinatuta.

- Alfabetatu gabeko ikasle berririk izanez gero, edo prozesuan daudenak Pedagogia terapeutikoko irakaslearen edo ikastetxeko irakasle-aholkulariaren laguntza eskatzea.
- Eskolako Talde Eragilearen partaide izatea.
- Hizkuntza-programazioa ikasleen premietara egokitzea eta A2 mailara lortzera bideratzea.
- Programako eta ikastetxeko formazio saioetan parte hartzea.
- Programaren barruan proposatzen diren programazioa eta material didaktikoak abian jartzea eta, hala badagokio, egokitzea eta berriak sortzea.

- **BAT taldeko koordinatzailea**

BAT taldeko koordinatzaileak eginkizun hauek beteko ditu:

- BAT taldearen koordinazioko eta lan komunezko uneak kudeatzea, ezartzea eta dinamizatzea: bilkuren deialdiak, aktak, edukia...
- Jazarpen-kasuetan esku-hartzeen jarraipena egitea eta haiek konpontzen laguntzea.
- Esku-hartzeak modu ordenatu, arin, konfidentzial eta egokian egiten direla zaintzea, bai ikasleekin, bai familiarekin eta irakasle taldearekin.
- Eskualdeko Berritzeguneak antolatutako prestakuntza-mintegian eta Hezkuntza Sailak antolatutako prestakuntza-jardueretan parte hartzea, eta jasotako prestakuntza lantaldeko kideen artean partekatzen dela ziurtatzea.

3.1.3.h. ERALDATZEN programa koordinatzailea

2021-2022 ikasturtean hasitako bideari jarraipena emanez ERALDATZEN programa garatzen ari diren ikastetxeek 2. faseari ekingo diote 2022-2023 ikasturtean. Horretarako, besteak beste, ERALDATZEN arduraduna izendatu beharko du ikastetxeak (lehengo urteko bera edota beste bat). Eraldatzen arduradunak ikastetxean egonkortasuna duen irakasle bat izan beharko du. Bere lanaldiaren 1/3 libre izango du programarako, eta astegun bat erreserbatu beharko du (asteazkena), irakaskuntza-kargarik gabe Eraldatzen sarearen koordinazio-lanetarako.

Eraldatzen arduradunaren zereginak honako hauek izango dira:

- a. Ikastetxean programa dinamizatzea.
- b. Ikastetxean zehaztutako talde eragilearen bilerak zuzentzea.
- c. Eraldatzen sarearen aldizkako bileretan parte hartzea, baita antola litezkeen prestakuntza-saio espezifikoetan ere.
- d. Eraldatzen programako talde teknikoko arduradunekin harreman arina izatea.
- e. Eraldatzen sareak proposatzen dituen ekintzak ezartzea, ikastetxeko talde eragilearekin koordinatuta.



- f. Ikastetxeko irakasleentzako prestakuntza diseinatzen, kudeatzen eta ematen laguntzea.
- g. Ikastetxean ezartzen diren palanka-ekintzak tutorizatzea.
- h. Administrazioak eskatzen dituen datuak biltzea eta ematea.
- i. Programa honetara bideratutako partidaren kudeaketa ekonomikoan laguntzea (fakturen kontrola, ordainketen frogagiriak...)

3.1.3.i. Mentoreak. Mentoreen Sarea (DigCompEdu Gelan)

2022-2023 ikasturtean Mentoreen Sarea (DigCompEdu Gelan) EAEko ikastetxe publikoetara hedatuko da. Sarea Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruaren testuinguruan kokatzen den ekimena da eta bi ikasturteko iraupena izango du. Sarean parte hartzen duten mentoreek, Sistema Digitalizatzeko Planaren buru den taldearen (aurrerantzean DigiTaldea) gidapean, ikastetxeekin lan egingo dute hurrengo bi helburu nagusiekin (arestian esandakoak):

- Ikastetxeko Proiektu Digitalaren diseinua sortzea
- Ikastetxeko irakasleen gaitasun digitalerako akreditazioa lortzea

Lantokia

Mentoreak dituzten ikastetxeek lan ingurune eta lanabes egokiak bermatuko dizkiote irakasle honi mentoretza zereginetarako: online bileretako eta balizko aurrez aurrekoetarako, telefono bidezko komunikaziorako eraginkorrerako eta bere lanaren zeregin guztiak betetzeko.

Lanaldia eta zereginak

Euskal hezkuntza-sistemaren mentoretza digitaleko DigCompEdu Gelan programan parte hartzeko deia egiten zuen Ebazpenean²¹ adierazten zuen bezalaxe, hautatutako mentoreak bere lan-jardunaldia DigCompEdu Gelan sareko mentoretza-zereginetara bideratuko du soilik.

Mentoreen lanaldiaren heren bat jatorrizko ikastetxeak dituen helburuak lortzeko erabiliko dute.

Beste bi heren egokituriko 9-10 ikastetxeetako mentoretza lanetan arituko dira. Ordu horietan barne hartzen dira Euskal Hezkuntza Sistema Digitalizatzeko Planaren buru den taldeak antolaturiko koordinazioak, prestakuntza lanak eta eskakizunak.

Mentoreek ikasturte hasieran mentorizazio prestakuntzan parte hartuko dute eta bertan, mentorizazio plana sortu beharko dute, aurreikusi ezin diren eta dagokien ikastetxeko errealitatei erantzun ahal izateko. Hori dela eta, mentoreari antolamendu malgua erraztuko

²¹ https://www.euskadi.eus/web01-a3hsare/eu/contenidos/informacion/inn_digcompedu_gelan_mentoreak/eu_def/index.shtml

diote jatorrizko ikastetxeek, unean uneko erantzunak eman ahal izateko eta hurrengo zereginak bete ahal izateko.

- Koordinazio bilerak
- Norberaren zentroan egin beharrekoak:
 - Ikastetxeen Proiektu Digitala
 - Irakasleak konpetentzia digitalean duten maila akreditatzeko prozesua
- Gainerako zentroen mentorizazioa (bilerak, bisitak, zalantzak, etab)
- Irakasleak konpetentzia digitalean duten maila akreditatzeko prozesuan, tutorizazio-lana
- Norberaren prestakuntza
- Digitaldek (Berritzegune Nagusiko eta tokian tokiko IKT aholkulariek osatutako taldea) arlo honetan eskatzen dituen bestelako zereginak, aldeztuak adostuta eta koordinatuta, Ikaskuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren zuzendaritzarekin batera.

Mentoreak dituzten ikastetxeak

22-23 ikasturterako harturako konpromisoak hauek dira:

- Ikastetxeko Digitalizazio Batzordea sortu.
- 22-23 ikasturtean SELFIE tresnan oinarrituta ikastetxearen Ikastetxeko Proiektu Digitala egin; SELFIE FOR TEACHER tresna ere erabiliko dute irakasleen gaitasun digitala auto-ebaluatzeko.
- Ikastetxeko Proiektu Digitala sartu ikastetxearen 23-24 ikasturterako Hezkuntza-proiektuan.
- 22-23 ikasturtean klaustroaren osoak (gutxienez, %80ak) parte hartu behar du bere gaitasun digitala egiaztatzeke antolatuko diren ikastaroetan.

Mentorizatuak diren ikastetxeak

22-23 ikastetxean:

- Gutxienez, pertsona bat izendatuko dute mentorearen erreferente izateko, harekin koordinatzeko eta lankidetzan aritzeko, sarea osatze aldera. Mentoreak erreferente honekin harremanetan egoteko egunak eta ordutegia 2022-2023ko ikasturtearen hasieran finkatuko dira.
- Irakasleen gaitasun digitalerako akreditazio prozesua ikastetxean bideratzeko Digitalizazio Batzordea antolatuko dute. Batzordean BeA izendatutako irakasleak parte hartuko du eta mentorearekin koordinatzeko pertsona erreferente kide izango da (BeA bera ez bada).
- 22-23 ikasturtean SELFIE tresnan oinarrituta ikastetxearen Ikastetxeko Proiektu Digitala egin; SELFIE FOR TEACHER tresna ere erabiliko dute irakasleen gaitasun digitala autoebaluatzeko.

- 22-23 ikasturtean klaustro osoak (gutxienez, %80ak) parte hartu behar du oinarritzko gaitasun digitala egiaztatzeko prozesuan.

3.1.3.j. Erlijio katolikoko irakasleak

Erlijio katolikoko irakasleek ikasgai horri dagozkion orduak emango dituzte. Ikastetxeko zuzendariak gainerako orduetan egiteko zeregin espezifikoak esleituko ditu, irakasle horien dedikazio-jardunaren arabera. Ataza horietan, ez dira inolaz ere aurreikusiko erlijioa ez diren beste arlo batzuk, baina bai ikastetxeak onartutako askotariko proiektuetan laguntzearekin lotura duten atazetan. Erlijioa irakasleak ikasgaia hainbat ikastetxetan ematen badu, atxikitako ikastetxeko zein ibiltari dabilen beste ikastetxeetako zuzendaritzekin adostuko du haietako bakoitzerako ordutegi-taula, klaseak hasi baino lehen, betiere. Irakasleak lanaldi osoa ez badu eta plazaren konfigurazioa ikastetxe batek baino gehiagok osatzen badute, egonaldiko orduak zati berdinetan banatuko dira konfigurazio horretan adierazitako lehen bi ikastetxeen artean. Era berean, bere erreferentzia-ikastetxea atxikitako ikastetxea izango da, hau da, zerbitzuak ematen dituen plazaren konfigurazioan lehen harremana duen ikastetxea, eta ikastetxe horretako klaustroko kide izango da ondorio guztietarako. Denbora horretan egin ditzakeen zereginak erlijioa beste irakasleak ordezkatzeko sor daitezkeen esleipen berrien arabera izango dira.

Ikastetxeak 2.7 puntuan adierazitako baino erreferentzia-ordutegi zabalagoa ezartzen badu edo atxikitako ikastetxeko zuzendaritza-taldeko kide bada, zuzendaritza-taldeak horren berri eman beharko dio Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzari, etorkizunean gerta litezkeen ordezkapenak egin ahal izateko.

3.2. ZUZENDARITZA-KARGUAK

3.2.1. Zuzendaritza-taldea

Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearen 36. artikuluan xedatutakoaren arabera, zuzendariak, ikasketaburuak eta idazkariak osatuko dute zuzendaritza-taldea. Behar adina denbora izango dute irakasle lanak nahiz euren karguari dagozkionak egiteko.

3.2.2. Zuzendaritza-kargudunen ordutegia

Zuzendaritza-kargudunen ordutegiak aurreikusi behar du ikastetxean zuzendaritza-kargudunen bat egotea ikasleen ohiko eskola-ordutegi osoan eta irakasleen ohiko lanaldian.

Hiru lurralde historikoetako ikastetxe guztietako zuzendariak asteko ostegunak gorde beharko dituzte, bileraren baterako deia egiten bazaie-edo, bilera horretara joan ahal izateko.



3.3. IRAKASLEEN BERTARATZEA ETA LANALDIA BETETZEN DELA KONTROLATZEA

Ikastetxeetako zuzendariak erregistratuko dituzte irakasleen absentziak, “Eskola-jardueraren dokumentua (EJD) / Ordutegi-taulak” aplikazioa erabilita. Horretarako, EJDan fitxa bat ipini da: “Irakasleen bertaratzea”. Fitxa horren barruan, honako hauek adieraziko dira: huts egin duen irakaslea, absentzia zein egunetan izan den, horren iraupena eta absentziaren arrazoiak, eta zabalgarrian dagokion aukera egingo da.

Justifikaziorik gabeko absentzien kasuan, ikastetxeko zuzendaritzak arrazoi hori aukeratuko du EJDaren absentzien zabalgarrian, eta aplikazioak jakinarazpen bat bidaliko dio automatikoki erreferentziazko ikuskariari, eta horrek Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean kasurako aurreikusitako prozedurak hasiko ditu. Halakoetan, irakasleak egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango ditu Hezkuntzako lurralde-ordezkararen aurrean, eta horrek hartuko du azken erabakia.

Lan-baldintzak erregulatzen dituen akordioan adierazitakoak ez diren beste arrazoi batzuk direla-eta justifikatzen badira absentziak, ikastetxeko zuzendaritzak arrazoi hori aukeratuko du EJDko absentzien zabalgarrian, eta, gainera, inplikaturako “III. ERANSKINA” dokumentua bete beharko du (“Irakasleen eta hezkuntza-langile lan-kontratudunen absentziak” atalean)²²:

Ikastetxeko zuzendaritzak “III. ERANSKINA” izenpetzeak berekin ekarriko du bertan emandako azalpena bermatzen duela, eta sinesgarritasuna eta baliozkotasuna ematen dizkiola. Eranskin hori ikastetxean artxibatuko da, Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura.

Irakasleen absentzia guztiak behar bezala justifikatu beharko dira eta, ahal dela, dokumentu bidez egiaztatu beharko dira zuzendaritzaren aurrean, horrek eskatu beharrik izan gabe eta indarrean dagoen akordio arauemailean ezarritakoaren arabera.

Absentzien egiaztagiri guztiak ikastetxean artxibatuko dira eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura egongo dira. Egiaztagirietan absentziaren eguna, ordu-tartea eta arrazoiak adieraziko dira. Originalak eta argiak izan beharko dute.

Aldez aurretik jakindako eta aurreikusitako absentzien kasuan, irakasleek behar besteko aurrerapenez eta idatziz jakinarazi beharko diote ikastetxeko ikasketaburuari absentziak eragindako taldeetako ikasleek zein jarduera egin behar dituzten, eta zein material eta jarraibide behar diren haiek ordezkatuko dituzten hezkuntza-arretako irakasleek jarduera horiek behar bezala egin ahal izan ditzaten.

²² [III ERANSKINA \(DOCX, 158 KB\)](#) : Irakasleen / Lan-legepeko hezitzaile pertsonalen hutsegiteak jakinaraztea.



Aurreko ikasturteetan bezala, ikastetxeko zuzendaritzak irakasleen absentiak erregistratu beharko ditu hurrengo hilaren 5a baino lehen, Hezkuntza Ikuskaritzarentzat eskuragarri egon daitezen.

Greba egingo balitz, ikastetxeko zuzendaritzak Ikuskaritzari gorabehera horren datuak jakinaraziko dizkio, “Eskola-jardueraren dokumentua (EJD) / Ordutegi-taulak” aplikazioaren bidez, “Irakasleen absentismoa” fitxako “Greba-datuak” atalean. Halakoetan, ikasleentzako ahalik eta arretarik egokiena antolatuko du eskura dituen giza baliabideekin.

Era berean, irakasleren batek bere ordutegian sartzeko eta irteteko betebeharrak nabarmen betetzen ez dituela ikusten badu, zuzendaritzak ordutegi hori betetzeko eskatuko dio. Ordutegia ez betetzen jarraituz gero, Lurralde Ordezkaritzako Langilego Unitateari eta Hezkuntza Ikuskaritzari horren berri emango zaie, bidezko neurriak har ditzaten.

Irakasleen absentiak behar bezala kudeatzeko, honako puntu hauek hartuko dira kontuan:

- Irakasleen betebeharra da hutsegite-egiaztagiriak zuzendariari garaiz aurkeztea, hark noiz eskatuko zain egon gabe.
- Ikastetxetik kanpo IRALEko ikastaroak eta antzekoak egiten ari diren irakasleek ikastaro horietara ez joatearen egiaztagiriak aurkeztuko dituzte ikastaro horiek egiten ari diren lekuetan.
- Ohiko eskolaldian irakasleak ez daudenean ikastetxean, ikasleei arreta emateko ezarritako prozeduraren berri eman beharko zaio OOGari.
- Eskolen ohiko irakaskuntzan gertatzen den edozein asaldura berehala jakinarazi beharko zaio Ikuskaritzari telefonoz.

Ikastetxe batzuek, irakasleez gain, Saileko hezkuntza-langile lan-kontratudunak eta/edo laboralak dituzte. Pertsona horien absentiak erregistratzeko, ikastetxeek beren datuak sartu ahal izango dituzte, irakasleen absentiak erregistratzeko erabiltzen den EJDko fitxa beraren bidez.

3.4. ZIKLO/ETAPAKO TALDEAK

Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, horien ezaugarrien arabera, hezkuntza-ziklo berean diharduten irakasleak biltzen dituzten lantaldeak eratuko dira, horien koordinazioa eta jarduera pedagogikoa hobetzeko helburuarekin.

Zikloko taldeak arduratuko dira ziklo horietako irakasleen koordinazio didaktikoaz. Horietako koordinatzailearen zuzendaritzapean elkartuko dira, eta helburua izango da hezkuntzako ziklo edo etapa bereko arlo ezberdinak irakasten dituzten irakasleen arteko koordinazioa bermatzea. Talde horien zeregina eta egiten duten lana taldekide guztien erantzukizuna da.

Koordinazio horren baitan, eta orokorrean, zikloko taldeak gainbegiratuko du arlo ezberdinetako programazioa, salbuespeneko bi lehentasun ezarrita:

- Maila bakoitzeko programazioa egokitzea landu ez ziren baina beharrezkoak ziren aurreko mailako funtsezko elementuak eransteko.
- Maila bakoitzeko programazioa egokitzea maila berrian bilakaera aproposa izateko aurreko mailako funtsezko elementuak indartzeko.
- Programazioa egokitzea aurreko lehentasunen arabera azpimarragarriak ez diren edo aurreragoko mailen programazioetan behin eta berriz jasotzen diren elementu osagarriak kentzeko.

3.4.1. Ziklo/etapako koordinatzaileak

Haur Hezkuntzako etapako eta Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzeko irakasle talde bakoitza lau irakaslek edo gehiagok osatuko dute, eta talde bakoitzean etapako edo zikloko koordinatzailearen kargua egongo da. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza irakasten dituen ikastetxe batean gehieneko kopurua laukoa da; bat Haur Hezkuntzarako eta bat Lehen Hezkuntzako hiru zikloetako bakoitzerako. Hala ere, Haur Hezkuntzako hiru lerro edo gehiago daudenean, ikastetxeak beste koordinatzaile bat izan dezake etapa horretan.

Ikastetxeko zuzendaritzak izendatuko ditu beste zuzendaritza-kargurik betetzen ez duten etapako edo zikloko irakasleen artetik, eta izendapena jasota geratuko da klaustroko aktan eta EJDn.

Koordinatzaileen zereginak:

- Etapako edo zikloko irakasle taldearen bilerak antolatzea, deitzea eta zuzentzea, eta hartutako erabakiak aktan jasotzen direla ziurtatzea.
- Etapako curriculum-proiektuaren berrikuspena eta eguneraketa dinamizatzea irakasle taldeak egindako proposamenak kontuan hartuta.
- Kide gisa parte hartzea ikastetxeko Koordinazio Pedagogikorako Batzordean.
- Etapako edo zikloko ikasleen tutoretza-zereginak koordinatzea.
- Etapako edo zikloko irakaste-prozesua koordinatzea curriculum-proiektuari jarraituz.
- Jarduera osagarriak koordinatzea.
- Ikasketaburuak bere eskumen-arloan izendatutako zereginak betetzea, bereziki hezkuntza-errefortzuarekin, curriculumaren egokitzapenekin eta jarduera osagarriekin zerikusia dutenak.

3.4.2. Ziklo/etapako taldearen bilerak eta zereginak

Ikastetxeko ordutegian behar den denbora gorde beharko da, astean edo hamabostaldian, zikloko taldeetako kide guztiak elkartu ahal izan daitezen. Ikasketaburuak kontuan hartu behar du hori ordutegiak prestatzen dituenean. Bilera horietara joatea nahitaezkoa izango da kide guztientzat.

Ziklo/etapako taldeek, ikastetxeko AJAn adierazitakoari jarraituz, ikastetxearentzat estrategikoak diren dokumentuen egite prozesuan lagunduko dute. Horrez gainera, ikasturtean irakatsi beharreko arloetako edota eremuetako programazio didaktikoen prestaketa koordinatuko dute ikastetxeko ICPan zehaztutakoari jarraituz.

Programazioa egin ahal izango da Hezkuntza Sailak argitaratutako programazioa didaktikoak egiteko gida²³ eta horren I. eranskinean jasotako txantiloia oinarri hartuta. Dokumentu horrek “Programazio didaktikoak egiteko orientazioak”²⁴ osatzen ditu, eta programazioan konpetentziak sartzeko proposamenak gehitzen ditu.

Konpetentziak lortzea erraztuko duten metodologiak erabiltzeko ikastetxeetan sartzen diren benetako aldaketak islatu beharko dituzte programazio didaktikoek. Ildo horretan, programazio didaktiko guztiek aurrera egiten jarraituko dute, ikas-egoerak edo erronkak barne hartuko dituzten unitate didaktikoen, zereginen edo proiektuen diseinua orokortzeko helburuarekin (Aipatutako giden II. eranskinak horiek diseinatzeko lagundu ahal izango du).

Horretarako, ikastetxeek dagokion Berritzegunearen aholkularitza eskatu ahal izango dute. Berritzeguneek lehentasunez hartuko dute beren gain aholkularitza hori. Bestalde, Hezkuntza Ikuskaritzaren jardun-helburuen artean egongo da curriculumaren garapena egungo araudira egokitzen dela egiaztatzea. Horretarako, programazio didaktikoak aztertuko dituzte.

Honako zereginak ere bete beharko dituzte zikloko edo etapako taldeek:

- Hezkuntza-zikloa osatzen duten ikasle taldeentzat diseinatutako programazioak aplikatzearen emaitzak aztertzea eta aldaketak bideratzea.
- Hezkuntza-jarduera garatzeko irakasleen irizpideak bateratzea.
- IUPa egitea, abian jartzea eta ebaluatzea dinamizatzea.
- Formakuntza edo berrikuntza proiektuak proposatzea zuzendaritza-taldeari.
- Ikastetxeko planak eta proiektuak lantzen laguntzea.
- Ikastetxeko organo eskudunek izendatzen dizkieten gainerako zereginak betetzea.

3.5. MAILAKO TALDEAK ETA TUTORETZAK

Mailako irakasle taldea da ikasleekin esku hartzeko ardatza. Talde horren koordinazioa ezinbestekoa da esku-hartzea koherentea izateko eta ikasleen lorpenen eta zailtasunen jarraipena partekatzeko, baita irakasteko eta ikasteko prozesua egokitzeko egin litezkeen esku-hartzeak ere.

²³ [Programazio didaktikoak egiteko gida](#)

²⁴ <https://www.euskadi.eus/informazioa/haur-eta-lehen-hezkuntzako-ikastetxeen-berriarazko-gaiak/web01-a2ikadok/eu/>



3.5.1. Tutoreen izendapena

Haur Hezkuntzako eta/edo Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan tutore bat egongo da talde didaktiko bakoitzeko. Tutorea ikastetxeko zuzendaritzak izendatuko du.

3.5.2. Tutorearen eginkizunak

Tutoreak bere taldearen ikasleen ardura du. Taldean bestelako arloak ematen dituzten irakasleak koordinatu behar ditu eta bere taldeko ikasleen familiekin eta/edo legezko tutoreekin komunikazio eraginkorra izan behar du hezkuntza-zereginetan laguntzeko, biei baitagokie zeregin hori. Tutoreak eginkizun hauek ditu:

- Tutoretza Plana prestatzea eta garatzea, zikloko koordinatzailearen eta aholkulariaren laguntzaz.
- Ikasleen gaitasunen eta interesen jarraipena egitea, ikaskuntza-prozesuan eta erabaki pertsonalak eta akademikoak hartzean ahalik eta orientaziorik eraginkorrena emateko.
- Ikasleekin talde-tutoretza egitea, tutoretza-programazioan jasotako orientabide-ekintzak barne, baita banakako tutoretza ere.
- Tutoretza-planaren barruan, Bizikasi ekimenean zehaztutako proposamen didaktikoak garatzea.
- Eskola-jazarpenaren kasuetan, beren gela-taldea inplikaturik egonez gero, irakasle tutoreek ikastetxeko BAT taldean parte hartuko dute haiek ebazteko prozesuan.
- Ikasleei euren taldean eta eskolako bizitzan integratzen eta jarrera parte-hartzaileak garatzen laguntzea.
- Norbanako Jarduera Plana egitea aurreko zikloko konpetentzien garapen-maila lortu gabe zikloz igo diren ikasleentzat. Gauza bera, beste urtebetez ziklo berean jarraitu behar duten ikasleentzat ere.
- Taldeko irakasle taldea osatzen duten irakasle guztien hezkuntza-ekintza koordinatzea, irakasle taldearen bilerak antolatzea eta zuzentzea, baita taldearen ebaluazio-saioak ere.
- Ikaslearen etengabeko ebaluazio-prozesua koordinatzea eta, irakasle taldearekin batera, ikasle bakoitzaren ebaluazioari eta promozioari buruz dagozkion erabakiak hartzea, horri buruz indarrean dagoen araudiak eta ICPak ezartzen dituzten irizpideei jarraituz.
- Laguntzako irakaslearekin eta, hala dagokionean, irakasle-aholkulariarekin batera, curriculumaren egokitzapenak eta hezkuntzako esku-hartzea koordinatzea hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleekin.
- Familiei eta/edo legezko tutoreei aldi berean ematea ikasleen hezkuntza-prozesuari buruzko informazioa, eta haien laguntza eskatzea.



- Eskola-orientazioaren banakako txostena egitea etapa amaitzean (edo ezohiko egoerek hala eskatzen dutenean, adibidez zikloz edo etapaz ez igotzeak).
- Bere kargura dauden ikasleen dokumentazio akademikoa zuzen beteko dela bermatzea.
- Familiei seme-alaben hutsegiteen jarraipena egitea, protokoloan ezarritakoari jarraituz.
- Ikastetxeko Tutoretza Planean ezarritako gainerakoak. Hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida planaren arabera, eginkizun horietako bat da berdintasuna, sexu-aniztasuna eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko proposamenak jasotzea tutoretza-planetan.
- Irakasle aholkulariarekin eta arreta goiztiarra ematen duten (edo balorazio-prozesuan dauden) gizarte eta osasun eragileekin batera koordinatzea.

3.5.3. Ikasleen bertaratze-hutsegiteen kontrola

Irakasle guztiek kontrolatu behar dute ikasleak beren eskoletara joaten direla, eta tutoreari jakinarazi behar dizkiote izandako bertaratze-hutsegiteak. Bestalde, tutorearen ardura da ikasleen bertaratze-hutsegiteen jarraipena egitea.

Ikasleen bertaratze-hutsegiteak ikastetxeko AJAn ezarritakoari jarraituz jakinaraziko zaizkie familiei. AJA horrek horri buruzko araudirik zehazten ez badu, familiei jakinarazteko epeak eta modua ezarri beharko ditu Ordezkaritza Organo Gorenak, hutsegite horiei buruzko informazio zehatza eta zuzena bermatzeko.

Ikasketaburuak arbitratuko ditu hutsegite horiek familiei ezarritako epeetan jakinarazteko baliabideak, eta zuzendaritzak dagozkien jarraibideak emango dizkie tutoreei.

Era berean, ikastetxetako zuzendaritzek *oharrak eta hutsegiteak* aplikazio informatikoaren bidez helaraziko dizkiote Hezkuntza Ikuskaritzari ikastetxeko ikasleen bertaratze-hutsegiteei buruzko datuak, horri buruzko zirkularrean ezarrita dagoen moduan.

3.5.4. Bilerak familiekin

Ikastetxeak informazio-saioak antolatu beharko ditu familiekin eta horretarako gurasoak saio horietara bertaratzea erraztuko du.

Familiekin egiten diren bilera horien izaera (irekiak, orokorrak, taldekakoak, banakakoak, etab.) eta antolaketa ikastetxearen AJAn xedatutakora egokituko da. Baldin eta araudi horrek ez baditu gai hauek jasotzen, OOGk zehaztu beharko ditu, eta organo horrek aurreikusi beharko du, azaroaren 1a baino lehen, bilera horien egutegia ere.

Matrikula-eskaera egiteko garaian ziurtatu behar da informazioa behar bezala jasotzen dela, besteak beste, hezkuntza-premia bereziak dituzten eta ezohiko baliabideak eta neurriak behar



dituzten ikasleak hautemateko, baita ezohiko neurririk behar ez izan arren irakasleek gelan jarraitu beharreko pautak zehatz batzuk jakitea behar duten ikasleak ere (Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmendua duten ikasleei arreta emateko gida eta Hizkuntza irakasteko jardunbide egokiak gida)²⁵. Irakasle aholkulariak funtsezko eginkizuna bete dezake informazioa biltzeko orduan eta, hala badagokio, hezkuntza-premia bereziko aholkulariei ebaluazio psikopedagogikoa egiteko eskaera egiteko garaian.

Atal honetan egokia dirudi azken urteotan sortzen ari diren familia-eredu ezberdinak aipatzea; izan ere, ikastetxeek familia-elkartze berri horietara egokitu behar dute eta horien eskaerei eta premiei erantzun behar diete.

3.6. PRAKTIKETAKO UNIBERTSITATE-IKASLEEN TUTORETZA

Martxoaren 6ko 33/2018 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan irakasle izateko gaitzen duten unibertsitate-ikasketen practicumari eta titulazioa dela-eta masterreko ikasketak egin ezin dituzten pertsonentzako prestakuntza baliokidearen practicumari buruzkoak) xedatzen du zein baldintza bete behar diren EAEn funts publikoekin finantzatuta dauden eta unibertsitatez kanpoko irakaskuntza ematen duten ikastetxeetan Haur Hezkuntzako graduak eta Lehen Hezkuntzako graduak unibertsitate-tituluen practicumak, besteak beste, egiteko.

Era berean, dekretu horren xedea da praktiketako prestakuntza-zentroak onartzeko eta praktiketako ikasle irakasle tutoreak egiaztatzeak baldintzak ezartzea. Hezkuntza-arloan eskumenak dituen sailak praktiketako prestakuntza-zentro gisa onartutako zentroetan bakarrik egin ahal izango da practicumak.

Ikastetxeko zuzendaritzak baimena eman ahal izango die praktika horietan tutoretza-lanak egiten dituzten irakasleei, irakaskuntza-dedikazioko orduen barruan, kasuan kasuko unibertsitateak deitutako bileretara joan daitezten. Absentzia hori aurreikusitakoa izango denez, ikasketaburua arduratuko da irakasle horren absentziaren eraginpeko taldeetako ikasleentzat planifikatu eta prestatutako jardueren aplikazioa antolatzeaz.

Hutsegiteak justifikatzeko, deialdia eta zuzendariaren baimena aurkeztu behar dituzte irakasleek. Ezingo da ordezkorik eskatu absentzia horiek betetzeko.

²⁵ <https://www.euskadi.eus/hezkuntza-berri-esk-inklusihoa-dokumentuak/web01-a2hberri/eu/>

3.7. HAUTAKETA PROZEDURETAN HAUTATUTAKO IRAKASLEEN PRAKTIKALDIA

Ikasturte hasieran praktiketako funtzionarioak dituzten ikastetxeko zuzendaritza taldeak aholkularitza eta informazioa emango dizkie praktiketako funtzionarioei. Orobat, praktiketan dagoen funtzionarioak irakasle arituen tutoretzapean eramango du aurrera praktikaldia. Hau guztia, dagokion urteko ebazpenean xedatzen denaren arabera egingo da.

Irakasle tutoreak praktiketako funtzionarioaren gelara bisita egitea sustatuko da tutoreak praktiketako funtzionarioaren irakaskuntza-gaitasuna hobetzen lagunduko duten proposamenak egin ditzan, eta baita ere, praktiketako funtzionarioak irakasle-tutorearen gelara bisita egitea.

Gela barruko behaketa hauek ahalbidetzeko, tutoreen ordutegian eta praktiketako funtzionarioen ordutegian elkarrekin bat egiteko uneak aurreikusiko dira.

Ikastetxeetan zeregin horretan irakasle tutore lanetan aritu direnei, Ikaskuntza eta Berrikuntza Zuzendariak irakasle hauei egindako tutoretza-lana egiaztatuko die, praktikaldia arautzen duen Ebazpenean xedatutakoaren arabera. Tutoretza-lan hau egiaztatze aldera, hezkuntza ikuskaritzak egindako jarraipena eta eskainitako tresnak baliatuko dira.

3.8. LANGILE ESPEZIFIKOAK

Atal honetan aipatzen diren hezkuntza-komunitateko kideek eskola-ingurunean, ikasgelan edo ikasgelatik kanpo zereginak egiten dituzte, eta zuzenean inplikaturik daude ikaskuntza formalaren prozesuan, kasu batzuetan, eta ikaskuntza ez-formalaren prozesuan, kasu gehienetan.

Ikastetxeko zuzendaritzak hurrengo ataletan aipatzen diren profesionalekin koordinazioa eta talde-lana bermatu beharko ditu, beren eginkizunak betetzen dituzten testuinguruak aprobetxatzen dituzten ikasleek.

3.8.1. Jantokiko arduraduna

Zuzeneko kudeaketako eskola-jantokiko zerbitzua emateak —hau da, ikastetxearen beraren bidez emateak— funtzionalki eragiten die kide anitzeko edo pertsona bakarreko hainbat organo kudeatzailerik, besteak beste, OOGari, zuzendaritza-taldeari, jantokiko batzordeari, jantokiko arduradunari eta abarri.

Zuzendaritza-taldeak eskuordetuta, honako eginkizun hauek dagozkio —unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola-jantokiak arautzen dituen 2000ko martxoaren 22ko Aginduan (2000-03-28ko EHAA) jasotzen denez—:

- Otordu-zerbitzua antolatzea eta menuen jarraipena egitea, jasangarritasun-irizpideei jarraituz eta elikagaiak xahutu gabe.



- Jantoki-zerbitzura atxikitako Hezkuntza Sailaren mendeko langileriaren buru izatea eta kanpoko langileen funtzioen gaineko aginpidea izatea, enpresa hornitzaileen eta haietako langileen arteko lan-harremanei, halakorik egongo balitz, kalterik egin gabe.
- Bazkaltiarren familiek egin beharreko ordainketen jarraipena egitea. Jantoki partekatuak badira, kudeaketa ekonomikoa bakarra izango da eta jantokia kokatuta dagoen ikastetxeko kudeaketa ekonomiko orokorraren barruan egingo da.
- Jantokiko funtsen zuzeneko kontrol jarraitua eramatea.
- Gainbegiratze-zereginen arduratzea. Gainbegiratze-zereginak honako hauek izango dira: zerbitzua ematen den bitartean ikastetxeko instalazioetan egotea eta jantokiko disziplinaz eta funtzionamendu egokiaz arduratzea.
- OOGari proposatzea ikasleek parte hartzeko programak, hark erabaki ditzan.
- Aldian behin sukaldeko tresneriaren inbentarioa egitea, eguneratzea eta berritzea.
- Kontratututako enpresak ematen duen zerbitzuaren ezaugarriak eta kalitateari buruzko txostena aurkeztea OOGari, eta instalazioen obrak eta hobekuntzak proposatzea.
- Elikagaien eta lokalen higiena kontrolatzea eta jantokiko hondakin guztien gaikako bilketa bermatzea.
- Zerbitzua ondo emateko beharrezkoa den beste edozein eginkizun, esate baterako, arreta berezia jartzea alergiak edo elikagaien intolerantziak dituzten ikasleekin edo dieta gehiago zaintzea eta kontrolatzea behar duten gaixotasunak, adibidez, zeliakia edo diabetesa, duten ikasleekin.
- Indarrean dagoen araudiak agintzen dizkion beste eginkizun batzuk.

Gainera, egokia litzateke jantoki-zerbitzuaren ordutegian bizikidetza-giroa hobetzen lagunduko duten ekimenak proposatzea BAT taldeari edota ikastetxeko Elkarbizitza Behatokiari.

Jantoki-zerbitzuaren arduradunak lanaldiaren ehuneko hau eman beharko du jantoki-zerbitzuko eginkizunak betetzeko:

Jankideak	Jantoki-zerbitzuan emandako lanaldia	Ordu presentzialak
30 arte	Curriculum emateko lanaldiaren herena	1 ordu egunean
31 eta 250 artean	Curriculum emateko lanaldiaren erdia	1,5 ordu egunean
250 baino gehiago	Curriculum emateko lanaldi osoa	2 ordu egunean

Lehen zerrendatutako eginkizunetaz gainera, jantokiko instalazioetan egon beharko du, baita bazkalurreko eta bazkalondoko jolasaldietan ere, aurreko taulan adierazitako ordu kopuruan. Ikasleak behatzeko eta haiei zuzeneko arreta emateko aldi horietan, jantokiaren arduradunak zeregin garrantzitsuak bete ditzake, bai inklusio- eta bizikidetza-helburuekin lotuta, bai eskuratzen ari diren konpetentziak garatu eta finkatzearekin lotuta.

Jantoki partekatuen kasuan (jantokiko instalazioak hartzen dituen ikastetxe bateko jankideek jantokia partekatzen dute beste maila bateko beste ikastetxe bateko jankideekin), jantokirik ez duen ikastetxeak lanaldi erdiko murrizketa izango du, aipatutako 2000ko martxoaren 22ko Agindua 15. artikuluan e), f) eta j) puntuetan ezarritako eginkizunak betetzeko.

- Zerbitzua eman bitartean jantokiko instalazioetan egotea, eta jantokiaren diziplinaz eta funtzionamendu egokiaz arduratzea.
- Otorduak iraun bitartean eta aurreko eta ondorengo aldietan gainbegiratzea.
- Bere ikastetxeko ikasleei laguntzea jantokia duen ikastetxeraino, eta alderantziz.

Jantokiko zerbitzua erabiltzearekin batera, jolasgaraiak ere izaten dira bazkalaurretik eta bazkalondoan. Hezkuntza-administrazioetik kanpoko langileak arduratu ohi dira jolasgarai horiek zaintzeaz. Era berean, komeni da langile horiek aintzat hartzea, ezagutzea eta balioestea egiten duten lanagatik eta eskola-eguneko tarte horiek dakarten potentzialtasunagatik, hezkuntza-komunitatean sustatzen diren eta IHPan eta IUPea islatzen diren ikaskuntzak eta jakintzak finkatzeko.

HPB duten eta autonomia-programa bat atxikita duten ikasleek hezkuntza-laguntzako espezialisten laguntza behar dute. HPBko aholkularien jarraibideak betez egindako ebaluazio psikopedagogikotik eratorritzen da premia hori, eta profesional horiek zehaztuko dute eta dagokion Norbanako Jarduera Planean jasoko da.

3.8.2. Administrazio-kudeaketaren arduraduna

Zeregin administratiboez arduratzen den irakaslearen irudiak (AKA) zentzua hartzen du zuzendariaren lanetatik sortutako arduretan laguntzeari eta lankidetzan aritzeari dagokionez, EEPLren 34. artikuluan deskribatzen den bezala, eta, bereziki, honakoekin lotutakoei dagokionez:

- Ikastetxeko urteko kudeaketa-programaren arabera, gastuak baimentzea, eta ordainketak egiteko aginduak ematea.
- Behar diren obra-, zerbitzu- eta hornikuntza-kontratazioak egitea.

Funtzio horiek administrazioaren eta kudeaketa ekonomikoaren alorreko lanak dakartzate; edonola ere, zuzendaritzak ikuskatuta eta haren ardurapean gauzatuko dira lan horiek, eta beste zeregin didaktiko batzuk ere izendatu ahal izango dizkio.

Horrela, AKAk zuzendaritza-lanetarako eman beharreko laguntzarako prozesuak hiru eremutan banatzen dira:

**- Administratiboa**

- Hezkuntza-komunitateko sektoreei eta hornitzaileei arreta eta informazioa ematea.
- Telefono-deiez, faxaz eta posta elektronikoaz arduratzea, eta informazioa bideratzea.
- Posta jasotzea, sailkatzea, erregistratzea eta banatzea.
- Ikastetxeko inbentarioa kontrolatzea.
- Kopiatutako materiala erabiltzea eta zaintzea.
- Idatziak, gutunak, ziurtagiriak, jakinarazpenak, zerrendak... idaztea.
- Espediente akademikoak eta bestelako administrazio-dokumentuak irekitzea eta eguneratzea.
- Datuak dagokion administrazioa bideratzea.
- Ordezkoak eskatzea, irakasleak eta irakasle ez direnak.
- Informatika-aplikazioak erabiltzea ikastetxeko kudeaketa-esparru ezberdinetan.
- Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzara bidaltzea altak eta bajak, baita langileen hutsegiteen baieztapena ere aplikazioaren bidez.

- Ekonomikoa

Urteko Kudeaketa Programa da erreferentzia nagusia; izan ere, programa horren zehaztapenen artean egongo da ikastetxeko aurrekontua, funtzionamendu-gastuak zehaztuta, baita ekipamendu- eta inbertsio-gastuak eta gastu horiei aurre egiteko baliabideak ere. Hori lantzeko orduan, kontuan izango dira erosketak berdearen eta jasagarritasunaren irizpideak.

Aurrekontu operatiboak jasoko ditu, aurreikuspen moduan, ikastetxeari esleitutako diru-sarrerak, baita gastuak ere, Kontabilitate Publikoko Plan Orokorri jarraituz. Plan horrek urte naturaleko ekintzen tenporalizazioa zehazten du, eta honako eginkizun hauek betetzea eskatzen du:

- Aurrekontu operatiboa egitea
 - Ikastetxearen beharrak lehenestea
 - Diru-sarrerak sailkatzea
 - Gastuak sailkatzea
- Aurrekontuak aldatzea, honako hauen arabera:
 - Gastuan eta/edo diru-sarreretan izandako igoera edo jaitsiera
 - Kredituen birbanaketa
- Aurrekontua gauzatzea
 - Materiala erosteko kontratazioak eta proposamenak prestatzea
 - Ordainketak egitea
 - Erregistro-liburuetan jasotzea
 - Exekuzioaren egoeraren laburpena egitea



- Aurrekontuari buruzko informazioa ematea
 - Dokumentazioa betetzea aldizka
 - Ekitaldiko aurrekontu operatiboa
 - Gastu-exekuzioaren egoeraren laburpena
 - Diruzaintzaren analisisa

- Didaktikoa

Ikastetxean sor daitezkeen irakaskuntza-beharrei erantzutea (ohiko irakaskuntzan laguntza ematea, irakasleen ordezkapenak, hezkuntza-errefortzuko beharrak, errehabilitazioak,...) gainerako irakasleen baldintza beretan, eta aipatutako jarduera ekonomiko-administratiboen kaltetan izan gabe.

AKA ikastetxeko zuzendariaren ardurapean dago ondorio guztietarako, eta zuzendariak bere gain hartzen ditu, azken aukeran, kudeaketaren ardurak.

- Dedikazioa eta izendatzea

AKAren dedikazioa LPZ egiteko zehaztutako irizpideen arabera da:

- dedikazio partziala (lanaldi erdia) 13, 14 eta 15 unitateko ikastetxeetan.
- dedikazio osoa (lanaldi osoa) 16 unitate edo gehiagoko ikastetxeetan.

Zuzendariak izendatuko du, borondatez postua eskatu duten ikastetxeko behin betiko, behin-behineko edo bitarteko irakasleen artean.

3.8.3. Jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoan programako irakasleak

Programaren ardura duten irakasleek praktikara eraman beharko dituzte diseinatzen dituzten eskolaz kanpoko jarduerak, eta irakasle arduradunak zuzenean esku hartu beharko du borondatez parte hartzen duten ikasleekin. Ordu-tegiaren zati horrek asteko lanaldiaren bi heren beteko ditu, hau da, 20 ordu. Horietatik, gutxienez, 2 ordu egingo dira egunero ikasleen arratsaldeko eskola-eguna amaitzean.

Programa honetako irakasleak lanaldi erdian baino ez badaude, honela banatu behar dituzte eginkizunak:

- Lanaldi erdia programari eman behar diote:
 - 5 ordu astean, ikastetxeko eskola-ordutegian.
 - 10 ordu astean, eskolaz kanpoko ordutegian. Horietatik, gutxienez 1 ordu egingo da egunero ikasleen arratsaldeko eskola-eguna amaitzean.
- Lanaldi erdia ohiko arduraldiari eman behar diote, Ebazpen honetako 3.1.3. c) atalean ezarrita dagoen moduan banatuta.



3.8.4. Lan-legepeko irakasle eta hezitzaileak

Irakasle eta hezitzaile lan-kontratudun horiek beren hitzarmen kolektiboan ezarritakoa bete beharko dute, 2004ko maiatzaren 21eko Ebazpenean²⁶ ezarritakoa eta Hezkuntza Saileko irakasle eta hezitzaileen hitzarmen kolektiboaren negoziazio-mahaiaren 2018ko apirilaren 13ko akordioan²⁷ jasotakoa.

Gainera, batzorde parekide bat eratuta dago itundutakoa interpretatzeko, aztertzeko eta betetzen dela zaintzeko, baita tresna juridiko hau eta bere eranskinak osatzen dituzten gaien jarraipena egiteko eta garatzeko ere. Langile horien funtzionamenduari buruzko orientabide espezifikoak ere ematen dira, horretarako prestatutako jarraibideen bidez.

3.8.5. IBT-CRI laguntza-zerbitzua

IBT-CRI baliabidetegiek ikusmen-desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusioa lortzeko lan egiten dute, eta hezkuntza-komunitateko eragile guztiei aholku ematen diete eta haiekin esku hartzen dute ikasle horiei eman beharreko hezkuntza-erantzunaren diseinuan. IBT-CRIko teknikariak, organikoki eta funtzionalki, ikusmen-desgaitasuna duten ikasleen hezkuntza-inklusioko baliabide-zentroetako zuzendaritzen mende daude. Zentro horiek Hezkuntza Sailaren mendeko kanpoko laguntza-zentroak dira, martxoaren 1eko 40/2005 Dekretuaren bidez sortutakoak.

Zerbitzu honen esku-hartzea detekzioaren unetik hasten da. Detekzioa ikastetxetik bertatik etor daiteke, berritzegunearen bidez, edo familiengandik, zerbitzu medikoak bideratuta. Azken kasu horretan, IBT-CRIko zuzendaritzak dagokion Berritzeguneari jakinaraziko dio.

3.8.6. Zeinu-hizkuntzako interpretea

Hezkuntza-sisteman, zeinu-hizkuntzaren interpretea profesional konpetentziaduna da ikasgelan komunikatzeko ahozko hizkuntzan eta zeinu-hizkuntzan, eta hezkuntza-jardunean ohiko irakasleak bere ikasleei komunikatzen diena itzultzen du, eta hizkuntza nagusia zeinu-hizkuntza duten ikasleentzat ulergarri izateko moduan. Hala, esku hartzen duen taldeko kide da, eta bere konpetentzia pertsonalak eta profesionalak gainerako taldeetara zabaldu daitezke, horientzat eredu eta gidari izango baitira.

²⁶ <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2004/06/0403236a.pdf>

²⁷ https://www.berrigasteiz.com/site_documento/lan_baldintzak/20180618_akordioa_laboral_docente_educativo_e.pdf

Eginkizun hauek ditu:

- Gorreria duten ikasleei curriculumerako sarbidea erraztea, hezkuntza-komunitateko eragile guztiekiko komunikazioa bermatuta.
- Gorreria duten ikasleentzako hezkuntza-erantzunean ikastetxean esku hartzen duten irakasleekin eta gainerako profesionalekin lankidetzan aritzea.
- Irakasleekin koordinatzea gaietan eta irakasteko eta ikasteko jardueretan aurrea hartzeko.
- Urteko plana eta memoria prestatzea, ikastetxean, ikasgelan eta gorreria duten ikasleekin hartutako erabakiak islatuta, baita bere lanbide-konpetentziari dagozkion beste dokumentu eta txosten tekniko batzuk ere.
- HPBko aholkulariarekin eta/edo koordinatzailearekin koordinatzea gorreria duten ikasleak behar bezala eskolatzeko.
- Gidari-interpretaren berezko jarduerak egitea gor-itsutasuna duten ikasleekin.

4. IKASTETXEAREN FUNTZIONAMENDUAREN BESTE ARAU BATZUK

4.1. IKASTETXEETAKO ERAIKINAK ETA INSTALAZIOAK URTEKO PLANEAN AURREIKUSI GABEKO JARDUERETARAKO ERABILTzea

Maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuaren (2008ko maiatzaren 19ko EHAA) xedea da erregulatzea unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoen eraikinak eta instalazioak nola erabili behar dituzten bai administrazio eta erakunde publikoek, bai beste edozein pertsona fisiko edo juridikok, ikastetxearen urteko programazioan aurreikusita ez dauden hezkuntza-, kirol- eta kultura-jarduerak edo bestelako jarduera sozialak egiteko.

Dekretuak, besteak beste, honako alderdi hauek zehazten ditu bere artikuluetan: egin beharreko jardueren ezaugarriak, erabiliko diren instalazioak, lehentasunak, erantzukizunen araubidea, eta eskaeraren eta baimenaren prozedura arrunt eta laburtua.

Alde horretatik, ikastetxeetako eremuak eta instalazioak hezkuntza-komunitateko kide guztiei zabaltzea da eragile guztiak integratzeko eta hartzeko modu bat, komunitatean modu aktiboan parte hartzen laguntzeko eta komunitatea indartzeko jardunbide bat. Hala ere, gogorarazten da ikastetxeak nahitaez bete behar duela maiatzaren 6ko 76/2008 Dekretuak araututakoa (2008ko maiatzaren 19ko EHAA).

4.2. IKASTETXEETAKO OSASUNARI ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA

Hezkuntza-komunitateko era askotako eragileek parte hartzen dute eta laguntzen dute eskolako bizitzan, eta horrek eskatzen du osasunarekin eta segurtasunarekin zerikusia duten hainbat



alderdi arautzea, batez ere ikasleei dagozkienak, baina baita eskolan ibiltzen diren gainerako kolektibo guztiei dagozkienak ere.

4.2.1. Osasun-larrialdiko egoerak ikastetxeetan

Osasun-larrialdiren bat izanez gero, ikastetxeko irakasleek edo irakasle ez diren langileek berehala deitu behar dute larrialdietako 112 zerbitzura, eta bertan azalduko diete nola jokatu.

4.2.2. Osasun-arreta eskola-orduetan

Osasun-beharrizan bereziak dituzten ikasleei arreta emateko, Gobernu Kontseiluak 2005eko azaroaren 29an erabakitako jarduera-protokoloari jarraituko zaio²⁸.

4.2.3. Ibilgailuak ikastetxera sartzea

Indarrean dagoen segurtasun-araudiari jarraituz, debekatuta dago ikasleek eta ibilgailuek aldi berean espazio berberak edo sarrera eta irteera berberak partekatzea.

Ikastetxeko zuzendaritzak sartzeko baimena emanda ere, ezingo dira sartu ikasleen sarrera eta irteera orduetan edo ikasleen jolasgaraian. Gainera, prozedura jakin bat, ordutegiak, ibilbideak eta ikastetxearen eremuan zirkulatzeko arauak zehaztuko dira, eta seinaleak ere jarriko dira. Prozedura hori idatziz erregistratuko da eta ikastetxeko arduradunek eta ibilgailuaren gidariak horren berri izango dute.

Aparteko egoera batean ibilgailu bat ikastetxera sartzen bada, ikastetxeko zuzendariak edo hark eskuordetutako pertsonak lagundu beharko diote.

4.2.4. Obrak

Litekeena da eskola-orduetan obrak egin behar izatea ikastetxe batean.

Obrak egiteko, Segurtasun eta Osasun Azterketa bat sartuko da proiektuan eta bertan jasoko dira jarraibideak. Obra txikien kasuan, jarraitu beharreko Segurtasun Plan bat erantsiko zaio lantokiaren irekierari.

- Edonola ere, obren gunea eta irakaskuntzako gunea erabat bereizi beharko dira. Horrek eskatzen du:
 - Obra-eremua erabat hesiz inguratzea.
 - Obrako ibilgailuentzat eta obrako langileentzat sarrera independenteak jartzea.
 - Obrakoa ez den pertsona orori sarrera galarazteko kartela jartzea.
 - Ibilgailuak sartzen diren atetik oinezkoak sartzeko galarazteko kartela jartzea.

²⁸ [Protokoloa. Osasun arreta berezia eskola orduetan](#) (2006)

- Ikastetxeko sarreran eta obra-eremuan ikusteko moduan jartzea bi eremuak koloreen arabera argi eta garbi bereizita dituen plano bat, dagozkien sarbideak eta jarraibideak adierazita. Plano hori ikastetxeko zuzendaritzari ere emango zaio.
- Obrako ibilgailuak irekita dagoen ikastetxeko eremutik sartu behar izango balira, obraren arduradunak langileak jarriko ditu etengabe sarrera-irteerak kontrolatzeko eta ikastetxeko ikasleen eta langileen segurtasuna bermatzeko.

4.2.5. Tabakoa eta alkohol-dun edariak

Ikastetxeko zuzendaritza arduratuko da indarrean dagoen araudia betearazteaz. Araudi horren arabera, debekatuta dago ikastetxeetan tabakoa eta alkohol-dun edariak saltzea eta kontsumitzea, ikasleen adina eta irakaskuntza-mota edozein izanik ere.

4.2.6. Eskolako laborategien erabilera

Laborategietako jarduerak ikasleen adinera eta gaitasun-mailara egokituko dira, baita instalazioen baldintza teknikoetara ere. Pertsonen segurtasuna eta indarrean dauden protokoloek ezartzen dutena betetzea ziurtatu behar da.

4.3. LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOKO ZERBITZUA

Gogorarazten da laneko arriskuaren prebentzioari buruzko informazio guztia webgunean²⁹ dagoela, Prebentzio Zerbitzua atalean, eta Prebentzio Zerbitzuko teknikariei ere kontsultatu ahal zaie.

ZERBITZU OROKORRAK	LAPZ arduraduna	945 018 411
	Higiene arloa	945 018 451
	Psikosoziologia arloa	945 016 546
	Segurtasun arloa	945 016 545

LURRALDE HISTORIKOA	ZONA	ARLO TEKNIKO	LAN OSASUNAREN ARLOA
ARABA	1 ZONA	945 01 84 51	688670550
BIZKAIA	1 ZONA	94 403 11 92	94 4031194
	2 ZONA	94 403 11 93	
	3 ZONA	94 403 11 93	
	4 ZONA	94 403 11 92	
GIPUZKOA	1 ZONA	943 02 31 74	943 023170
	2 ZONA	943 20 84 44 181 luzapena	943 700491

²⁹ <https://www.euskadi.eus/langile-lapz-prozedurak-enpresa-koordinazioa/web01-a2hsprl/eu/>



4.3.1. Segurtasuneko laguntzailea

Ikastetxearen hezkuntza-kudeaketarako murrizketa-orduen zati bat esleituko dio zuzendariak eginkizun hori bete behar duen irakasleari. Prebentzio Zerbitzuak antolatuko dituen bileretara joan ahal izateko, irakasle horren ordutegian asteartean goizeko 8etatik 11tara ez da irakaskuntza-dedikaziorik izango, ahal dela.

Zuzendaritza-taldeari gogorarazten zaio komeni dela laguntzailearen figura ikastetxean maila bateko egonkortasun bat duen langile bati esleitzea, lanari jarraitutasuna emateko.

4.3.2. Irakasleen prestakuntza prebentzioaren arloan

Hezkuntza Sailaren prebentzioaren arloko prestakuntza emateko betebeharra betetzeko (31/1995 Legearen 19. artikulua) eta langileek lege horren 29. artikulua betetzeko, irakasleen formakuntzara zuzendutako orduetatik eta/edo ikastetxean lan egiteko orduetatik, gutxienez, 2 ordu gordeko dira urtean formakuntza horretarako. Formakuntza hori Prebentzio Zerbitzuak emango du ikastetxe bakoitzean, garaiz hitzartutako egunetan eta ordutegietan.

4.3.3. Larrialdietarako simulakroak

Urteroko jarduera da, eta, ahal dela, ikasturtearen hasieran egingo da. Nahitaezko jarduera da eta IUPn jasoko da. Ikastetxean desgaitasuna duen ikasleren bat eskolatuta egonez gero, hura behar bezala ebakutzeko beharrezko neurri zehatzak adierazi behar dira. Simulakroa egin ondoren, jardueraren ebaluazioa **Segurtasuna–Larrialdiak** atalean gaitutako webguneko formularioaren bidez, eta horrela bakarrik, bidaliko da.

4.3.4. Botikin eramangarria

486/1997 Errege Dekretuan, lantokietako gutxieneko segurtasunari eta osasunari buruzko xedapenak ezartzen dituenean, xedatutakoari jarraituz, lantoki guztiek, gutxienez, botikin eramangarri bat izango dute, eta honako elementu hauek izango ditu: desinfektatzaile eta antiseptiko baimenduak, gasa esterilak, kotoi hidrofiloa, bendak, esparatrapua, apositu itsasgarriak, guraizeak, pintzak eta erabili eta botatzeko eskularruak.

Lehen laguntzako materiala aldi berean behin aztertuko da, eta berriro egingo da iraungi edo erabili ahala.

4.3.5. Laneko istripuak

Osasun zaintza eta jakinarazpena Hezkuntza Saileko webgunean **Segurtasun-Lan istripuak** atalean, agertzen den eskemaren arabera egingo dira³⁰.

³⁰ <https://www.euskadi.eus/langile-lapz-segurtasuna-lan-istripuak/web01-a2hsprl/eu/>

Ikastetxeko zuzendaritzak **istripu guztien erregistroa** eramango du, **bai baja eragiten dutenena bai baja eragiten ez dutenena**.

Ikastetxeko langileei egindako erasoak lan-istriputzat hartuko dira, nahita egindakoak izan edo nahi gabe egindakoak izan, eta horiek ere erregistroan sartuko dira.

Amatasuna Babesteko Prozeduran, ikastetxean izandako istripuen nahiz gertaeren erregistroa eskatu ahal izango da.

4.3.6. Laneko arriskuen prebentzioari buruzko informazioa

Informazioa entregatzeko eta erregistratzeko prozeduran ezarritakoari jarraituz, zuzendaritza-taldeak ikastetxeko lanpostuen arriskuei buruzko ebaluazioa eta larrialdi-plana emango dizkie ikastetxeko langileei.

4.4. DATU PERTSONALEN BABESA

Ikastetxeek ikasleen datu pertsonalak kudeatuko dituzte arau hauetan ezarritakoaren arabera: 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

Ikastetxe publikoek eskolatzeko-prozesuan sortzen den informazioa kudeatuko dute, eta berori Hezkuntza Sailaren aplikazioen bitartez bilduko da. Era berean, ikastetxeak behartuta daude hezkuntza-komunitate osoa prestatzera datu pertsonalak tratatzearen oinarriko printzipioen eta arriskuen inguruan. Datuen titularrei hezkuntza ulerterrazean eman beharko diete datuak babesteko daukaten politikaren eta horiek gordetzeko epearen berri.

Ikastetxeak datu horiek etengabe eguneratuta eduki behar ditu barne-prozesuen funtzionamendu egokirako. Beraz, ikasleak kontzientziatu behar ditu datuak aldatuz gero betiere horren berri eman dezaten, horiek eguneratu ahal izateko.

Ikastetxeek beren eginkizunak betetzeko tratatzen dituzten datu pertsonalak ez dira ikastetxearenak, baizik eta ikasleenak, haien senideenak, bertako langileenak edo ikastetxearekin harremanetan dauden beste pertsona fisiko batzuenak. Horiek dira beren informazio pertsonalaren benetako titularrak. Ikastetxeko langileek arduraz eta pribatutasuna eta intimitatea errespetatuz tratatu behar dituzte datu pertsonalak, ikasleen interesa eta babesa lehenetsita.

Erabiltzaileek eskubidea izango dute datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke eta beste norabaitera eramateko, baita haien trataera mugatzeko edo trataeraren aurka egiteko ere.

Hezkuntzaren arloan, bereziki garrantzitsua da ikasleen osasunari buruzko datuen tratamendua. Hala, adibidez, hezkuntza-premia bereziei buruzko datuak (adibidez, minusbaliotasunen bat), edo



bestelakoak (hala nola alergia eta intolerantziak), baita ikasleen txosten psikopedagogikoetan, etab. jasotako datuak ere ikasleen osasunari buruzko datutzat jotzen dira.

Baliteke ikastetxeek —zehazki, bertako langileek— jakin behar izatea ikasleek gaixotasun edo alergia jakin batzuk badituzten. Horretarako, informazio hori ahalik eta berme handienarekin tratatzeko neurriak hartuko dituzte.

Horregatik, eta eragindako ikasleen gurasoekin edo, hala badagokio, haien legezko tutoreekin adostuta, beharrezko protokoloak ezarri behar dira informazio hori egoki tratatzeko, bai ikastetxearen ohiko funtzionamenduan (ikasgeletako egonaldia, aisialdiko ordutegia, gorputz-hezkuntza, jantokia, erizaintza, ebaluazio psikopedagogikoa, etab.), bai ezohiko egoeretan (maisu-maistren edo tutoreen ordezkapenak, urteurren-ospakizunak, irteerak, udalekuak, etab.).

4.5. IKASTETXEETAKO JABETZA INTELEKTUALA

Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen eta gai horri buruz indarrean dauden lege-xedapenak erregularizatu, argitu eta harmonizatzen dituen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoa kontuan hartuta artikulatuko da obra zati txikien eta izaera plastiko edo fotografiko figuratiboko obra isolatuen erreprodukzioa, banaketa eta komunikazio publikoa (ikus, bereziki, 32. artikulua).

Vitoria-Gasteiz, 2022ko uztailaren 1ean

Begoña Pedrosa Lobato
HEZKUNTZAKO SAILBURUORDEA